

Zer esan nahi du ekonomia ikasteak?

Mugarik gabeko
Ekonomilariak



Economistas
sin Fronteras

 **Bizkaia**
enplegua, gizarte kohesioa eta
berdintasuna sustatzeko saila
departamento de empleo,
cohesión social e igualdad

SARRERA

Ikuspegi feminista eta dekolonialaren txertaketa, hezkuntza arautuko Ekonomia eta ekintzailtza irakasgaietan

Gaur egun, hezkuntza-inguruneetan irakatsitako Ekonomiaren oinarrian ikuspegi teorikoa dago, hein handi batean. Ez dauka lotura zuzenik inguratzen gaituen errealitate ekonomikoarekin. Kontzeptu eta eredu neoklasikoak dedukzioz helarazi ohi dira; hau da, teoria zurrun eta koherenteetatik datozen suposizio eta axioma abstraktuetatik abiatuta. Gutxitan izaten dute, ordea, horiek kontrastatzeko ebidentzia enpirikorik (Post-Crash Barcelona, 2014-2015). Garapen kapitalistaren eredua mundu mailan posible eta desiragarria den eredu bakartzat irakasten da. Ez da aintzat hartzen eredu horrek ezin diezaiekeela egungo erronkei behar bezala erantzun, eta albo batera uzten dira haren eragin negatiboak. Gizarte-desberdintasunak eta krisi ekologikoa sistema ekonomikotik kanpoko alderdiak balira bezala irakasten dira, egungo garapen-ereduari eusten dioten berezko ezaugarritzat hartu beharrean.

Ekonomia horrela irakasteak arloaren aztergaiari buruz kritikoki hausnartzeko aukerak mugatzen ditu, eta errealitate eta esperientzia ugari baztertzen. Ondorioz, Ekonomia ikastea egungo munduaren erronka sozial, ekologiko eta ekonomikoei erantzun eraginkorrik ematen ez dien diziplina ortodoxo bihurtzen da.

Aldi berean, hezkuntza arautuan kultura ekintzailea sustatzen da, erronka eta krisi garaikideei erantzuteko. Honela dio araudiak:

«Egungo erronkei aurre egiteko, ezinbestekoa da pertsonei beharrezko tresnak ematea, ekimenez eta ikuspegi kritiko eta ekintzailetik, inguruko arazo eta beharrianetarako ideia eta irtenbide berritzaileak eta iraunkorrak bilatu, sustatu eta eraginkortasunez gara ditzaten, testuinguru zabalagoetara, baita globaletara ere, eraman litezkeen tokiko erronkei erantzuteko».

Euskadiko Mugarik Gabeko Ekonomialariok zera uste dugu: kultura ekintzaileak balio handia duela, baldin eta ikuspegi eraldatzaile batean integratzen bada; baldin eta ekonomikoki errentagarriak diren ekintzailtza-estrategiak sortzera bideratuta badago, norbanakoa erdigunean jartzen dutenak, eta bizitzaren jasangarritasuna lortu nahi dutenak. Ikuspegi horri helduz gero, ekintzailtza tresna bat bihurtzen da, inguruan ditugun errealitateak aldatzeko. Tresna horrek eskubideetan oinarrituta egon behar du, eta aukera-berdintasuna, lankidetzak, gizarte-inklusioa eta berdintasuneko harremanak sortzea sustatu. Hala ere, gure ustez, eraldaketa sozioekonomikoko testuinguru batean besterik ezin daiteke helburu hori bete. Ekonomiaren orain arteko irakaskuntzak zenbait printzipiori eusteko joera du, «mugiezinak» direla esanez, baina kritikoki jarri beharko lirateke zalantzan.

Horregatik, Mugarik Gabeko Ekonomialariok lanean dihardugu ikuspegi kritikoa Ekonomiaren irakaskuntzan txertatzeko, material pedagogikoen bidez. Halakoa da jarraian aurkeztu dugun materiala. Eskuliburu honetako gogoetak eta baliabideak irakasleen eta ikasleen arteko baterako lana errazteko diseinatu dira. Ikuspegi kritikoa sustatzea du helburu, aukera eman dezan begiradak zabaltzeko, ezarritako ereduak zalantzan jartzeko eta aurrera egiteko, gure gizartearen ongizate ekitatibo eta jasangarria lehenesten duen ortzi-muga sozioekonomiko baterantz.

ESKULIBURUAREN AURKEZPENA

Ekonomia feministak eta pentsamendu dekolonialak hausnarketarako hainbat gako dakarzkigute, egungo sistema ekonomikoaren oinarrian dauden egiturazko desberdintasunak ulertzeko. Gako horiek helarazi nahi izan ditugu dokumentu honetan, ikasleek eta irakasleek haiekin lan egin ahal izan dezaten, etorkizun bidezkoago eraikitzen parte hartuz.

Ekonomiaren ohiko irakaskuntzak merkatu formalean jarri ohi izan du arreta, eta baztertu egin izan ditu gizartearen erreprodukziorako funtsezkoak diren jarduerak, hala nola zaintza-lana eta etxeko lana. Azken horien ardura emakumeei egokitu izan zaie, gehienbat. Ekonomia feminista txertatzeak aukera ematen du ulertzeko genero-dinamikek sistema ekonomikoaren alderdi guztiak zeharkatzen dituztela ulertzeko, bai lanaren sexu-banaketa, bai politika publikoak.

Bestetik, pentsamendu dekolonialak gonbit egiten digu, hau aztertzeko: munduko sistema ekonomikoak oraindik ere Iparraren eta Hegoaren arteko mendekotasun- eta ustiapen-harremanak errepikatzen dituela, eta horietako asko kolonialismotik datozela. Ikuspegi horrek agerian uzten du egungo sistema ekonomikoa gutxi batzuentzat bakarrik dela onuragarria, pertsona askoren kaltetan. Agerian uzten du garrantzitsua dela pertsona guztiek, batez ere zaurgarrienek, giza eskubideak eskuratzen eta baliatzen lagunduko duten harreman ekitatiboen alde lan egitea

JARRAIBIDEAK

Eskuliburu hau egiteko sakonki berrikusi da McGrawHill argitaletxeak egindako eskuliburu bat, DBHko 4. mailako Ekonomia eta Ekintzailletza irakasgairako. Dokumentu hori berrikusketarako hautatu izanak hainbat arrazoi ditu atzean. Batetik, ikasgai hori aukerakoa denez, hura izan ohi da ekonomiaren arloarekin ikasleek dute lehen harremana —eta batzuetan, baita azkenekoa ere—. Irakasgaiak landutako hainbat oinarritzko kontzeptu bigarren hezkuntzako eta lanbide-heziketako zikloetako ekonomiako beste irakasgai batzuetan aztertzen dituzte. Horrez gain, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, gizonen eta emakumeen arteko eskubide- eta aukera-berdintasuna ezarri da helburutzat. Beraz, genero-desberdintasunei txikitatik heldzea lagungarria da segmentazio horizontala murrizten laguntzeko, goi-mailako hezkuntzan eta bizitzaren ondorengo etapetako lan-merkatuan.

Bestetik, McGrawHill argitaletxea erreferentea da ekonomiaren arloan, eta irakasle gehienak eskuliburu horretan oinarritzen dira irakasgaia emateko.

Eskuliburuaren egitura

Eskuliburua unitatez unitate berrikusi da, eta horietako bakoitza bat dator lege berriak ezartzen dituen **oinarrizko jakintzekin**, eskuliburuak aurkeztutako **epigrafeekin** eta berrikusteko planteatu diren **kontzeptu** nagusiekin.

Gero, unitate bakoitzean, **eskuliburuko baieztapen** ugari hautatu dira, eta, horietatik abiatuta, **Aldaketarako gogoeta** bati ekin diogu, ikuspegi feminista eta dekolonial batetik. Arrazoiketa hori egiteaz gain, ahal den guztietan dakartzate **baliabide pedagogikoak** eta horiek aplikatzeko iradokizunak, ikasgelan erabiltzeko.

Gainera, Aldaketarako gogoeten barruan zenbait galdera daude, ikasgelan gogoeta egin eta eztabaidatu ahal izateko. Ikono honekin identifikatuko dituzu (galdera-markadun ikurra).

Bi modutara erabil daiteke eskuliburua kontsultatzeko sistema:



■ Berrikusitako eskuliburuaren epigrafe espezifikoei jarraituta (McGrawHill eskuliburua irakaskuntzarako erabiltzen duten irakasleentzat pentsatu da).

■ Lan-kontzeptuen arabera bilatuta (ekonomiari buruzko irakasgaietako irakasleentzat, orokorrean).

Helburu horretarako, bestelako bi aurkibide egin dira. Material horren edukiekin zuzenean lotuta daudenez, aukera ematen dute bilaketak arin eta modu eraginkorrean egiteko.

Ebaluazio-sistema

Eskuliburuak 3 jarduera misto ditu bloke bakoitzerako. Proposamen-multzo bat dira, unitate horietan landutako kontzeptu eta eduki nagusiak lantzeko.

Jarduera horiek beren ebaluazio-sistema dute, ikasleek ikaskuntzan eta pentsamendu kritikoan duten eragina jasotzeko eta sistematizatzeko.

Era berean, irakasleek betetzeko adierazle-sorta bat ere gehitu dugu, jarraian aurkeztu ditugun materialen eta baliabideen kalitatea, egokitasuna eta eragina kontrastatzeko. Adierazle horiek aukera ematen dute ikasgelan ikuspegi feminista eta interseksionala transmititzea helburu duen edozein baliabide edo ekintza malgutasunez erabiltzeko.

Materialen inpaktu-adierazleak

Materialak modu argi eta ulergarrian aurkeztu al ditu kontzeptuak, eta errazten al du irakaskuntza?

Ondo antolatuta al dago materiala, eta erraza al da jarraitzen?

Laguntzen al du materialak esperientzien eta ahotsen aniztasuna ulertzen, genero, etnia, klase sozial eta beste desberdintasun-ardatz batzuk kontuan hartuta?

Hizkuntza inklusiboa al darabil materialak, eta saihesten al ditu kulturaren edo generoaren inguruko estereotipo edo alborapenak?

Zailtasun-maila egokia al dute gaiak, proposatutako hezkuntza-mailarako?

Era koherentean integratzen al da ordezeko materiala, curriculum-programarekin?

Prest egongo al zinateke material hori beste irakasle batzuei gomendatzeko?

Prest egongo al zinateke material hori etorkizuneko ikasturteetan erabiltzeko?

Egokiak al dira materialaren tresnak eta baliabideak, ikasgelan inklusio- eta ekitate-gaiak ikuspegi interseksionaletik lantzeko?

Bultzatzen al du materialak hausnarketa kritikoa egitera gizarteko botere-harremanen inguruan, batez ere emakumeei eta Hegoko herrialdeetako biztanleei eragiten dietenen inguruan?

Laguntzen al du materialak kritikoki ulertzen egiturazko desberdintasunek talde batean eta bestean zer eragin duten?

Materialak bultzatzen al ditu ikasleak, hainbat identitate-ardatzek beren esperientzietan duten eraginari buruz gogoeta egitera?

Sortzen al du materialak interesik ikasleengan, justizia sozialarekin eta aniztasunarekin lotutako gaietan?

Hauteman al duzu jarrera-aldaketa irakasleengan, edo parte hartu al du ekimen jakin batean, landutako materialetik abiatuta egindako hausnarketen ondorioz?

AURKIBIDEA

Zer esan nahi du ekonomia ikasteak?

1. BLOKEA | 01. UNITATEA

Pertsonen ekonomia

Zer da ekonomia?

- #ekonomia
- #kapitalismoa
- #ekonomia soziala eta solidarioa
- #ekonomia feminista
- #zaintzen ekonomia
- #ekonomia zirkularra
- #ekonomia ekologikoa

Zer da ekonomia?

- #beharrak
- #ondasunak eta zerbitzuak
- #dirua
- #zaintzen ekonomia

Aukeratzea uko egitea da.

Agente ekonomikoak.

- #agente ekonomikoak
- #kontsumoa
- #ekoizpena
- #zaintzen ekonomia
- #zaintzen erantzukidetasuna
- #zaintza-kate globalak

Aukera-kostua

- #aukera-kostua
- #balioa eta prezioa

Pertsonen portaera

- #homo economicus
- #zaintzen ekonomia

Jarduerak. 6

- #sare sozialak eta beharrak
- #kapitalismo digitala

1. BLOKEA | 02. UNITATEA

Ekoizpena, errenta eta merkataritza

Ekoizpena eta aukerak

- #ekoizpena
- #erauzketa
- #zaintzen ekonomia
- #ingurumenaren jasagarritasuna

Ekoizpena eta aukerak

- #lanaren enplegua,
- #lan-baldintzak
- #zaintzen ekonomia

Ekoizpen-aukeren muga

- #ekoizpena
- #erroskila ekonomia

Errentaren fluxu zirkularra

- #errentaren fluxu zirkularra
- #zaintzen ekonomia
- #sistema ekonomikoa, soziala eta naturala

Merkataritza eta ongizatea

- #ongizatea
- #garapena

Merkataritza eta ongizatea

- #lanaren banaketa
- #zaintza-kate globalak
- #zaintzen ekonomia

Interdependentzia eta koordinazioa

- #zaintzen ekonomia

Desberdintasunak

- #desberdintasunak
- #birbanaketa
- #BPG
- #garapena

Desberdintasunak

- #desberdintasunak

Desberdintasunak

- #birbanaketa
- #herrialdeen arteko desberdintasuna
- #ekoizpenaren deslokalizazioa
- #genero-aurrekontuak
- #zerga-politika

Periskopia, 3

#soldata-arrakala
#soldata-arrakala
#zaintzen ekonomia

1. BLOKEA | 03. UNITATEA

Finantza-plangintza

Diruaren ezaugarriak

#bizitzaren zikloa
#zaintzen ekonomia
#seme-alaba bat izan osteko soldata-arrakala
#oinarrizko errenta
#pentsioak

Jarduerak. Erretiroa eta pentsio-planak

#pentsioak
#lan-baldintzak
#emakume autonomoen soldata-arrakala

Ikaskuntza-egoera, 3. unitatea

#finantza-bazterketa
#emakumeak eta finantzak
#finantza etikoak

Epigrafea: 3. unitatearen jarduerak

#zaintzen ekonomia

1. BLOKEA | 04. UNITATEA

Finantza-osasuna

Epigrafea: 4. unitatearen aurkibidea

#emakumeak eta finantzak
#finantza-bazterketa
#sozialki arduratsua den inbertsioa
#finantza etikoak

Epigrafea: Finantza-bitartekariak

#finantza etikoak
#finantza-bazterketa

Clasificación de las inversiones

#sozialki arduratsua den inbertsioa
#finantza etikoak
#inpaktua duten inbertsioak

Zorrak

#maileguak
#finantza-bazterketa
#finantza etikoak

1.FITXA. JARDUERAK

2. BLOKEA | 05. UNITATEA

Enpresen funtzioa

Enpresen helburuak

#enpresak
#mozkinak maximizatzea
#lan-esplotazioa

Enpresen helburuak

#enpresak
#mozkinak maximizatzea
#Ekonomia Sozial eta Solidarioa
#ekitatearen aldeko planak

Erantzukizun sozial korporatiboa

#enpresak
#erantzukizun sozial korporatiboa
#genero-berdintasuna
#ekitatearen aldeko planak
#zaintza-erantzukidetasuna

ESKren abantailak

#enpresak
#erantzukizun sozial korporatiboa
#markaren balioa
#greenwashing, pinkwashing

Sektore ekonomikoak

#sektore ekonomikoak
#erantzukizun sozial korporatiboa
#ekoizpenaren deslokalizazioa
#garapena
#arrakala digitala

Ariketak

#zaintza-erantzukidetasuna

2. BLOKEA | 06. UNITATEA

Enpresa-antolaketa

Enpresa-motak

#enpresak
#forma juridikoak
#ekonomia soziala
#Ekonomia Sozial eta Solidarioa

Forma juridikoa aukeratzea

#enpresa-kudeaketa
#demokrazia enpresan
#kooperatibak

Forma juridikoa aukeratzea

#enpresa-kudeaketa
#demokrazia enpresan
#kooperatibak

Enpresaren elementuak

#taldeen kudeaketa
#genero-ekitatearen aldeko prozesuak

Enpresaren elementuak

#enpresa-kudeaketa
#enpresen moldaketa eta eraldaketa
#Ekonomia Sozial eta Solidarioa

Enpresa-finantzaketa

#enpresa-finantzaketa
#lan-eskubideak
#Sozialki arduratsua den inbertsioa

Enpresa-finantzaketa

#enpresa-finantzaketa
#lan-eskubideak
#Sozialki arduratsua den inbertsioa

Enpresa-finantzaketa

#enpresa-finantzaketa
#mikrokredituak

Enpresa-finantzaketa

#enpresa-finantzaketa
#dirulaguntzak

Enpresen betebeharrak

#zergen balio soziala
#zerga-politika

Obligaciones de las empresas

#valor social de los impuestos
#política fiscal

Enpresen betebeharrak

#zergen balio soziala
#zerga-politika

2. BLOKEA | 07. UNITATEA

Gizarte-, ingurumen- eta kultura-ingurunea

Demografia, teknologia eta globalizazioa

#jasangarritasuna
#ekofeminismoa
#garapena

Garapen Jasangarrirako Helburuak

#jasangarritasuna
#garapena
#ekofeminismoa
#ekonomia zirkularra

Jasangarritasun-ziurtagiriak

#greenwashing, pinkwashing
#markaren balioa

2.FITXA. JARDUERAK

3. BLOKEA | 08. UNITATEA

Ekintzailletza

Ekitea egitea da

#ekintzailearen profila
#aniztasuna eta inklusioa
#genero- eta gizarte-desberdintasuna
#ekiteko baldintzak
#lankidetza-ekintzailletza

Ekitea egitea da

#ekintzailearen profila
#aniztasuna eta inklusioa
#genero- eta gizarte-desberdintasuna
#ekiteko baldintzak
#lankidetza-ekintzailletza

Ekitea egitea da

#lankidetza-ekintzailletza
#genero- eta gizarte-desberdintasuna
#ekiteko baldintzak

Ekintzailea

#ekintzailletza soziala versus Ekonomia Sozial eta Solidarioko ekintzailletza

Ekintzailearen profila

#ekintzailearen profila
#genero- eta gizarte-desberdintasuna
#ekiteko baldintzak
#lankidetza-ekintzailletza

Ekintzailearen arrakasta eta porrota

#arrakasta eta porrota, horiek neurtzea
#ekiteko baldintzak

3. BLOKEA | 09. UNITATEA

Talde-lanA

Nola osatu talde bat

#taldeen kudeaketa
#genero-rolak taldeetan

Nola izan taldeko jokalaria ona

#taldeen kudeaketa
#genero-rolak taldeetan
#aniztasuna eta inklusioa
#antirrazismoa

Nola izan taldeko jokalaria ona

#taldeen kudeaketa
#genero-rolak taldeetan
#aniztasuna eta inklusioa

Lidergoa

#taldeen kudeaketa
#genero-rolak taldeetan
#aniztasuna
#demokrazia enpresan

Taldeetan sarritan izaten diren arazoak

#taldeen kudeaketa
#genero-rolak taldeetan
#aniztasuna eta inklusioa
#komunikazio inklusiboa

Komunikazioa

#taldeen kudeaketa
#genero-rolak taldeetan
#aniztasuna eta inklusioa
#komunikazio inklusiboa
#antirrazismoa

Gatazkak konpontzea

#taldeen kudeaketa
#genero-rolak taldeetan
#antirrazismoa
#aniztasuna eta inklusioa

Gatazkak eta emozioak

#taldeen kudeaketa
#genero-rolak taldeetan
#aniztasuna eta inklusioa
#komunikazio inklusiboa

3. BLOKEA | 10. UNITATEA

Zure negozioa sortzen

Negozio-ideia

#lankidetzak-ekintzailak
#ekintzailak sozialak versus Ekonomia Sozial eta Solidarioko ekintzailak

Balioa sortzea

#ekintzailak eraldatzaileak

Egin prototipo bat

#ekintzailak eraldatzaileak
#aniztasuna eta inklusioa
#ekonomia zirkularra

Gure ideiak babestea

#lankidetzak-ekintzailak

3. BLOKEA | 11. UNITATEA

Negozio berri bat abian jartzea

Marketina

#marketin inklusiboa
#marketin eraldatzaileak

Marketin mixaren aldagaiak

#komunikazio inklusiboa
#antirrazismoa

Gure ekintzailatzaren finantzaketa

#finantza-bazterketa
#emakumeak eta finantzak
#mikrokredituak

Partekatu zure proiektua

#ekintzailak eraldatzaileak
#aniztasuna eta inklusioa

3.FITXA. JARDUERAK



ZER ESAN NAHI DU EKONOMIA IKASTEAK?

Askotan, ekonomia ulertzen zaila den eta gure eguneroko errealitatetik at dagoen zerbait bezala ikusten dugu. Hala ere, eta beti kontziente ez bagara ere, ekonomiak gauza guztietan eragiten digu, diruaren administrazioa, estatistika edo matematika baino askoz gehiago baita. Ekonomia gizarte-zientzia bat da, pertsonei buruz eta pertsona horiek ondasun eta zerbitzuen kudeaketarekin eta eskuragarritasunarekin duten harremanari buruz diharduena. Herrialde bakoitzak bere ekonomia du, baita familia bakoitzak eta pertsona bakoitzak ere. Adibidez, ideia hori zure familiara eramaten baduzu, ikusiko duzu helduek zuk oraindik ez dituzun ondasun eta zerbitzu batzuk eskura ditzaketela, edo zure aitak kontsumitzen ez dituen beste gauza batzuk kontsumitzen dituela zure amak, eta, hala, adibide ugari daude.

Ikastaro honen bidez, gaur egungo ekonomia-motari buruz hausnartuko dugu, zer beste ekonomia-mota diren posible, nola har dezakegun parte gizarte sostengagarri eta jasangarri bat sortuko duen eta, batez ere, pertsona guztientzat inklusiboa izango den ekonomia bat sortzen eta sustatzen.



1. Blokea

1. BLOKEA | 01. UNITATEA

PERTSONEN EKONOMIA

Ekonomian, pertsona eta gizartea aztertzen dira, bai eta zer lotura duten bi elementu horiek sistema ekonomiko jakin batek sortzen dituen ondasunekin eta zerbitzuekin. Horri esker, jakin dezakegu zer lotura duten pertsonak beren beharrak asetzearekin eta zer aukera ditugun gutako bakoitzak duin bizitzeko hautatzen ez dugun ekoizpen-sistema batean. Sistema hori hainbat mendetatik existitzen da, eta kapitalismoa deitzen zaio. Entzun al duzu inoiz kontzeptu hori?

Garrantzitsua da kapitalismoa historian kokatzea: **kapitalismoa XVII. eta XVIII.** mendeetan Europan hasi zen sistema ekonomikoa da, bereziki Industria Iraultzarekin batera. Kapitalismoaren aurretik, ekonomia gehienak **feudalak** ziren, hau da, aberastasuna lurretik zetorren eta jauntxoek kontrolatzen zuten sistema hori. Jendeak, nekazariak gehienak, haientzat lan egiten zuten. **Kapitalismoarekin** aberastasuna sortzen hasi zen fabriken eta merkataritzaren bidez, eta jendeak enpresetan egiten zuen lan soldata baten truke.

Garrantzitsua da kapitalismoa ekonomia nagusia dela pentsatzea, baina ekonomia egiteko eta ulertzeko beste modu batzuk ere badaudela, hain zuzen ere, ikastaro honetan ikusiko ditugunak. Halaber, garrantzitsua da ulertzea kapitalismoan pertsona guztiek ez dituztela ekiteko aukera berberak. Edonork arrakasta izan dezakeela eta arrakasta norbanakoaren lorpena dela sustatzen den arren, praktikan, kapitala eskuratzea, prestakuntza eta kontaktu-sareak ez daude berdin banatuta. Horrek esan nahi du pertsona asko aukera horretatik kanpo geratzen direla.

1. unitatean egungo ekonomia kapitalistaren alderdi nagusiak ezagutuko ditugu, eta horiei buruz hausnartuko, bai eta pertsonen bizitzekin eta gure eguneroko errealitatearekin nola erlazionatzen diren gogoeta egingo ere.

LOMLOren oinarrizko jakintzak	Ingurunearen ikuspegi ekonomikoa: _ Arazo ekonomikoa: baliabideen eskasia eta aukeratzeko beharra. _ Ekonomian aukeratzea: kostuak, azterketa marjinala, pizgarriak. _ Pertsonen portaera erabakietan.
Eskuliburuko epigrafeak	_ Baliabide-eskasia. _ Agente ekonomikoak. _ Aukera-kostua. _ Kostu berreskuraezinak. _ Irabaziak eta kostu gehigarriak. _ Pizgarriak. _ Pertsonen portaera.
Irakurketa kritikoarekin garatu beharreko trebetasunak	_ Ekonomiaren ikuspegia zabaltzea, ikuspegi neoklasikoa gaindituz eta ekonomiaren beste forma sozialago batzuk ezagutuz. _ Kapitalismoaren kontzeptua kolonialismotik datorren eta jarraitzen duen sistema desorekatu eta bidegabe gisa hurbiltzea. _ Genero-desberdintasuna eta diskriminazioak ikusaraztea, jatorriagatik, arrazagatik eta egoera sozioekonomikoagatik. _ Ekonomia Sozial eta Solidarioaren ideia hurbiltzea, genero-berdintasunaren, antirrazismoaren eta kulturartekotasunaren sustatzaile gisa. _ Egungo baliabideekiko eta kontsumoarekiko loturari buruz hausnartzea. _ Oinarrizko Giza Beharren ideia eta haren baldintzatzaileak problematizatzea, genero-, jatorri- eta arraza-faktoreen eta egoera sozioekonomikoaren arabera. _ Eskasia kontzeptua problematizatzea ekonomian.

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 01

Zer da ekonomia?

#ekonomia #ekonomia soziala eta solidarioa #ekonomia zirkularra
 #kapitalismoa #ekonomia feminista #ekonomia ekologikoa
 #zaintzen ekonomia

ZER DIO ESKULIBURUAK?

Ba al zenekien ekonomia Adam Smith ekonomialari eskoziarraren Nazioen aberastasuna lanarekin sortu zela? (...). Liburu horrek oinarriak ezarri zituen ekonomia puntu zientifiko batetik aztertzeko, gaur egun egiten dugun bezala.



IRAKURKETA KRITIKOA

Giza historian, ekonomia da baliabideak, ondasunak eta zerbitzuak administratzeko edo kudeatzeko moduak aztertzen eta proposatzen dituen **diziplina**. Hala ere, ez zen beti zientzia bat izan, edo, beste era batera esanda, ez du beti izan zientzia gisa baliozkotzen zuen metodo zientifiko bat.



Zure ustez, arrazoizkoa al da pentsatzea ekonomiaren sorrera gizabanako bakar bati egotz dakiokela? Zure ustez, zergatik izan zen sortzailea gizona eta ez emakumea?

Adam Smithen teoria ekonomikoak merkatuan gertatzen den jardueran oinarritzen den egungo pentsamendu ekonomikoaren oinarriak ezartzen ditu. **Teoria horrek ekonomia ulertzeko eta azaltzeko beste modu batzuk ahuldu ditu, ekonomia horrekin batera existitzen direnak.** Adibidez, ekonomia feminista, marxista, ekologikoa, garapenaren ekonomia, post-keynesiarra, etab. (ikusi [ekonomia feministaren gida: Ikusezina ikusaraztea](#) y [korrante ekonomiko heterodoxoen eskuliburua MgE](#)).

Garrantzitsua da esatea teoria horrek —teoria neoklasikoak indartuta eta birdefinituta— **ekonomiaren ikuspegi tekniko eta kuantitatiboa** sustatzen duela, eta ez duela kontuan hartzen portaera ekonomikoak giza elkarrekintzek eta gizarte-egiturek baldintzatzen dituztela, eta etika pertsonalak eta gizarte jakin batean sustatzen diren balioek moldatzen dituztela.

Une honetan, funtsezkoa da kapitalismoa sortu zen testuinguru historikoa ulertzea: sistema hori Europako **hedapen kolonialen** garaian garatu zen, izan ere, mugimendu horiek funtsezkoak izan ziren kapitalismoa eratzeko, hedatzeko eta finkatzeko. Asia, Afrika eta Amerikako kolonietan lurrak, baliabideak eta pertsonak (esklaboak)

desjabetu eta ustiatzeak, sistema kapitalistaren hedapena ahalbidetu zuen oinarri materiala emateaz gain. Mundu mailan hedatu zen eta gaur egun mantentzen den egitura soziala sortu zuen, erdigunearen eta periferiaren arteko hierarkiak eta desberdintasunak naturalizatuz.


Horrez gainera, merkataritza-jardueran soilik sakondu zen, eta azterketatik kanpo utzi ziren merkatutik kanpo gertatzen ziren jarduera guztiak: esaterako, etxeko lanak eta zaintza-lanak. Lan horiek emakumeen erantzukizuntzat hartzen dira, eta ez dira ekarpen ekonomiko gisa onartzen. Hala, sistema kapitalista zaintza-lanaren menpe dagoen eredu ekonomiko gisa eratu zen, emakumeen lan “natural” bezala ikusia, eta lan horren balioa aitortu gabe. Esan dezakegu kapitalismoak genero-hierarkia horiek behar dituela funtzionatzeko eta hazteko.



Zure ustez, sistema kapitalistan, baldintza berdinak al ditugu denok baliabide, ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko? Zure ustez, berdintasun sozial eta ekonomikoa sortzen al du mundu mailan ekonomia egiteko modu horrek?

Kapitalismoak **banaketa izugarria ekarri du gizaterian**, pertsonak baliabideak dituztenen eta ez dituztenen artean banatuz. Horrek desberdintasun sozial eta ekonomiko oso larriak sortzen ditu, eta kapitalismoaren aurretik zeuden eta orain zorrotzagoak diren genero- eta arraza-desberdintasunak indartzen ditu. Ekoizteko eta kontsumitzeko modu hori krisi ekologikoa eragiten ari da, eta, horrez gainera, neurri txikiagoan ekoizten eta kontsumitzen duten biztanleengan ditu ondorio gehien.

Gure planeta askotarikoa da, besteak beste, pertsona, etnia, klima eta istorioei dagokienez, eta gizakien artean eta gizakien eta naturaren artean erlazionatzeko eta antolatze modu ugari daude. Kapitalismoa eta teoria neoklasikoa —kapitalismoari eusten dio— nagusitu dira globalizazio-prozesuan, ekonomia egiteko eta ulertzeko modu bakar gisa. Askotan ahaztu



Adam Smith, XVIII. Mendeko ekonomilari eskoziarra || Wikipedia

egiten dugu **badirela ekonomia ulertzeko eta praktikatzeko modu alternatiboak, ingurunearekiko proposamen justuagoak eta jasangarriagoak dakartzatenak.**

Ekonomia-mota hauek ekonomia nagusiaren alternatiba gisa aurkezten dira:

1. Ekonomia herrikoia eta solidarioa: egungo kapitalismo neoliberalari kontra egiteko Latinoamerikan azaleratu den forma da. Kapitalismoak sortutako krisietatik eratorria da, eta ekonomia komunitarioa eta kolektiboa planteatzen du. Hauek ditu ardatz:

- Pertsonen ongizatea.
- Lurra zaintzea eta lurra atzeritartzeari uko egitea —herrialde bateko lurzorua natiboa eta nazionala merke saltzea atzeritarrei edo multinazionaleri lur horietan dauden baliabideak (ura, adibidez) ustiatzen baitituzte, dirua egiteko, lurralde horretan bizi diren pertsonen bertako baliabide urriak eskura izango dituztela bermatu gabe.
- Natura-baliabideak ustiatzeko erantzukizuna.
- Emakume pobreak lan-merkatuan sartzeari lehentasuna ematea; izan ere, krisi-garaian, emakumeak dira kaltetuenak, haur eta nerabeekin batera.
- Eta ekoizpenaren eta kontsumoaren arteko bitartekariak gutxitzea, prezioak jaisteko.

2. Ekonomia Sozial eta Solidarioa: munduko beste leku batzuetan (Europar, esaterako) sortzen den eta ekonomia herrikoitik eratorria den forma da. Lankidetzan, jakintzen trukean, bidezko merkataritzan eta interkooperazioan oinarritua, pertsonen garapena jartzen du ekonomiaren erdigunean eta ingurumenaren eta baliabideen zaintza barne hartzen ditu.

3. Ekonomia Feminista: ekonomia eta eguneroko bizitza aztertzen ditu, genero-erolekiko, bai eta emakumeek rol horietan izan duten desberdintasun historikoa ere. Emakumeek egiten duten ordaindu gabeko lana —hala nola zaintza edo etxeko lanak— ekonomiaren parte direla eta merkaturak existitzeko ezinbesteko baldintza direla onartzea. Ekonomia neoklasikoak kanpoan uzten dituen elementuak bere analisietan integratzea, genero-desberdintasunak ikusarazten ditu eta emakumeen esperientziak eta ekarpenak barne hartzen dituen analisi integralagoa proposatzen du.

4. Zaintzaren ekonomia: Ekonomia Feministari lotuta dago. Ekonomia-mota horren arabera, zaintza-lanak eusten diote merkatu-ekonomiari. Zaintzarik gabe ez dago ekonomia kapitalistik, beharrezkoak baitira lan egin ahal izateko eta, horren ondorioz, produzitu ahal izateko. Tesian, zaintzak balioestea, emakumeentzako agindu gisa ateratzea eta gizartean birbanatzea eta errealitate horren arabeko estatu-politikak sortzea planteatzen da.

5. Ekonomia ekologikoa: Ekonomia ez da soilik diru-fluxua, baizik eta mota guztietako baliabideak daude, batez ere, baliabide naturalak. Haren premisa nagusia da ziklo monetario eta finantzarioa biosfera batean dagoela, eta hori ezin da bereizi. Ekonomia egiteko natura eta biodibertsitatea kontuan hartu gabe, ekonomia bera ez da sostengagarria.

6. Ekonomia zirkularra: Sistema kapitalista tradizionalak planteatzen du objektuek eta zerbitzuek bizitza baliagarria dutela eta gero baztertu egin daitezkeela. Horrek esan nahi du merkatuan saltzen diren objektuak, ondasunak eta zerbitzuak fabrikatzeko erabiltzen diren baliabide asko ustiatu behar direla. Ekonomia zirkularrak ekoizteko modua hasieratik eraldatzea proposatzen du. Hain zuzen ere, asko ekoitzi beharrean, gutxiago eta hobeto ekoiztea. Materialak aurrezteko, produktuak berrerabiltzea eta ekoizpen-prozesuan hondakinak errentagarri egitea dira helburuak. Onurak planeta hobeto zaintzera daude bideratuta, bai eta gehiegizko ekoizpen kapitalista murriztera eta kontsumo logikoak gora egitera, egungo bizitzaren ardatz gisa.

Garrantzitsua da ekonomia alternatibo horiek gurutza daitezkeela ulertzea, hau da, konbina daitezkeela. Zaintzaren ekonomiak ekonomia ekologikoarekin eta zirkularrarekin batera, adibidez, eredu berri bat sortzen dute eta egungo sistema kapitalistaren praktikei desafio egiten diete. Ez da nahitaez bat aukeratu behar, baizik eta nahasi egin behar dira, beste bizitza-proposamen eta munduarekiko harreman bat posible egon dadin.



BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

■ Ekonomia: zientzia zehatza vs. gizarte-zientzia kontzeptua ulertzeko elkarrizketa irakurtzea:

<https://ecosfron.org/entrevista-a-marcos-castro-la-era-actual-resulta-fascinante-desde-el-punto-de-vista-de-la-economia/>

■ Ekonomia soziala eta solidarioa azaltzeko bideoa:

https://www.youtube.com/watch?v=U_4pdk9I5k0

https://www.youtube.com/results?search_query=vulnerabilidad+economia+feminista+ecosfron

■ Ekonomia soziala eta solidarioa azaltzeko bideoa:

<https://www.youtube.com/watch?v=ko7Qujp4DHE&t=1s>

■ Ekonomia sozialari eta ekonomia zirkularrari buruzko bideoa:

<https://www.youtube.com/watch?v=8yeenLbuRaY&t=65s>

<https://www.youtube.com/watch?v=VKSZNwoqXaA>

<https://www.youtube.com/watch?v=kuQs77L9GQs>

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 02

Zer da ekonomia?

#beharrak
#ondasunak eta zerbitzuak

#dirua
#zaintzen ekonomia

ZER DIO ESKULIBURUAK?

- 1 . Gizakiok ez gara autosufizienteak; aitzitik, premia asko ditugu: batzuk, existentziarako ezinbestekoak (lehen mailakoak), eta beste batzuk, denborari edo zirkunstantziei dagozkienak (bigarren mailakoak).
- 2 . Gure beharrak asetzen dituen guztiari ondasun eta zerbitzu deritzogu.
- 3 . Premia da falta den zerbait asetzeko nahia. Ondasunak (ukigarriak) edo zerbitzuak (ukiezinak) beharrak asetzen dituztenak dira.
- 4 . Dirua da ondasun nagusia; izan ere, ordaintzeko eta kobratzeko denok onartzen dugun bidea denez, gainerako ondasun eta zerbitzuak erosteko aukera ematen du.

IRAKURKETA KRITIKOA

Argitu dezagun beharren kontu hori... Garrantzitsua da aipatzea gizakiok behar materialak ditugula, baina baita sozialak eta emozionalak ere. Garrantzitsua da lehen eta bigarren mailako premien hierarkia hori zalantzan jartzea:

? Zein dira nire lehentasunezko beharrak? Berdinak al dira guztientzat? Ba al dago genero-desberdintasunik pertzepzio horri dagokionez? Berdinak al dira beharrak bizitzako une guztietan eta leku guztietan?

Beharrak berezkoak ditu gizakiak, hau da, ezaugarri ontologikoa da, giza beharrak gutxi eta finituak dira eta sailkatu egin daitezke. Beharrak EZ dira sortzen. Pertsona izateagatik behar batzuk ditugu eta hauek berdinak dira mundu osoan. Beste kontu bat da nola artatzen edo asetzen ditugun behar horiek. Premia horiek “gogobetetzaille” izendatu zituen Max Neef ekonomialari txiletarrak, eta horiek bai, desberdinak izan daitezke leku, denbora eta egoeraren arabera.

Premien banakako lanketa horren aurrean, garrantzitsua da azpimarratzea **gizakiok bizirauteko eta norbanakoaren garapenerako beste batzuen beharra dugun izaki sozialak garela, eta, beraz, premia kolektiboak edo komunitarioak ere kontuan hartu behar direla**. Ikuspegi historikotik begiratuta, badakigu gizakia ez zela inoiz modu isolatuan bizi izan; beti bizi izan dela giza historiaren garai eta etapekin aldatuz joan diren gizarte-unitateetan, gaur egungo familiaren eta gizartearen konfiguraziora iritsi arte..

Gure beharrak asetzen dituen guztiari **ondasun** eta **zerbitzu** deitzen diogu.

Ondasunak eta zerbitzuak merkatuan erosten eta saltzen direnak badira, baieztapen horrek pentsarazten digu behar guztiak erosgarriak diren ondasun eta zerbitzuekin betetzen direla merkatuan. Hori ez da posible, ezta desiragarria ere. Afektu- edo aitopen-premien kasuan, adibidez, ez dago asetzen duen ondasunik edo zerbitzurik, nahiz eta askotan kontrakoa sinetsarazi marketin-teknikekin. Bestalde, oinarritzko behar asko (jatea, lo egitea, garbiketa, etab.) merkatutik pasatzen ez diren ordaindu gabeko etxeko lanekin eta zaintza-lanekin artatzen dira.

Halaber, ez da zuzena esatea “behar bat falta den zerbait asetzeko nahia” dela. Horrek beharra eta desioa nahastera garamatza, gauza desberdinak baitira. Askotan, marketin-teknikak erabiltzen dira nahiak eta beharrak nahasteko, gehiago saltzeko helburuarekin.

Interesgarria da Max Neefek “gogobetetzailleekin” egiten duen sailkapena berreskuratzea, **gogobetetzaille sinergikoak eta suntsitzailleak**. Lehenak aldi berean premia bat baino gehiago asetzen dituztenak dira. Hemen aipatu genitzake ekonomia komunitarioen zaintza eta elkarrekiko laguntza-harremanak; behar anitzak asetzen dituztenak (afektua, biziraupena, identitatea, parte-hartzea) merkatuaren menpe egon gabe. Gogobetetzaille suntsitzailleek, aldiz, behar bat betetzen dutela ematen du, baina epe luzera beste behar batzuk suntsitzen dituzte, baita premia bera ere. Horren adibide litzateke kontsumismoa: identitate edo afektu beharra ase dezake epe laburrean, baina askotan epe luzerako ongizatea apaltzen du, desberdintasunak sortu eta ingurumena kaltetzeaz gain.

? Zure ustez, behar bat al da jakinduria? Naturarekiko lotura behar bat al da? Zure ustez, gure beharrei erantzuten die gizartearen kontsumitzen dugun guztiak? Merkatuak pertsona guztien beharrei berdin erantzuten diela iruditzen al zaizu? Zure ustez, ba al alderik ondasunen eta zerbitzuen eskaintzan gizon edo emakume izatea-gatik? Zure ustez, eskaintza desberdin hori justifikatuta dago emakume eta gizon gisa ditugun benetako beharrei erantzuten dielako? Bururatzen al zaizu kasuren bat norbaiten beharrei merkatuak erantzuten ez diena?

Orain, pentsatu zure eguneroko beharretan, egin zerrenda bat eta aztertu nola asetzen diren. Zure ustez, gehienbat ondasunak eta zerbitzuak kontsumituz gogobetetzen dituzu? Nork erantzuten die orduan behar horiei?

Bestalde, badira inoiz merkantilizatu behar ez liratekeen beste behar batzuk ere. Hitz egin dezagun, adibidez, ondasun komunez eta publikoak, doakoak eta mundu guztiarentzat eskuragarriak izatea bermatzearen garrantziaz. .

? Ba al dakizu herrialde batzuetan emakumeak direla etxeetara ura ekartzeko ardura dutenak eta horretarako hainbat kilometro egin behar dituztela edateko ur-iturri batera iritsi arte?



Bururatzen zaizkizun premien artean, zein ez dira merkantilizatu behar?

Dirua ondasun nagusia dela esaten denean, eztabaida ireki dezakegu baieztapen horren inguruan. Lehen berrikusi ditugun gai guztiekin, elementu interesgarriak ditugu eztabaidatzeko:



Dirua al da ondasunak eta zerbitzuak trukatzeko modu bakarra? Ezagutzen al duzu dirua ordainketa-modu gisa erabiltzen ez duen sozietaterik?

Gauza bera al dira balioa eta prezioa?

Zerk du balio handiagoa zuretzat, zaintzak edo diruak?



BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

■ Giza beharrak

“Ekonomia feminista lantzeko gako batzuk”. Finantzaz Haratago elkarteak Ekonomia Feministaren 2023ko VIII. Kongresuan aurkeztutako posterra.

<https://finantzazharatago.org/wp-content/uploads/Finantzaz-Haratago-Poster-del-VIII-Congreso-de-Economia-Feminista.pdf>

■ Eztabaidarako irakurketak:

<https://ecosfron.org/saretuz-en-las-fiestas-de-porrontxo-2024-un-encuentro-para-reflexionar-y-celebrar-en-egia/>

— Iradokizuna

Unitateak jarduera tipiko bat du: basamortura joateko taldean aukeratu behar dute zer gauza eraman, aukera-kostua irudikatzeko.

Jarduera horren bidez, emakumeentzako produktu higienikoak sar daitezke zerrendan, hala nola konpresak, tanpoiak edo hilekoaren kopa. Talde mistoetan eztabaidatu daiteke ea objektu hori oinarritzko beharrak asetzeko zerrendan sartzen den.



ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 03

Aukeratzea uko egitea da.

#eskasia #zaintzen ekonomia
#birbanaketa #sare komunitarioak

ZER DIO ESKULIBURUAK?

1 . “Aukeratzea uko egitea da”, baliabideak mugatuak direlako, baina beharrak –mugagabeak dira– pertsonok baliabideak administratzen ditugu, ahalik eta etekin handiena lortzeko.



IRAKURKETA KRITIKOA

Ekonomia neoklasiko edo konbentzionalaren arabera, baliabideak mugatuak dira eta giza beharrak mugagabeak. Hala ere, ikusi dugun bezala, giza beharrak ez dira mugagabeak, eta, horrez gainera, pertsona guztiak ez dira baliabideen kontsumo materialaren bidez asetzen; beraz, baliabide mugatuen existentziarekin duten lotura ere eztabaidagarria da.

Bestetik, baliabide mugatuez ari garenean, baliabide horien edukitza edo gozamen desorekatuaz eztabaidatu behar dugu.

? Orduan, banaketaren urritasunaz edo desberdintasunaz ari gara?.

Elikagaietan pentsatu eta munduko goseaz eztabaidatu dezakegu, gizarte hiperkontsumistetako elikagai-xahuketaren aurrean. Hori dela eta, ekonomiaren ikuspuntu kritikoa kontuan hartuta, ekonomia ez da urritasunetik planteatu behar, baiziketa birbanaketaren arazotiketa baliabideez-berriztagarrien jasangarritasunaren arazotik.

Bestalde, baliteke beste behar bat asetzeari uko egiten ez aritzea, baizik eta merkatutik kanpo asetzea, laguntza- eta truke-sareen bidez edo ordaindu gabeko zaintza-lanaren bidez, ekonomia konbentzionalaren azterketatik kanpo geratzen diren eremuak baitira, esan dugun bezala.

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 04

Agente ekonomikoak.

#agente ekonomikoak
#kontsumoa#ekoizpena
#zaintzen ekonomia#zaintzen erantzukidetasuna
#zaintza-kate globalak

ZER DIO ESKULIBURUAK?

“Agente ekonomikoak: (...) Familiek kontsumo pribatuari buruz erabakitzen dute, lehentasunek eta diru-sarrerek baldintzatuta ”



IRAKURKETA KRITIKOA

Familiak kontsumo-subjektu gisa aurkezten dira nagusiki, baina beharrezkoa da aipatzea, halaber, nola errepikatzen diren familien barruan lanak (zaintzak eta etxeko lanak), eskuliburuan azaltzen den merkatu-ekonomiari eusten diotenak. Beraz, agente ekonomiko aktiboak dira, eta ekoizpenean ere parte hartzen dute, batez ere tradizioz gutxietsiak eta kontuan hartu gabeak izan diren zaintza-lanen bidez. Teoria ekonomiko konbentzionalak lan horiek ikusezin bihurtzen jarraitzen du.

Horrez gainera, lan horiek gehienbat emakumeek egiten dituzte, eta familien baitan dauden botere-harremanak islatzen dituzte, kide bakoitzaren erabakitzeko boterea baldintzatzen dutenak. Horrekin esan nahi duguna da familia bateko pertsona guztiek ez dutela autonomia bera lehentasunak erabakitzeko, ezta diru-sarrerak kontrolatzeko ere. Emakumeek, hain zuzen ere, zeregin horiek beren gain hartzen dituztenez, denbora libre gutxiago izaten dute, eta horrek kontsumo-erabakiak eta bestelakoak baldintzatzen ditu. Horrek guztiak eragina du haien autonomian eta diru-sarrera gehigarriak sortzeko gaitasunean.

Kultura eta gizarte askotan, emakumeek ez dute erabakitzeko boteririk diruaren kontsumo- eta erabilera-kontuetan. Adibidez, Espainian, emakumeek ezin izan zuten banku-kontu bat ireki eta beren dirua askatasunez erabili 1975 arte. Amona, izeba, izeba zaharra... badituzu, galdetu ea nola egiten zuten dirua lortzeko 1975. urtea baino lehen. Ariketa egokia da familietan generoaren arabera gertatzen ziren eta gertatzen diren desberdintasun ekonomikoak ulertzeko.

Familietan ematen diren erreprodukzio-lanen baitan, Iparraldeko gizarteek bizi duten zaintza-krisiaren egungo egoera aipatu behar da. Horren ondorioz, hegoaldeko herrialdeetako emakumeek herrialde aberatsagoetara migratu dute, “zaintzaileen” lana egitera. Prozesu horri “**zaintza-kate global**” deritza, eta, horien bidez, familiek batetik besterako zaintza-lanak transferitzen dituzte, botere-ardatzetan oinarrituta, eta horien artean, generoa, etnia, gizarte-klasea eta jatorrizko lekua nabarmendu behar dira. (Pérez Orozco, A., 2006).

Beharrezkoa da ordaindu gabeko zaintza-lana berdintasunean banatzea familien barruan eta, aldi berean, ordaindu gabeko zaintza-lanaren ardura Estatuari eta sektore pribatuari helaraztea. Hain zuzen ere, zaintza-sektore horrek Euskadin emakume migratzaile asko enplegatzen ditu, eta enplegu horiek prekarizazio-baldintzetan onartzeri behartuta daude.

Bestalde, kontuan izan behar da familiak askotarikoak direla eta horrek haien beharrak baldintzatzen dituela:

- **Guraso bakarreko familiak:** seme-alaben eta/edo beste senide batzuek heldu arduradun bakarra dute.
- **Familia tradizionalak:** bikote bat (heterosexuala edo homosexuala) eta seme-alabak eta/edo beste senitarteko batzuk.
- **Berreraikitako familiak:** aurreko harreman bateko seme-alabekin eta/edo beste senide batzuekin bizi den bikotea.
- **Familia-taldea:** odolekoak ez diren lotura afektiboak dituzte.

Familia bakoitzak bere integrazioa du, eta, beraz, bakoitzaren beharrak bereziak dira. Horregatik, kontsumoa ez dute soilik lehentasunek eta diru-sarreraren mailak baldintzatzen, baita kideen behar espezifikoek ere.

Era berean, mundu mailan familiak integratzen diren gizarte-testuinguruak askotarikoak eta anitzak dira. Zure ustez, Indiako familia batek Kanadako eta Indonesiako familia batek adina kontsumitzen du?

Garrantzitsua da azpimarratzea familia batzuen kontsumo-gaitasuna hutsala edo oso txikia dela. Munduko Bankuaren arabera, 2030erako 600 milioi pertsonak egunean 2.15 dolar amerikarrekin bizi beharko dute. Adierazle horiekin, familia askok elikagai eta ekonomiaren biziraupenerako estrategiak jasateko gai izango ez diren kontsumoa dute eta izango dute, eta lehentasunak eta beste faktore batzuk bigarren mailan geratuko dira.



BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

■ Denboraren erabilerari buruzko appa:

[Sartu aplikazioan](#) eta

[Ikasgelako fitxan](#).

■ Zaintzen erantzukideta-suna:

[Zaintzen diamantearen iruditik abiatuta](#) eztabaidatu eremu erantzukide bakoitzean abian jar daitezkeen ekintzei buruz.

Zaintza-beharrak eta egungo krisia azaltzea:

https://www.youtube.com/results?search_query=economia+de+los+cuidados+ecosfron

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 05

Aukera-kostua

#aukera-kostua
#balioa eta prezioa

ZER DIO ESKULIBURUAK?

Aukera-kostua aukeratzeko orduan uko egiten diogunaren balioa da, dirutan edo beste neurriren batean neurtua.



IRAKURKETA KRITIKOA

Berriro ere, balioaren kontzeptua agertzen da, eta garrantzitsua da prezioaren eta balioaren arteko aldea argitzea eta eztabaidatzea. Prezioa ez da dirutan neurtutako balioa, nahiz eta sozialki balio handiagoa eman ohi diegun ondasun eta zerbitzu garestienei eta hobekien ordaindutako lanei. Balioaren eraikuntza faktore pertsonalen, sozialen, kulturalen eta generoaren arabera da. Adibidez, emakumeek etxean edo tradizionalki feminizatutako lanbideetan (erizaintza edo hezkuntza, esaterako) egiten duten lana ez da hain baloratua izaten, eta, horren ondorioz, gizonen lanarekin alderatuta, ez da hain ordaindua izaten. Pandemia-garaian ikusi genuen lan horiek "funtsezko lanak" zirela askotan, hain zuzen ere, merkatuan ikusezin bihurtutako eta prekarizatutako lanak. Beraz, balioa handia bada ere, prezioa edo ordainsaria ez dator bat haren balioarekin.

Beste identitate-dimentsio batzuek ere eragina dute balioan, hala nola arrazak, klaseak eta sexualitateak. Horrek esan nahi du hainbat taldek aurrez aurre jartzen dituztela balorazio-maila ezberdinak. **Adibidez, lan bera egin arren, jatorri arrazializatuko pertsonak** lanpostu berean dauden pertsona zuriek baino **% 20 edo % 30 gutxiago irabaz dezakete**, haien arrazaren edo migrazio-estatusaren pertzepzioa dela eta (Economic Policy Institute).



BALIABIDE PEDAGOGIKOAK


■ 1. iradokizuna:

Aukera-kostuari buruzko 4. jarduera egitea, erantzunak sexuaren arabera bereizita. Horren ondoren, genero-azterketa batetik aztertu behar da ea neska-mutilek edo pertsona ez-binarioek hautemandako aukera-kostua desberdina ote den, eta horri buruz eztabaidatu.

Eztabaida bat ireki daiteke, adibidez, besteren kontura lan egitearen edo seme-alabak zaintzearen arteko erabakiari buruz.

■ 2. iradokizuna:

Eskatu ikasleei asko baloratzen duten produktu batean pentsatzeko. Zer prezio izango luke? Zure ustez, zergatik ez du islatzen produktuaren prezioak haren balioa?



ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 06

Pertsonen portaera

#homo economicus
#zaintzen ekonomia

ZER DIO ESKULIBURUAK?

“El Homo economicus es la representación teórica de un ser que se comporta únicamente de manera racional frente a los estímulos económicos (...) hasta que la realidad demostró la importancia de la psicología en las decisiones económicas. En la práctica y en general, se demuestra que las personas no actuamos siempre de forma racional, sino que muchas decisiones las tomamos (...) con más corazón que cabeza”.



IRAKURKETA KRITIKOA

Ekonomiaren teoria neoklasikoak “Homo Economicus” kontzeptua du oinarri, eta ezaugarri hauek ditu: erabaki arrazionalen bidez mugitzen den gizabanakoa da, bere ongizatea ahalik eta kostu txikienarekin maximizatzea bilatzen duena.

Nahiz eta erabakien arrazionaltasuna jokabidearen ekonomiatik berrikusi den, unitatean azaltzen den bezala, Homo Economicusi esleitutako beste ezaugarri batzuk ere zalantzan jarri behar dira. Hala, norbanakoaren onura diru-balio gisa bilatzearen baieztapenak ukatu egiten du gizabanakoaren premien gainetik lehentasuna izan dezaketen behar kolektiborik dagoenik, baita pertsonak elkartasunean, lankidetzan edo justizian oinarrituta erabakiak hartzeko aukera dutenik ere.

Portaeraren ekonomiak ere ez du hausten ikuspegi indibiduala erabakietan, eta ez du agerian uzten erabaki horiek pertsonak bizi dituzten egoera desberdinek markatzen dituztela. Unitatean, Homo Economicus kontzeptuarekin jarraitzen da. Kontzeptu horrek ez ditu kontuan hartzen gizakien aniztasuna eta eragiten dieten botere-harremanak, ezta haien testuinguruak ere; aitzitik, “modelizatu” egiten da zaintza-premiarik ez duen gizon heldu batetik abiatuta, eta pribilegiozko egoera batetik jarduten du, non ez duen inolako diskriminaziorik edo askatasun faltarik jasaten bere erabakietan (arrazza, generoa, sexu-orientazioa, klasea, jatorria, adina, etab.).

Pertsonok gure egoera eta aukera ekonomiko, sozial, politiko eta kulturalen arabera jarduten dugu, eta horiek, era berean, adina, generoa, nazionalitatea eta antzeko faktoreek baldintzatzen dituzte. Batzuetan, baldintza horiek aukeratu gabeko eta pentsatu gabeko egoeretara mugatzen edo bultzatzen gaituzte.

Baldintza horiek egiturazkoak edo egoeraren arabekoak izan daitezke. Egiturazkoak sistema-mailakoak dira, adibidez, herrialde pobre edo aberats batean jaiotzea edo gizon edo emakume jaiotzea. Egoeraren arabekoak aldi baterakoak dira. Krisi ekonomikoek, adibidez, pertsonen bizi-maila jaisten dute, eta, horren ondorioz, merkatu ekonomikorako sarbide gutxiago izaten da aldi baterako.

Emakumeen kasuan, adibidez, pertsonak (adingabeak, adinekoak, gaixoak, etab.) zaindu behar ditugunaren ideian hezi gaituzte, gure erantzukizuna da, eta horrek eragin izugarria du erabakiak hartzeko orduan.

Beste adibide bat gerra edo gatazka armatuko testuinguru batean bizi diren pertsonen kasua da, pertsonak ahal duten tokira ihes egiten dute eta nora joan erabakitzeke, haien bizitza zaintzeko ideiak baldintzatzen du, ezin dute prozesu arrazional bat egin eta joateko helmuga aukeratu dezaketelako.

Amaitzeko, esan dezakegu teoria neoklasikoak defendatzen duen eredu ekonomiko kapitalista gaur egun ere baliozkotuta dagoen arren, haren oinarri teorikoak, hala nola Homo Economicusena, oso zalantzarriak direla.



BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

■ Bideoa:

[Homo Economicusetik haratago.](#)

Homo solidaricusa: Nor da homo economicusa?



ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 07

Jarduerak. 6

#sare sozialak eta beharrak
#kapitalismo digitala



ZER DIO ESKULIBURUAK?

“Zureustez, nola eragiten diete sare sozialek kontsumitzaile gisa dituzun beharrei? Sare sozialik egongo ez balitz, desberdinak izango lirateke zure beharrak?”



IRAKURKETA KRITIKOA

Sare sozialek harreman sozial guztiei eragiten diete, baita ekonomikoei eta kontsumo-arlokoiei ere. Izan ere, sare sozialak ez dira doakoak, arreta monetizatzeko, kontsumoa sustatzeko eta dinamika kapitalistak erreproduzitzeko diseinaturak daude. Negozio-eredua publizitatean dago oinarrituta. Sare sozialek aukera ematen dute produktu berriei bat-batean behatzeko, eta diskurtso bat eta errealitate bat sortzen dute, “behar” berriak (hobeto esanda, nahiak) sortuz, aurrez sekula ezagutu ez den abiaduran, eta inpaktua eraginez. Duela hamarkada batzuk telebistaz bakarrik ikus zitekeena, irratiz entzun edo kaleko karteletan ikus zitekeena, orain azkar eta modu masiboan dabil sare sozialetan. Sare sozialek kontsumismoaren eta zaborraren kultura sustatzen dute, non zaharkitze programatuak eta berriaren nahiak kontsumo ziklo jasanezin batera eramaten duten, ingurumenari zein justizia sozialari eragiten diona.

Sareak Kapitalismo Digitalaren oinarri dira, eta kontsumoa sustatzeko ez ezik, algoritmoen bidez aurreikusteko eta kontrolatzeko erabilgarriak dira. Entzun al duzu inoiz algoritmo hitza? Demagun algoritmoak funtsezko elementu bihurtu direla iraultza teknologikoaren barruan. Gaur egun, maiz entzuten da, sare sozialetako edukia norberaren profilaren arabera pertsonalizatzeko estrategia bat baita. Horrek esan nahi du algoritmo horiek eratuz doazela, erabiltzaileek plataforma digitalei ematen dizkieten informazio pertsonalean eta datuetan oinarrituta, bai eta beste informazio hauetan ere: lehentasunak, kokapena, jaiotze-data, harremanetan dauden pertsonen buruzko informazioa, posizio ideologikoa, gustu musikalak... Beraz, algoritmoek erabiltzaile bakoitzaren bilaketekin lotutako informazio gehiago sortzen dute, eta, horrela, atzeraelikadura ziklo bat sortzen da, gelditzeko zaila dena. Adibidez, hegazkin-txartel merkeen bila bazabiltza, hegaldien eskaintza eta deskontu ugari agertuko zaizkizu aplikazioetan eta sare sozialetan. Hori ez da kasualitatea, gailu teknologikoak erabilia, kontsumoa eragiteko informazioaren kontrola eta erabilera baizik.

Era berean, algoritmoak, besteak beste, generoaren eta nazionalitatearen arabera sortzen dira, eta, beraz, generoaren eta gizarte-klasearen, eta sexu-orientazioaren hainbat estereotipo erreproduzitzen dituzte, bilaketan, nabigazioaren eta erosketen aurretiko datuen arabera. Adibidez, ugaltzeko adinean dauden emakumeei haurdunaldiari edo haurrei buruzko edukia helarazten die, emakume izatea ama izatearen parekoa dela adieraziz.

Horren ondorioz, jasotzen dugun informazioa erabiltzaile bakoitzaren lehentasunen eta norberak ikusi nahi duenaren arabera iragazten da. Fenomeno horren ondorioz, balio indibidualistak areagotu egiten dira, eta pertsona bakoitzak bere ikuspegia baino ez du jasotzen. Hala, gizarte bidezkoago baterako oinarritzko balioak baliogabetzen dira, bai eta enpatia (besteen askotariko iritziak ulertzea), elkartasuna edo lankidetzaren ere.



Zuri, zer eduki-mota erakusten dizute algoritmoek? Instagram edo TikTok aplikazioetako “lupan” sartzen zaretenean, zer eduki-mota agertzen zaizue?

Jabetu behar dugu edukiak kontsumitzea beste kontsumo-ekintza bat dela, eta horrekin genero-harremanak sakontzen edo eraldatzen dituen algoritmo hori mantentzen edo eraldatzen laguntzen ari garela.

Horrez gainera, behar berriak (nahiak) sortzea, askotan, errealistak ez diren bizi- eta edertasun-estandarrek eraikitzearekin lotuta dago. Horrek ondorio negatiboak izan ditzake pertsonen autoestimuan eta ongizate emozionalean, batez ere gazteen artean, presio horien aurrean zaurgarriagoak baitira. Bereiziki larria da edertasun-estandar horiek emakume gazteen artean duten eragina, emakumeen edertasunaren estereotipoan sakonduz, emakume guztientzat lortu beharreko helburu gisa.



Ba al dakizu elikadura-jokabidearen nahasmendua jasaten duten pertsonen artean zein ehuneko diren emakumeak?

Horrez gainera, gizarte-sareek bazterketa- eta lehiakortasun-zentzua sor dezakete, eta produktu edo bizimodu jakin batzuk eskuratu ezin dituztenak baztertuta senti daitezke. Horrek desberdintasun sozialek betikotzen ditu, pertsona guztientzat eskuragarria ez den kontsumoa sustatzen baita.

Horren ondorioz, giza beharrak infinituak izan daitezkeenaren sentsazioa sortzen dute sare sozialek, eta oinarritzko beharren ideiatik aldentzen gaitu. Algoritmoak erakusten diguna kontsumitzera bultzatzen gaituzte hainbat publizitate-teknikaren bidez, influencerrak eta haien marka-babesleak barne.

Hala ere, horrek ez du sare sozialen alde positiboa baliogabetzen, erabilera arduratsua denean. Erabilgarriak izan daitezke ekonomia egiteko modu berriak zabaltzeko, sozialki eta ekologikoki konprometitutako ekintzaileak, protesta digitalak, beste hainbat funtzionalitatearen artean.

Sare sozialen balio soziala ukatu gabe, **garrantzitsua da onartzea horien atzean interes kapitalista duten multinazionalak daudela eta ez direla neutralak**, kontsumorako gainestimulazioan oso paper garrantzitsua jokatzen dutela.



BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

[“Genero-ikuspegia duen komunikazioa”](#): gaiari buruzko unitate didaktiko espezifiko.

■ Iradokizuna:

[AlgoRace](#) ekimenari buruz ikertzea. Proiektu aitzindaria da Espainiako Estatuan, eta haren helburua da AAri buruzko eztabaida publikoari arrazakeriaren aurkako ikuspegia ematea eta komunitateetara hurbiltzea.

1. BLOKEA | 02. UNITATEA

EKOIZPENA, ERRENTA ETA MERKATARITZA

Unitate honetan, ondasunak eta zerbitzuak nola ekoizten diren birpentsatuko dugu eta kontzeptu batzuk ikuspegi ez-tradizional batzuetatik berrikusiko ditugu, hala nola ikuspegi feminista eta dekolonialetik. Elkarrekin, emakumeek prozesu ekonomiko horietan duten rolari buruz hausnartzen laguntzen digute, baita zaintzan eta etxeko lanetan ezkutatutako ordaindu gabeko lanarekin duten loturari behatzen ere.

Unitatean landutako gaien bidez, ideia hauek kokatu eta hauteman daitezke:

- **Zaintza-lana balioestea**, gaur egungo ekonomiaren eta gizartearen funtzionamenduaren oinarria baita; beraz, berdintasunez banatu behar da, eta gizarteak eta ekonomiak aintzatetsi egin behar dute.
- Historikoki eman diren baina gaur egungo kapitalismoarekin eta indarrean dauden eredu ekonomikoekin indartzen diren **esplotazio- eta menderatze-harremanen aitortzea**, emakumeak, haurrak eta nerabeak muturreko pobreziako eta gizarte-bazterketako egoeretan uzten baitituzte.
- **Ekonomia Sozial eta Solidariotik ekintzak sustatzea** iparrak hegoa esplotatzen uztea, eta gizarte matxistatik emakumeen, haurren eta nerabeen esplotaziorako alternatiba eta erresistentzia gisa, eta aberastasuna genero, gizarte eta arraza desberdintasunen arabera banatu beharrean, berdintasuna sustatzen duten praktika ekonomikoak sortzea.
- **Merkatua eta merkataritza eraldatzea** bidezkoagoa eta solidarioagoa izan dadin gizonen eta emakumeen artean, etnien artean, belaunaldien artean, etab.

LOMLOEren oinarrizko jakintzak	_ Ingurune ekonomiko-enpresariala. Agente ekonomikoak eta errentaren fluxu zirkularra. Merkatuen funtzionamendua. Merkatua eta negozio-aukerak: ingurune orokorraren edo makroingurunearen azterketa; ingurune espezifikoaren edo mikroingurunearen azterketa. Finantza-sistema. Enpresa eta haren erantzukizun soziala. Enpresa-erabakia eta berrikuntza, gizartea eraldatzeko iturri gisa. _ Ingurunea esploratzeko estrategiak. Informazioa bilatzea eta kudeatzea. Lehiakideak aztertzeako metodoak.
Eskuliburuko epigrafeak	_ Ekoizpen-aukeren muga. _ Teknologia. _ Merkatuak. _ Errentaren fluxu zirkularra. _ Merkataritza eta desberdintasunak. _ Mikroekonomia eta makroekonomia. _ Ekonomia positiboa eta araudia.
Irakurketa kritikoarekin garatu beharreko trebetasunak	_ Lanaren kategoriaren problematizazioa ekoizpen-erlazioen esparruan. _ Ekoizpen-harremanei, merkatuari eta horien ondorioei buruzko hausnarketa. _ Zaintzaren garrantzira eta genero-desberdintasunagatik ordaindu gabeko-lan izaerara hurbiltzea. _ Esplotazioa ekonomia tradizional kapitalistaren erdigune gisa ulertzea eta beste jarrera ekonomiko batzuetatik zalantzan jartzea. _ Lanaren sexu-, gizarte- eta arraza-banaketa aztertzea, desberdintasun patriarkaletan eta kolonialetan oinarrituta. _ Zaintza eta zaintza-kate globalak, lanaren sexu- eta arraza-banaketan eragiten duten desberdintasunen adierazpen gisa.

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 01

Ekoizpena eta aukerak

#ekoizpena

#zaintzen ekonomia

#erauzketa

#ingurumenaren jasangarritasuna



ZER DIO ESKULIBURUAK?

“Ekoizpena jarduera ekonomiko ororen erdigunean dago, beharrezkoa baita kontsumoa egoteko eta, aldi berean, kontsumo handiagoak ekoizpen handiagoa izateko, eta alderantziz. Dena dela, ekoizten denaren kantitatea eta kalitatea enpresek eskura dituzten bitartekoek edo baliabideek baldintzatzen dute”.



IRAKURKETA KRITIKOA


Ekoizpena ondasunak eta zerbitzuak saltzeko sortzen diren prozesua baino askoz gehiago da. Kontzeptu horrek merkatuan sal daitekeenera mugatzen du ekoizpena. Produktibotzat jo behar dira pertsonen ongizatea ziurtatzen duten jarduerak, eta horren barruan sartzen dira seme-alaben zaintza, etxea mantentzea, adinekoei arreta ematea eta etxeko eta zaintzako beste lan batzuk.

Ikuspegi horrek laguntzen du ulertzen gizarte baten aberastasuna ez dela neurtzen saltzen denagatik bakarrik, baizik eta gizarteak modu justu eta jasangarrian funtziona dezan behar den guztiarengatik.

Prozesu horretan pertsonak sartzen dira: langileak, kontsumitzaileak, ekintzaileak, aktibistak, etab. Hori dela eta, **ekoizpenaren erdigunean pertsonak egon behar dira, Ekonomia Sozial eta Solidarioak, Ekonomia Feministak eta Zaintzen Ekonomiak planteatzen duten bezala**. Pertsonengan pentsatzeak esan nahi du guztiok bizitza duina izateko oinarrizko ondasun eta zerbitzuetara iristeko aukera emango duten ekoizpen-moduak sortzea.

Zalantzazkoa da, halaber, baieztapen horretatik ateratzen den ekoizpenaren (materialaren) etengabeko hazkundea, desiragarria eta bilatua den zerbait den aldetik.

Puntu honetan, esan beharra dago ekoizpena naturatik baliabideak ateratzearen mende dagoela batez ere (lehengaiak, energia eta ura, adibidez), eta horrek ingurumen-degradazioa dakar, muga eta ziklo ekologikoak kontuan hartzen ez badira (Naredo). Baliabide horiek gutxietsi egiten dira azterketa ekonomikoan, eta enpresen jarduera nagusitik kanpo geratzen dira. Komunitate ugari ari dira beren lurraldeak espoliaziotik eta baliabideen erauzketatik babesteko borrokan. Borroka horietan, lurraldeetako emakume defendatzaileen zeregina azpimarragarria eta gehiengoa da.



ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 02

Ekoizpena eta aukerak

#lana versus enplegua,
#lan-baldintzak

#zaintzen ekonomia

ZER DIO ESKULIBURUAK?

“Lana. Ekoizpen-prozesuan esku hartzen duen ordaindutako giza jarduera fisiko edo intelektual oro da”.



IRAKURKETA KRITIKOA

Lanaren bidez, pertsonak beren indarra eta/edo ezagutza erabiltzen dute ondasun edo zerbitzu bat ekoizteko. Lan hori ordaindua izan daiteke edo ez. Ordaindutako lanari enplegua deitzen zaio, eta ordaintzen ez denari, ordaindu gabeko lana. Azken hori, hein handi batean, emakumeek egiten dute etxeetan eta **zaintza-lana** izenez ezagutzen da: pertsonen ongizatea bermatzen duten jarduerak dira, hala nola haurrak, adinekoak eta gaixoak zaintzea, eta etxeko lanak egitea (garbiketa, janaria prestatzea, etab.). Lan-mota hori, gizarteak funtziona dezan funtsezkoa bada ere, **ez da ordaintzen** eta askotan **ez da aitortzen**. Bereizketa hori Ekonomia Feministaren ekarpena da.

Ekonomia tradizionalan, ordaindutako lana bakarrik da “lana”. Ordaindu gabeko zaintza-lana, funtsezkoa izan arren, ez da BPGan (Barne Produktu Gordina) kontabilizatzen eta ez da enpleguaren zati gisa aitortzen. Adibidez, Euskadin, zaintza-lanetarako norbait kontratatuko balitz, etxeko eta familiako lana BPGaren % 30 izango litzateke (EUSTAT 2018).

Horrez gainera, ordaindutako enpleguak askotan ez ditu kontuan hartzen pertsonen **zaintza-beharrik**. Horrek arazo garrantzitsu bat sortzen du: lana eta bizitza pertsonala **uztartzeko zailtasuna**.

Egoera horrek bereziki eragiten die emakumeei; izan ere, genero-rol tradizionalen arabera, emakumeak dira zaintza-lanaren arduradun nagusiak etxe askotan. Beste ondorio batzuen artean, hitz egin daiteke karga mentala eta fisikoa handitzeaz eta partzialtasunaren edo lan-merkatura gutxiago sartzearen ondoriozko soldata arrakalaz. Horrek estres-egoerak eta emakumeentzat garapen pertsonal eta profesional txikiagoa eragiten ditu.

Horren aurrean, enpresen kontziliazio-politika hobetzeaz gain, zaintza-lana gizonen artean gehiago birbanatzeko eskatzen ari dira, baita sektore publikoaren eta komunitatearen parte-hartzearekin ere.

Ekonomia kapitalistan, enpresen azken helburua mozkinak maximizatzea da, eta horrek kostuak murriztea dakar, besteak beste, giza baliabideak. Beraz, enpresek



Entzun al duzu lan-baldintza ankerren ideia?

Lan-esplotazioa muturreko egoeretara iristen denean gertatzen dira halakoak, non langileek ez dituzten beren lana baldintza onargarrietan egiteko behar diren gutxienekoak, hala baliabide materialak nola osasun-arlokoak. Lan-esplotazioa generoaren, adinaren, nazionalitatearen eta arrazaren arabera ere bereizten da. Hori ekonomia marxistaren ekarpena da, eta horren egile nagusia Karl Marx da.



Ba al dakizu zer baldintzatan fabrikatzen den Euskadin erosten dugun arropa? Ba al dakizu zer den Rana Plazako hondamendia?

Hala ere, lan-harremanen barruan dagoen esplotazio-modu hori aldatzeko, Ekonomia Sozial eta Solidarioa (ESS) sortu zen, harreman horiek ulertzeko beste modu bat proposatzen duena. ESSren arabera enpresaren helburua pertsonen eta planetaren bizi-kalitatea hobetzea da, bizitzaren jasangarritasuna erdigunean jarritz. ESSren ideiak kontuan hartuta, enpresaren errentagarritasun ekonomikoa da helburu hori lortzeko bidea, eta ez alderantziz. Hala, ESStik bideratutako ekintzailtza kolektiboek, adibidez, inpaktu positiboa sortu nahi dute, bai gizartean, bai ingurumenean. Horretarako, printzipioen gutun bat betez, hainbat neurri proposatzen dituzte, besteak beste, zereginak, soldata edo irabaziak berdintasunez banatzea, edo kideen gainean eragin dezaketen gizarte-oztopoak kontuan hartzea eta horiek errazteko ekarpenak egitea.

Amaitzeko, lana enplegua baino gehiago dela esan dezakegu, ordaindutako eta ordaindu gabeko enplegua barne hartzen baititu. Lana kategoria zabalekoa da, eta egungo sistema kapitalistan esplotazio-, prekarizazio- eta segurtasun-ezaren konnotazioak hartzen ditu, baina badaude proposamen alternatiboak ere, hala nola Ekonomia Feminista edo Ekonomia Soziala eta Solidarioa, pertsonen arteko eta naturarekiko harreman parekideak defendatzen dituztenak.





BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

■ Zaintzen garrantzia:

Eskatu ikasleei beren familia- edo gizarte-esperientziak aztertzeko, eta hausnartzeko nola banatzen diren zaintza-lanak eta lan ordaindua beren etxeetan. Nork zaintzen ditu haurrak edo adinekoak? Nola eragiten dio horrek pertsonen lan-bizitzari?

Horrela, haien inguruan gertatzen dena Ekonomia feministak adierazten dituen desberdintasunekin lotu ahal izango dute.

■ Zaintzen erantzukideta-suna: [Zaintzen diamantearen irudia](#), [Bizitzaren jasangarritasun ezaren piramidearen infografia](#), Cristina Carrascon oinarritua.

■ Esplotazio-erlazioak ekoizpen-katean:

[Arropa Garbia](#), Kanpaina, enpresa handien ehungintzaren baldintzetan sakontzeko.



ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 03

Ekoizpen-aukeren muga

#ekoizpena
#erroskila ekonomia

ZER DIO ESKULIBURUAK?

Ekoizpen-aukeren mugak adierazten du zer ondasun eta zerbitzu ekoizteko gai den gizarte bat denbora-tarte jakin batean, eskura dauden eta teknologia jakin bat duten ekoizpen-baliabideetatik abiatuta.



IRAKURKETA KRITIKOA

Ondasun edo zerbitzu jakin baten ekoizpenaren eraginkortasun ekonomikoa aztertzeke eskuliburuak ematen duen azalpen grafikoaren aurrean, zer ekoizten dugun, norentzat egiten dugun eta zer baldintzatan egiten dugun planteatu behar dugu aurrez.

Erroskila Ekonomiaren kontzeptua hemen sar daiteke, gizartearentzat zein ondasun eta zerbitzu diren positiboak eta beharrezkoak eztabaidatzeko eta baliabide ez-berriztagarrien jasangarritasuna kontuan hartuta ekoizpenean erabilitako baliabideen erabilera egokiari eta jasangarriari buruz hausnartzeko.



BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

■ Fitxa:

[Kate Rothword](#)

fitxa ekonomia birplanteatzen duten emakumeei buruzkoa.

Kate Raworth

Reino Unido 1970

Mujeres que replantean la economía
Ekonomia birplanteatzen duten emakumeak

Economista e investigadora británica.

Ha diseñado la teoría económica “La economía rosquilla”

“La economía de hoy es divisiva y degenerativa por defecto. La economía del mañana debe ser distributiva y regenerativa por diseño”

“La economía rosquilla”

La prosperidad humana depende de la prosperidad planetaria, por lo que ha ideado un modelo en el que se pueden cubrir las necesidades humanas básicas sin sobrepasar los límites ecológicos del Planeta a través de una economía distributiva no solo de la renta sino también de la riqueza, el tiempo y el poder.

¿Crees que es el momento de respetar los límites ecológicos del Planeta sin descuidar las necesidades humanas básicas? ¿Piensas que sería necesario cambiar el modelo económico actual y llevar a cabo ciertas acciones como dejar de lado las energías fósiles o simplificar el sistema financiero?

La economista Kate Raworth ha ideado un modelo económico siguiendo estas bases necesarias para conseguir el cambio.



ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 04

Errentaren fluxu zirkularra

#errentaren fluxu zirkularra #sistema ekonomikoa, soziala eta naturala #zaintzen ekonomia

ZER DIO ESKULIBURUAK?

... errenta zirkularra da: kontsumitzaileek enpresariei ondasunak eta zerbitzuak erosteagatik ematen dieten dirua itzuli egiten da kontsumitzaileek enpresetan egiten duten lanagatik dagokien soldata kobratzen dutenean...

IRAKURKETA KRITIKOA

Errentaren fluxu zirkularrak modu sinplifikatuan erakusten digu nola funtzionatzen duen merkatu-ekonomia batek, agente ekonomikoen artean sortzen diren truke fisikoen (merkantzien trukeak) eta moneta-trukeen (diruaren trukeak) bidez. Funtsean, familien (lana hornitu eta ondasunak kontsumitzen dituztenak) eta enpresen (lana kontratatu eta ondasunak ekoizten dituztenak) arteko harremana adierazten du. Hala



ere, eredu hori merkatuko jardueretan soilik oinarritzen da, eta kanpoan uzten du ordaindu gabeko lana, hala nola etxeko lanak eta zaintza-lanak, ezinbestekoa baita lan-indarraren erreprodukzioarako. Halaber, ikusezin bihurtzen du lan hori ez dela berdin banatzen etxeetan, eta gehienbat emakumeek hartzen dutela bere gain lan hori.

Horrez gainera, sistema ekonomikoa ez da sistema isolatu bat: sistema sozial batean txertatuta dago, eta sistema hori, aldi berean, sistema natural batean dago txertatuta, eta sistema horrek hainbat baldintzatzaile eta muga ditu. Kontuan hartu behar dugu ekonomiaz ari garenean. Errentaren fluxu zirkularraren teoriak kanpoko faktoreek baldintzatu gabeko sistema itxia du; beraz, teoria alboratua eta osatugabea dela uste dugu.



BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

■ Mikroweb-aren aurkezpena :
[Errentaren fluxu zirkularra, nor falta da?](#)

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 05

Merkataritza eta ongizatea

#ongizatea
#garapena

ZER DIO ESKULIBURUAK?



IRAKURKETA KRITIKOA

Oro har, ongizatearen ikuspegi erredukzionista bat dago, bizi-baldintza materialei lotua. Baina **ongizatea baldintza materialaren, psikologikoaren eta sozialaren arteko oreka da**. Komunitateek eta gizarteek ongizatea izan dezaten, ez da nahikoa dirua eta objektu materialak izatea. Era berean, ezinbestekoa da osasuna eta hezkuntza eskura izatea, politikan parte hartu ahal izatea, edo aisialdirako eta jolaserako guneak izatea.

Une honetan, Ekonomia Feministak berezkoa duen garapenaren kontzeptuari buruzko eztabaida ekartzea komeni da: Zer da bizimodu on bat?; unibertsala izan al daiteke?; nola eusten zaio bizitza honi?; bateragarria al da sistema ekonomikoa sistema sozial eta naturalarekin?



ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 06

Merkataritza eta ongizatea

#lanaren banaketa
#zaintza-kate globalak

#zaintzen ekonomia



ZER DIO ESKULIBURUAK?

“Lanaren banaketa da ekoizpen-jarduera bat oinarritzekoagoak diren zereginetan zatitzea pertsonen artean, haien errendimendua hobetzeko gaitasunen arabera. Lan-banaketak langileen espezializazioa ekarri du, eta, aldi berean, espezializazioak produktibitatea handitzea ahalbidetu du, eta horrek soldata altuagoak ekarri ditu, eta, azken batean, aberastasuna eta ongizatea sortu ditu”.



IRAKURKETA KRITIKOA

Azalpen hori osatzeko, **sexuaren arabeko lan-banaketa** azaldu behar da, genero-desberdintasunaren oinarri gisa. Sexuaren arabeko lan-banaketa ezaugarri biologikoetan oinarritutako rolen esleipenean oinarritzen da, eta sozialki genero bat esleitzen zaio, femeninoa edo maskulinoa. Pertsonak, genero-sozializazioaren bidez, rol jakin bat hartzen du gizartean, bere sexuan oinarrituta. Zereginen eta funtzioen esleipen desberdinak balorazio sozial, ekonomiko eta sinboliko desberdina ere badakar.

Hala, emakumeei zaintza-rolak eta bestelakoak esleitzen zaizkie, eta lan-mota horrek lan-bizitzan parte hartzea baldintzatzen dute. Ikusi dugu zaintza-lan asko ez direla ordaintzen. Lan ordainduaz edo enpleguaz ari garenean, sektore feminizatuenek ordainsari eskasagoak izan ohi dituzte, eta onarpen sozial txikiagoa.

Emakumeei ordaintzen ez den lanaren %75 egiten dute mundu mailan, eta gizonek baino hiru aldiz ordu gehiago ematen dituzte lan horretan (NBE, Emakumeak, 2020).

NLEren datuen arabera, 2022an, emakumeei lan-merkatuan zuten parte-hartze tasa orokorra %46,9koa zen; gizonena, berriz, %72,5koa. Genero-arrakala horrek emakumeei hainbat oztoporen ondorioz ordaindutako lana lortzeko dituzten zailtasunak islatzen ditu; esaterako, zaintza-zerbitzurik eza, lan-diskriminazioa eta familia-erantzukizunak.

Arrazaren eta lurraldearen arabeko lan-banaketa ere badago. Oso arraroa izaten da aintzatespen- eta botere-postuetan afrikarrak, latinoamerikarrak, asiarrak eta ijitoak ikustea. Hala ere, lan behartuari edo lan prekarioari erreparatuz gero, nazionalitate horietako pertsonak dira kaltetuenak.

Une honetan, **zaintzaren kate globalei** buruz hitz egin behar dugu. Kontzeptu horrek pertsona migratzaileak inplikatzeko ditu, batez ere emakumeak, eta **posizio sozial, ekonomiko, etniko eta sozial desberdina duten etxeetako edo pertsonen arteko zaintza-transferentzien** prozesuekin lotzen da.

Adibidez, Erdialdeko Amerikako emakume migratzaile baten kasua aztertuko dugu. Emakume hori bere migrazioaren helmugako —demagun Espainia dela— beste familia baten zaintzaz eta etxeko lanez arduratzen da. Orduan, emakume horrek ordainketa baten truke bere gain hartzen ditu erreprodukzio-lanak, beste familia batek aurrera egin dezan. Era berean, jaioterrian (Erdialdeko Amerikan), ia beti emakumea den norbaitek hartuko ditu bere gain emakume migratzaileak jada bete ezin dituen zaintza eta etxeko lanak, munduko beste leku batean bizitzen egoteagatik.

EAEko emakume migratzaileen enplegua jarduera-sektore bakar batean biltzen da, zerbitzuetan (% 96,5), batez ere etxeko lanetan edo zaintza-lanetan. Hain zuzen ere, emakume etorkinek lan egiten duten lan-nitxo horiek arautu eta formalizatu gabe egon ohi dira, eta horrek, kasu askotan, esplotazio eta gizarte-bazterketako egoeretan uzten ditu.

Hala, ikusten dugu lanaren egitura globala, gizarte-posizio bereiziak sortzen dituenak, **generoaren, gizarte-klasearen, arrazaren eta nazionalitatearen arabera** ordenatzen dela, besteak beste.



BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

■ Lanaren banaketa

Galdetegi honek agerian utzi nahi du ordaindu gabeko zaintzen eta etxeko lanen garrantzia eta horrek genero-berdintasunean dituen ondorioak.

<https://quiz.ecosfron.org/>

■ Zaintza-lana

Ipuin honetan maitasunaren mitoaren bertsio bat planteatzen da, etxeko lana egiteko justifikazio gisa, eta aniztasun sexualari buruz hitz egiten da eguneratzeko..

[Ekonomiari buruzko ipuinak: maitasuna](#)

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 07

Interdependentzia eta koordinazioa

#zaintzen ekonomia

ZER DIO ESKULIBURUAK?

Hauek dira ondasun eta zerbitzuen trukea errazten eta koordinatzen duten tresnak: dirua, merkatuak eta enpresak.

IRAKURKETA KRITIKOA

Denboraren Erabilerari buruzko Inkestek agerian uzten dute merkatuak eta familiek proportzio berdintsuan ematen dituztela gizartearen beharrei erantzuteko beharrezkoak diren ondasunak eta zerbitzuak. Inkestetan, familiaren etxeko lana sailkatzeko, etxekoandrea edo «bere zereginak» jarri izan da, eta, oraindik ere, Biztanleria Aktiboaren gaineko Inkestan, lan hori egun osoz egiten duten pertsonak «ez-aktibotzat» hartzen jarraitzen dute.

BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

■ Bideoa eta fitxategia:

Dinamia Kooperatibak egindako **film labur ez-aktiboa** ikustea, [ikasgelarako fitxa](#).



ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 08

Desberdintasunak

#desberdintasunak #birbanaketa #BPG #garapena

ZER DIO ESKULIBURUAK?

“Ez ditugu nahastu behar desberdintasuna eta pobrezia. Adibidez, oso ezberdina den gizarte bat oso aberatsa izan daiteke, esaterako, hegoafrikarra”.

IRAKURKETA KRITIKOA

Pobrezia eta aberastasuna, oro har, termino ekonomikoetan ulertzen dira, eta norberak duen kapital-kantitatearekin lotzen dira. Dena dela, pertsona guztiek eta herrialde guztiek ez dituzte aberastasunera iristeko aukera berdinak.

BPG herrialdeen aberastasuna neurtzeko erabiltzen den adierazle nagusia da. Hala ere, neurtzeko erabiltzen diren irizpideei egindako beste kritika batzuez gain, ez ditu kontuan hartzen herrialde horretako biztanleen arteko baliabide-banaketa desorekatua. Badaude zenbait alternatiba —esaterako, Genero Desberdintasunaren Indizea (GDI)—, genero-desberdintasunak giza garapenean eta emakumeen ongizatean nola eragiten duen erakusten dutena. Herrialde bateko desberdintasunak neurtzea ahalbidetzen duen beste aukera bat Desberdintasunagatiko Giza Garapen Doituaren Indizea (DGGI) da. Adierazle horren bidez, desberdintasunek hainbat herrialdetako garapenari nola eragin diezaioketen islatzen da.

Une honetan, Ekonomia Feministak berezkoa duen garapenaren kontzeptuari buruzko eztabaida ekartzea komeni da: Zer da bizimodu on bat?; unibertsala izan al daiteke?; nola eusten zaio bizitza honi?; bateragarria al da sistema ekonomikoa sistema sozial eta naturalarekin?

Eztabaida honen zati gisa, pobreziatzat edo aberastasuntzat jotzen dugunari buruz eztabaida dezakegu, ekonomia kapitalistak planteatzen diguna baino begirada zabalagoarekin. Horrela ulertuta, aberastasunak kapital finantzarioa ez ezik, kapital soziala, kulturala eta giza kapitala ere hartzen ditu. Eta ez da diru-sarreraren arabera bakarrik neurtzen, baizik eta bizitza duina bizitzeko, osasun-, hezkuntza- eta enplegu-zerbitzuak bidezko baldintzetan izateko eta pertsona gisa dugun ahalmen guztia garatzeko gaitasunaren arabera.

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 09

Desberdintasunak

#desberdintasunak

ZER DIO ESKULIBURUAK?

- Desberdintasunetan eragina duten kausak:
- Globalizazioa.
 - Hondamendi naturalak eta gerrak.
 - Ustelkeria.
 - Aberastasunaren birbanaketarik eza.
 - Lege bidegabeak.
 - Oinarrizko eskubiderik eza.
 - Oinarrizko zerbitzuetarako sarbiderikeza: hezkuntza, osasuna eta justizia.
 - Genero-desberdintasuna

IRAKURKETA KRITIKOA

Beste faktore batzuk:

- Arrazakeria
- Nazionalismoak
- Helduzentrismoa
- Edadismoa
- Ingurumenarekiko arduragabekeria soziala

Garrantzitsua da gizarte-desberdintasunak eragiten dituzten eta egungo egoerarekin lotuta dauden beste egitura-faktore batzuk ikustea. Arrazakeriak estratifikazio sozial bat sortzen du, eta goi- eta behe-mailako arrazak daude. Mugak ixten dituzten nazionalismoek etorkinak kriminalizatzen dituzte eta mundua garatuen eta garatu gabekoen artean banatzen dute. Helduzentrismoa: haurren eta nerabeen iritzia eta autonomia progresiboa ukatzen du; horrez gainera, despolitizatutako pertsona gisa tratatzen ditu. Edadismoa: pertsonak gauza izango balira bezala tratatzen ditu eta adin jakin batzuetan baztertu, ez direlako pertsona hiper produktiboak.

Jatorri historikoari dagokionez, faktore horiek desberdinak badira ere, gaur egun ukaezina da haien presentzia harremanetan eta desberdintasunetan, eta eguneroko edozein praktikan eragiten jarraitzen dute.

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 10

Desberdintasunak

#birbanaketa #herrialdeen arteko desberdintasuna #ekoizpenaren deslokalizazioa #zerga-politika #genero-aurrekontuak

ZER DIO ESKULIBURUAK?

Herrialde pobreetan zailagoa da globalizazioaren onurak gizarte osora iristea, errenta birbanatzeko mekanismoen eraginkortasun faltagatik.



IRAKURKETA KRITIKOA

Herrialde batzuetan, estatuak politika ekonomiko eta sozialekin esku hartzen du, ekoizpen sistema eta eredu kapitalistak sortutako desberdintasunak konpentsatzeko asmoz. Horretarako, ondorio desberdinak geldiarazteko joera duten neurriak eta ekintzak ezartzen dituzte. Dirulaguntzak, subsidioak, osasun publikoa eta ikasketa-bekak dira, besteak beste, birbanaketa-jardueren adibide batzuk. Jarduera horiek kontsumo-sistema global honetan ahulenak diren pertsonak parekatzea eta babestea dute helburu. Horretarako, Estatuak egiten duena da zergak kobratuz biltzen duenaren zati bat desberdintasun-egoeran dauden taldeen gizarte-babesa helburu duten aurrekontuetara bideratu.

Eskuliburutik ateratako baieztapenak herrialde batzuetako —herrialde pobreak— administrazio publikoei bakarrik egozten die banaketa-mekanismo eraginkorrik ez izatearen erantzukizuna. Hala ere, azpimarratu behar da Hegoaldeko herrialdeek praktika ekonomiko desabantailatsu ugari dituztela, estatuen eta enpresen arteko botere-harremanek gobernatzen duten sistema globalizatu honetan. Adibidez, Munduko Bankuak herrialde horiei emandako maileguek birbanaketa-politika sozialak martxan jartzea eragozten duten baldintzak ezartzen dizkiete. Nazioarteko ekoizpenaren deslokalizazioa, atzerriko enpresentzat onuragarriak eta ekoizpen-herrialdeentzat desabantailatsuak diren baldintzetan, diru-bilketa ahula izatearen arrazoia da, eta horrek, aldi berean, birbanaketa zailtzen du. Muga-zergen merkataritza-politikak ere ez die mesederik egiten herrialde horiei, eta, hala, nazioartean hartzen diren erabaki askok herrialde horien pobretzea eragiten dute. Hala ere, herrialde horiek baliabide ugari dituzte, hau da, aberastasuna, eta, beraz, ez da zuzena herrialde pobre deitzea.

Birbanaketa-politikekin zuzendubeharrekodesberdintasunen artean genero-desberdintasuna dago. Gero eta erakunde publiko gehiagok egiten dituzte **generoarekiko sentikorrak diren aurrekontuak**, genero-desberdintasunak konpentsatzeko eta konpontzeko.

Baliabide publikoen inbertsioa genero-ikuspegitik definitzeaz gain, garrantzitsua da zergak biltzeko moduari erreparatzea, jatorrian desberdintasunik ez sortzeko. “Fiskalitatea Espainian genero-ikuspegitik” (Rodríguez Peña, N.L., 2022) txostenak, adibidez, lehen premiako ondasun eta zerbitzuen definizioan joera androzentrikoak nabarmentzen ditu, horietan BEZaren karga murriztuak aplikatzen baitira. Adibide paradigmaticoa “tanpoiaren tasa” deritzona da: hilerokoarekin lotutako produktuek %10eko BEZa jasaten dute, oinarritzotzat jotzen diren produktuen %4aren orde.



ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 11

Periskopia, 3

#soldata-arrakala
#soldata-arrakala

#zaintzen ekonomia

ZER DIO ESKULIBURUAK?

Soldata-arrakala lotuta dago genero-desberdintasunarekin, eta Interneten gai hauek aztertu dira: Zer da soldata-arrakala? Zer bilakaera izan du soldata-arrakalak azken urteetan? Proposatu, eztabaidatu eta adostu ikasgelan soldata-arrakala murrizteko neurriak.



IRAKURKETA KRITIKOA

Generoen arteko soldata-arrakala generoen arteko desberdintasunaren adierazlerik argienetako bat da, mundu mailan gertatzen dena eta sistema kapitalistan dauden beste arrakala batzuekin lotzen dena, hala nola klase sozialarekin edo arrazarekin. Generoaren soldata-arrakala hainbat desberdintasun-faktoreen isla da: emakumeak lantokian diskriminatzea, zaintza-ardurak izatea edo askotan aitortza edo ordainsari gutxiagoko lanak betetzea.

Horrez gainera, soldata-arrakalak emakumeen hileko diru-sarrereri eragiteaz gain, epe luzerako eragina du pentsioen eta haien segurtasun ekonomikoaren alderdietan, besteak beste. Desberdintasun horri aurre egiteko, aukera-berdintasuna eta emakumeen eta gizonen lanaren bidezko balorazioa sustatu behar dira.

Garrantzitsua da genero-arrakala digitala aipatzea. Teknologien sektorean ere, gaur egun hedapen handia duen sektorean, soldata-arrakala ugaltu egiten da, eta emakumeak gutxi ordezkaturik daude sektore horretako langileen artean. Beharrezkoa da sektore digitalean ordezkartzea bera sustatzea, ez bakarrik soldata-arrakala digitala arintzeko, baizik eta edukiak eta ikuspegiak sartzeko, baita ikerketak egiteko ere, emakumeen interesetan eta eskaeretan zentratuta; bestela, merkatu-nitxo gisa duten potentzialari buruz baino ez da hitz egingo.

Generoaren araberako soldata-arrakalaz gain, badira beste soldata-arrakala batzuk ere, biztanleriaren sektore jakin batekiko diskriminazioak eragindakoak, baina gutxiago aztertu dira, eta ez daude hainbeste datu. Eurostaten ikerketa batek (2020) erakusten duenez, Europar Batasunean EBtik kanpoko pertsona migratzaileek, batez beste, bertako langileek baino %13 gutxiago irabazten dute. Euskadin, arrakala are handiagoa da; izan ere, migratzaileak kualifikazio txikiko lanetan egon ohi dira gainordezkaturik, eta soldata txikiagoak jasotzen dituzte, nahiz eta hobeto ordaindutako lanetarako kualifikaturik egon.



BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

■ Generoaren araberako soldata-arrakala digitala:

<https://ecosfron.org/arto8-dossier-51-2/>

■ Genero-arrakala pentsioetan:

<https://ecosfron.org/dramatica-desigualdad-de-genero-cuando-hablamos-de-pensiones/>



1. BLOKEA | 03. UNITATEA

FINANTZA -
PLANGINTZA

Unitate honetan, egungo finantza-hezkuntzari buruzko ikuspegi kritikoa planteatu behar dugu; ulertuta, finantzak ezin direla modu isolatuan sortu, sistema ekonomikoan duten zeregina eta sistema horretan dituzten ondorioak ulertu gabe.

Sistema ekonomikoaren ikuspegi hegemonikoa zalantzan jarri nahi dugu, izan ere, finantzek neurriz kanpoko rola dute eta gure diru-sarrerak eta gastuak modu pribatu eta indibidualean kudeatu eta ziurtatzeko tresna gisa aurkezten dira, finantza-erabakiek ongizate kolektiboan duten eragina erabat ikusezin bihurtuz.

Diskriminazio-egoeran dauden emakumeei eta kolektiboari neurriz kanpo eragiten dien eta, aldi berean, oinarritzko beste eskubide batzuk eskuratzeko aukera murrizten duen finantza-bazterkeria landu behar dugu. Beharrezkoa da finantza-hezkuntza kritikoa izatea eta finantza-produktuak eta -baliabideak erabiltzea, baliabideen birbanaketa sustatzeko eta, hartara, ekitate handiagoa lortzeko. Era berean, beharrezkoa da ekitatezko ingurune sozioekonomikoak indartzeko lan egitea, sarbide hori bermatzeko.

OHARRA:

Puntu honetan, 4. unitatea lantzea gomendatzen dugu, 3. unitateko finantza-plangintzari ekin aurretik.

LOMLOEren oinarritzko jakintzak	Finantza pertsonalak eta proiektu ekintzailearenak: diruaren kontrola eta kudeaketa. Diru-sarreraren eta gastuen iturriak eta kontrola. Epe laburreko eta luzeko finantza-baliabideak eta finantza-ongizatearekin duten lotura. Zorpetzea. Finantzaketa-iturriak eta finantza-baliabideak erakartzea. Finantza-arriskuaren kudeaketa eta aseguruak.
Eskuliburuko epigrafeak	_ Diruaren ezaugarriak. _ Banku-kontuak. _ Banku-txartelak. _ Aurrekontua. _ Erretiroa. _ Pentsio-planak.
Irakurketa kritikoarekin garatu beharreko trebetasunak	_ Gizarte kapitalistan diruak duen gehiegizko zenbatespenari buruz hausnartzea. _ Generoaren eta nazionalitatearen arabera finantza-inklusioari eta -bazterketari buruz hausnartzea. _ Dirua eskuratzeari eta diruaren kudeaketa arduratsuari buruz hausnartzea, oinarritzko beharrak asetzeko. _ Erretiroa eta pentsioa lan eta ekonomia formalak eskuratu ahal izan dituzten pertsonen eskubide gisa ezagutzea.

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 01

Diruaren exaugarriak

#bizitzaren zikloa
#zaintzen ekonomia

#seme-alaba bat izan osteko solda-
ta-arrakala

#oinarrizko errenta
#pentsioak

ZER DIO ESKULIBURUAK?

“Gure bizitzan zehar hainbat etapa igarotzen ditugu, eta etapa bakoitzean diru-premia eta -lehentasun desberdinak izango ditugu” (...) Helduaroa: lan-egonkortasuna bilatzea, etxebizitza erostea, familia edo bikotea osatzea”



IRAKURKETA KRITIKOA

Mundu mailan, esan ohi da bizitza oinarritzko 4 etapatan dagoela banatuta: haurtzarora, nerabezarora eta gaztarora, helduaroa eta hirugarren adina. Hala ere, pertsona bakoitza nola bizi den eta zer behar dituzten aldatu egiten dira generoaren, kulturen, gizarte-klasearen eta klimaren arabera.

Funtsezkoa da gizonek eta emakumeek premiei buruz dugun pertzepzio desberdina ulertzea, genero-sozializazioaren prozesuaren emaitza baita.

Esate baterako, seme-alabak edo mendetasuna duten pertsonak zaintzeko eszedentziak edo lanaldi-murrizketak, batez ere, emakumeek hartzen dituzte, eta horrek erakusten du genero-desberdintasuna dagoela, beharrak desberdinak direla, eta behar horien genero-rol nagusiek moldatzen dituztela. Adingabeak eta senideak zaintzeko lanaldi-murrizketak eta eszedentziak emakumeek hartzeak eragina du etorkizuneko pentsioan eta lan-bizitzaren jarraipenean. Azterlan batzuek frogatu dute seme-alaba bat izan osteko generoaren araberako soldata-arrakala dagoela, eta ondorioztatu dute emakumeen diru-sarrerak murriztu egiten direla ama bihurtu ondoren, askotan karrera profesionala etetearen eta zaintza-erantzukizunak pilatzearen ondorioz.

Bestalde, badira pribilegio gehiago edo gutxiago dituzten haurtzaroak, nerabezaroak eta gaztetasunak. Europako herrialde gehietan, haurrek eta nerabeek jolasteko, zaintzeko, hezteko, osasuna izateko, afektua izateko eta segurtasuna izateko aukera izaten dute. Beste leku batzuetan, berriz, haur eta nerabe batzuk kalean egoten dira, bakarrik migratzen dute, eta indarkeriaren biktima dira.

Egiturazko desberdintasun horien ondorioz, beharrak ez dira berdinak, nahiz eta adin bera izan eta bizitzako etapa berean egon.

Mundu mailako pertsona gehienek errealtatearekin bat ez datorren bizi-zikloa ulertzeko ikuspegi nagusi bat dago.



BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

■ Generoa eta pentsioak:

[“El Diario” egunkarian argitaratutako artikulua](#) irakurtzea

■ Oinarritzko errenta:

Genero-berdintasuna sustatzeko Oinarritzko Errenta bezalako tresna baten alde onak eta txarrak eztabaidatzea.

<https://ecosfron.org/la-renta-basica-a-debate-luces-y-sombras-de-la-rb-desde-el-enfoque-feminista/>

<https://ecosfron.org/portfolio/documento-de-posicionamiento-de-esf-euskadi-sobre-la-renta-basica-universal/>



Kordobako Oinarritzko Errenta Unibertsalerako Plataforma || Argazkia: Álex Gallegos. 2022ko ekainaren 24a (Córdopolis)

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 02

Jarduerak. Erretiroa eta pentsio-planak

#pentsioak #lan-baldintzak #emakume autonomoen soldata-arrakala

ZER DIO ESKULIBURUAK?

Azken urteetan aurrerapenak egin diren arren, oraindik ere gizonen eta emakumeen arteko soldata-arrakala handia da. Begiratu Interneten zenbatekoa den alde hori. Zer-nolako eragina du desberdintasun horrek pentsioak jasotzerako orduan?

IRAKURKETA KRITIKOA

Erretiroa eta pentsioa lan-bizitza formala izateagatik eskuratutako eskubide sozialak dira, hau da, Gizarte Segurantzarako ekarpenekin.

Gaur egun, eskubide hori pertsona baten lan-bizitza formalari lotuta dago, hau da, modu informalean lan egiten duten pertsona guztiak baztertuta geratzen dira edo pentsiorako eskubidea murriztu egiten zaie. Hori da etxeko lanak eta zaintza-lanak ordaindu gabe egiten dituzten emakumeen egoera, hain zuzen ere, etxeko langileak eta kontraturik gabeko langileak (horietako asko atzerritarrak). Senideen zaintzagatiko eszedentziek eta lanaldi-murrizketek ere eragina dute pentsioaren murrizketan, eta nagusiki emakumeei eragiten diete.

Hori dela eta, eskubide bat pribilegio bihurtzen da, izan ere, zaila izaten da erretiroa edo pentsioa eskuratzea segregatutako, prekarizatutako, azpikontrataturako eta lanean formalizatu gabeko pertsonentzat.

Era berean, emakume autonomoen kasuan, soldata-arrakala % 16tik % 28ra igotzen da norberaren konturako lanean (ELGA) [Emakumeekin](#)-.

65 urtetik gorako emakumeen biztanleria % 135 igo da azken 40 urtetan, eta horietatik ia % 20k kotizazio gabeko pentsio bat jasotzen du, urtean 7.250,60 €-koa –517 € hilean– (Eustaten 2024ko datuen arabera). Euskadiko etxeko langileen batez besteko pentsioak ere 500 € ingurukoak dira hilean, eta gainerako pentsiodunen batez besteko pentsioak, berriz, 1545 €-koak.

Las Kellys elkarte (hoteletako garbitzaileek osatutako elkarte) izendatzea beharrezkoa ikusten dugu. 2014an, hoteletako garbitzaileak sare sozialetan hasi ziren beren egoerari eta lan-baldintzei buruzko esperientziak partekatzen. 2015ean, beren egoera Interneten hedatzeaz gain, Espainian lurralde-taldeak osatzen hasi ziren. Horrela, beren eskubideen alde borrokatzen hasi ziren, baita erretiro

aurreratua eskatzen, hotelen kategoriari lotzen, lan-ikuskapenak handitzen eta lana kanporatzeari amaiera ematen. Ahaleginaren eta auto-antolaketaren bidez, ostalaritza-sektoreko langile askoren errealitatea eraldatu dute, eta lortu dute haien problematika ikusaraztea, lan-baldintzak hobetzea, legedian aurrera egitea, lan-gaixotasunak aitortzea eta Espainiako Parlamentuan eragin politikoa izatea.

BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

■ Miren Etxezarretaren “El cuento de las pensiones. Érase una vez...” liburuari buruz hausnartzea.

<https://ecosfron.org/MRE/miren-etxezarreta/>

Pentsioak “eskubide unibertsalak” izateari buruzko eztabaida bat planteatu daiteke, (ikusi Miren Etxezarretaren fitxa).



ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 03

Ikaskuntza-egoera, 3. unitatea

#finantza-bazterketa #finantza etikoak
#emakumeak eta finantzak

ZER DIO ESKULIBURUAK?

Gehien komeni zaizuen banketxea zein den erabaki beharko duzue. 1. urratsa: Ikerketa. Bi banketxeren ezaugarriei buruzko informazioa biltzea. Zehazki:

- Zenbat sukurtsal dauden udalerrian, eta zein diren bizi zareten kaletik gertuen daudenak.
- Erakundeen webguneak

Erakunde bakoitzeko gazteen kontuaren ezaugarriak, bai eta kontu horri lotutako txartel-motarenak ere”

IRAKURKETA KRITIKOA

Aipatu dugun bezala, emakumeek diskriminazioak jasaten dituzte finantza-sistemara sartzerako orduan, eta, beraz, garrantzitsua da alderdi hori kontuan hartzea gure banku-erakundea aukeratzerakoan, genero-ekitateari lagundu nahi badiogu. Geure buruari galde diezaiokegu nolako mailegu - eta inbertsio-praktikak egiten dituzten. Adibidez:

? Banketxeek kredituak ematen al dizkiete emakume ekintzaileei, etorkinei edo kreditua eskuratzeko betidanik zailtasun gehien izan dituzten taldeei?

? Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko politikak dituzten enpresetan inbertitzen dute?

Hau da, banketxea ere hauta daiteke, hark bultzatzen eta sostengatzen duen konpromiso sozialaren mailan pentsatuz, eta ez soilik eskaintzen dizkigun onura pertsonaletan pentsatuz.

Banku bat edo bestea aukeratzea kontsumo kritiko eta arduratsuko ekintza da. Erabaki horrek ekoizpenean duen eragin biderkatzailea ulertu behar dugu. Finantza-sektorea garapen ekonomikorako palanka bat da; izan ere, hartzen dituen erabakiek baldintzatu egin dezakete zer ekoizpen-mota egiten dugun eta zer baliotan eraiki nahi den.

Bestalde, kontuan izan behar dugu diru pertsonala kudeatzeko banku bat aukeratzea ez dagoela pertsona guztien eskura. Adibidez, iritsi berri diren migratzaileentzat oso zaila da Espainian banku-kontu bat irekitzea, nahiz eta aurrezkiekin iritsi. Bankarizazioa lortzeko, aurretiazko formalitate batzuk behar dira, eta formalitate horiek ere desberdintasunaren mende daude. Hori errealitate bat bada ere, eskubideak bermatzearen alde lan egin behar da: gaur egun, Oinarrizko Ordainketa Kontuak daude, bizileku-baimena duten Europako egoiliarrentzako eskubide direnak, nahiz eta bankuen zati handi batek ez dituen publiko egiten eta ez diren behar bezala kudeatzen ari.

BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

- **Finantza etiko eta solidarioetarako aurkezpen-bideoak:**
<https://ecosfron.org/repositorio-materiales-ies/video-otrasfinanzas-las-finanzas-eticas-y-solidarias/>
- **EsF- KoopSF34 ikerketa,** [Bilbon migratzaileek kreditua lortzeari buruzkoa](#)
- [Bankako genero-desberdintasunei buruzko txostena](#) (Setem, – argitaratzeko dagoen ikerketaren eguneraketa–)
- **Oinarrizko ordainketa-kontuak:** <https://ecosfron.org/nuevo-video-cuentas-de-pago-basicas/>

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 04

Epigrafea: 3. unitatearen jarduerak

#zaintzen ekonomia

ZER DIO ESKULIBURUAK?

“Zure ustez, adinekoa zarenean laguntza pertsonala edo aseguru pribatua beharko zenuke?”

IRAKURKETA KRITIKOA

Pertsona guztiok dugu zaintzarako beharra eta eskubidea, kontuan hartu gabe adina, egoera soziala, generoa, nazionalitatea. Zahartzaroan edo hirugarren adinean, zaintzaren inguruko kezka handitu egiten da, askotan ez baitago zaintzaren ardura har dezakeen familia- edo laguntza-sarerik.

Laguntza pertsonala eta aseguru pribatua sistema kapitalistak eskaintzen dizkigun aukerak dira, zahartzaroan gure zaintza ziurtatzeko.

Hala ere, beste aukera batzuk ere sor daitezke, zaintzekin laguntzeko:

- Bizilagunen arteko zaintza-estrategia komunitarioak
- Zaintzarako politika publikoak sustatzea
- Zaintzaileen lan-kooperatibak prestatzea eta zerbitzua eskaintzea
- Cohousing senior ekimenak sustatzea isolamenduari aurre egiteko eta zaintza-zerbitzuen kostuak mutualizatzeko.

? Zure ustez, zaintzak pertsona guztientzako eskubide aitortua izan beharko luke?

Azpimarratu behar da Latinoamerika aitzindaria dela zaintzarako eskubidea aitortzen. Eskualdeko hainbat herrialdek progresiboki onartu dituzte zenbait akordio, politika publikoen eta zaintza-sistema integralen diseinuari buruzko neurriak barne hartzen dituztenak, bai eta gizonen eta emakumeen arteko genero-erantzukidetasunari eta Estatuaren, merkatuaren, familien, pertsonen eta komunitateen zaintzako gizarte-erantzukidetasunari buruzko neurriak ere. Halaber, garrantzitsua da zaintza-politika publikoen jasagarritasun finantzarioa sustatzea (CEPAL, 2023).

BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

■ Zaintzen erantzukidetasuna. .

Hitz egin ikasgelan zaintzaren diamantearen irudiari buruz:
https://ecosfron.org/wp-content/uploads/2023/07/diamante_web.jpg

■ Zaintzei buruzko istorioak.

Irakurri eta komentatu gelan 4 emakume hauen historia:
<https://ecosfron.org/julia-blanca-ana-y-carmen-la-gran-historia-de-los-cuidados-jamas-contada/>



1. BLOKEA | 04. UNITATEA

FINANTZA - OSASUNA

Osasuna garrantzitsua da bizitzako arlo guztietan, finantzak barne hartuta. Finantza-osasuna terminoaren jatorria zenbait ideiarri lotuta dago, hala nola egonkortasuna eta ongizate ekonomikoa, diru-sarreraren eta gastuen arteko ahalik eta orekarik handienean oinarrituta. Gaur egun, kapitalismo globala arazo larriak sortzen ari da pertsonen finantza-osasunean, munduko langile askorentzat gastuak diru-sarrerak baino handiagoak baitira, eta horrek desoreka ekonomikoak sortzen ditu ekonomia indibidualetan eta familiarretan.

Unitate honetan, beste behin ere, emakume askok etxeetan egiten duten ordaindu gabeko lana agerian jarri behar da. Lan horrek ez du autonomia ekonomikorik sortzen, dirua lortzeko “hornitzaile” baten mende jartzen baititu (senarra edo bikotekidea). Emakume horiek oso gutxi pentsa dezakete finantza-osasun pertsonaleko elementuetan, eta, hala egiten badute, etxea eta familia mantentzeko baliabideekin lotuta dago.

Horregatik, unitate hau genero, belaunaldi, arraza eta etniako desberdintasunetan pentsatzeak aukera eta berdintasun egiturari buruzko galderak jartzen dizkigu, modu orokorragoan inplementatu ahal izateko. Autonomia ekonomiko urria duten pertsonentzako finantza-inklusioko zer politika egiten dituzten zalantzan jartzea hasierako ekarpena da egoera eraldatzeko.



LOMLOEren oinarrizko jakintzak	Finantza pertsonalak eta proiektu ekintzailearenak: diruaren kontrola eta kudeaketa. Diru-sarreraren eta gastuen iturriak eta kontrola. Epe laburreko eta luzeko finantza-baliabideak eta finantza-ongizatearekin duten lotura. Zorpetzea. Finantzaketa-iturriak eta finantza-baliabideak erakartzea. Finantza-arriskuaren kudeaketa eta aseguruak.
Eskuliburuko epigrafeak	_ Finantza-sistema _ Inbertsioak _ Zorrak _ Mailegua _ Aseguru-kontratua
Irakurketa kritikoarekin garatu beharreko trebetasunak	_ Finantza-sistema eta haren interesak ezagutzea, bai eta sistema hori desberdintasunekin nola lotzen den ere. _ Maileguak eskuratzeari eta finantza-osasunari buruz hausnartzea _ Inbertsioei buruz hausnartzea, bai eta horrelako jarduera ekonomikoak pentsatu edo eskura ditzaketenei buruz ere.

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 01

Epigrafea: 4. unitatearen aurkibidea

#emakumeak eta finantzak
#finantza-bazterketa

#sozialki arduratsua den inbertsioa
#finantza etikoak

ZER DIO ESKULIBURUAK?

“Finantza-merkatuek aukera asko eskaintzen dizkigute aurretzen dugun dirua behar ez dugun bitartean inbertitzeko. Horien artean aukeratzeko, galderak egin beharko dizkiogu geure buruari, esate baterako, arriskuren bat izan dezakegun edo dirua noiz beharko dugun”.



IRAKURKETA KRITIKOA

Baieztapen hori osatzeko, beharrezkoa litzateke geure buruari galdetzea zer eragin duen gure inbertsioak gizarte- eta ingurumen-gaietan, besteak beste, giza eskubideetan eta genero-ekitatean. Horretarako, sozialki arduratsuak diren inbertsioez hitz egin behar dugu, eta horietatik haratago, banka eta finantza etikoez.

Emakumeak tradizioz diskriminatzen dira finantza-merkatuan, lanaren sexu-banaketaren ondorioz. Banaketa horrek etxeko eta zaintzako zereginetan aritzea naturalizatu du, autoestimua eta ahalduntze ekonomikoa mugatu ditu, eta finantzen arloan duten posizioa baldintzatu du, erreferente femenino gutxi baitaude.

Mundu mailako finantza-ministro guztien % 11 baino ez dira emakumeak, eta World Economic Forumek egindako ikerketa baten arabera, Espainiako estatuan finantza-erakundeetako administrazio-kontseiluetako posizioen % 20 baino gutxiago betetzen dituzte emakumeek, eta finantza-erakundeetako zuzendari exekutiboen % 2 baino ez dira emakumeak.

Inbertsioa pribilegio kontua da, eta beste praktika sozial eta ekonomiko batzuk bezala, faktore kulturalak, generoek eta adinak eragiten dute, besteak beste. Inbertsioak egiteko dirua “sobera” duten pertsonen taldea txikia da. Horri gehitu behar zaio diskriminazio-egoeran dauden emakume eta pertsona askori eragiten dien finantza-bazterketa.

Une honetan, aipatu behar da datuen ekonomia edo big data gero eta gehiago baldintzatzen ari dela krediturako sarbidea. Horrek hainbat motatako eraginak dituen arren, baztertze-alborapenak erreproduzitzeko arriskua dago, kreditu-arriskua ebaluatzeko algoritmo automatizatuetan oinarrituta.



BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

■ Unitate didaktikoa

[Gizartea eraldatzeko finantza-hezkuntza kritikoa eta etikoa](#), Steilasek eta Finantzaz Haratago elkarteak egina. Blokea: Ekonomia feminista eta etxegabetzeak.

■ [“Finantza etikoak eta Ekonomia Feminista” posterra](#). Horma-irudi hori Finantzaz Haratago elkarteak aurkeztu zuen 2021eko Ekonomia Feministaren VII. Kongresuan, ohiko finantza sistematik emakumeak baztertzen dituzten datuak azalduz.

■ [Finantzaz Haratago karta-jokoa](#), hezkuntza-dinamika bat da, eta dirua inbertitzeko sektoreak bilatu behar dituen banka baten papera hartzen dugu.

■ [ESScape box jokoa](#), inbertsio etikoei buruzkoa.



ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 02

Epigrafea: Finantza-bitartekariak

#finantza etikoak
#finantza-bazterketa

ZER DIO ESKULIBURUAK?

Bankukoak ez diren finantza-bitartekariak (taula).

IRAKURKETA KRITIKOA

Eskuliburuko aukeren zerrendan kreditu-kooperatibak gehitu behar ditugu, hala nola Oikocredit, Coop 57 eta Elkarcredit.

Bankaz kanpoko beste finantza-tresna bat Calala Fondo de Mujeres da. Emakumeen giza eskubideak sustatzen ditu, Espainiako eta Erdialdeko Amerikako emakume-taldeei finantza-baliabideak emanez, formatuz eta lagunduz.

Ekimen horiek finantza-bazterketaren alternatiba gisa sortzen dira, eta emakumeek eta sozialki urratutako beste talde batzuek ohiko bankaren aldetik pairatzen dute bazterketa hori.

Adi egon behar da nolaosatzen diren eta erakunde alternatibo horiek norentzat diren.

Adibidez, aurrezki- eta kreditu-kooperatibek bazkideen elkartasuna dute ardatz, premiazko ondasun edo zerbitzu jakin batzuk eskuratzeko erraztasunak emateko.

Beste batzuk, aldiz, pertsonen kalteberatasun ekonomikoaz baliatzen dira eta interes-tasa handiko zerbitzuak eskaintzen dituzte.

BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

Bideoa:

["Emakumeak eta finantzak"](#) Finantzaz Haratago proiektuak genero-desberdintasuna erakusten du banku-krediturako sarbidean.

[Infografia](#), emakumeen finantza-bazterketari buruzkoa



ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 03

Clasificación de las inversiones

#sozialki arduratsua den inbertsioa
#finantza etikoak

#inpaktua duten inbertsioak

ZER DIO ESKULIBURUAK?

Inbertsio guztiak irizpide hauen arabera sailka daitezke: Likidezia, Segurtasuna, Errentagarritasuna.



IRAKURKETA KRITIKOA

Inbertsioen inpaktuarekin lotuta, **xedearen arabera** sailka ditzakegu:

Inbertsio espekulatiboak: Irabazi azkarrak eta epe laburrekoak lortzera bideratuta daude, merkatuaren gorabeherak aprobetxatuz. Adibideak: akzioen eguneroko tradinga, kriptotxanponak, etorkizunekoak.

Inbertsio produktiboak: Inbertsio horiek balioa sortu nahi dute denboran zehar, epe luzerako estrategia gisa. Adibideak: dibidenduak lortzeko akzioak erostea, enpresa batean inbertsioak egitea irabazietan partaidetzak lortzeko...

A priori, inbertsio produktiboek espekulatiboek baino eragin positiboagoa dute, espekulazioek moneta-irabazia baino ez baitute bilatzen eta ez baitote inbertsioaren inpaktuari begiratzen, burbuilak eta finantza-krisiak sor baititzakete. Inbertsio produktiboen artean, inpaktu-irizpideak dituztenak eta ez dituztenak bereiztea komeni da.

NBE Emakumeak erakundearen arabera, Genero Inpaktua duten Inbertsioak emakumeen eta haurren bizitzan eragin positiboa izateko asmoa nahita txertatzen duen inbertsio modalitate bat dira, eta, aldi berean, inbertsio-zorro baterako arrisku/itzulera helburu egokiak bateratzen ditu.

Sozialki arduratsuak diren inbertsioak gizarte- eta ingurumen-jasangarritasuneko helburu komunak partekatzen dituzte finantza etikoekin, baina funtsezko desberdintasunak daude. Sozialki arduratsuak diren inbertsioek enpresen eta finantza-merkatuen portaeran eragin nahi dute, gizarte-, ingurumen- eta gobernantza-irizpideak txertatuz, finantza-itzulera lehiakorrari uko egin beharrik gabe. Aldiz, finantza etikoak, banku etikoek kudeatzen dituztenak bezala, haratago doaz, gizartean eta ingurumenean inpaktu positibo baterantz erabat bideratuz, pertsonen ongizateari etekin finantzarioaren gainetik lehentasuna emanez.



BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

■ Finantza etikoei buruzko bideoa:

<https://ecosfron.org/repositorio-materiales-ies/video-otrasfinanzas-las-finanzas-eticas-y-solidarias/>



ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 04

Zorrak

#maileguak #finantza-etikoak #finantza-bazterketa

ZER DIO ESKULIBURUAK?

Maileguak eta zorrak.



IRAKURKETA KRITIKOA

Banketxearen hautuaz hitz egiterako orduan, diskriminatutako emakume eta kolektiboek eragiten dien finantza diskriminazioaz aritu gara.

Emakumeek askotan zailtasunak izaten dituzte banketxeek ezarritako baldintzak betetzeko, hala nola aktiboak edo jabetzak edukitzea, sarritan gizonen izenean erregistratzen direnak. Finantza-erakundeetan ere badaude **genero-alborapenak**, emakumeen ordainketa-ahalmena gutxiestera jotzen dutenak edo haien proiektuak errentagarritasun gutxiagokotzat jotzen dituztenak.

Horrez gainera, emakume asko sektore informal edo prekarioetan biltzen dira, hala nola etxeko lanetan, diru-sarrera txikiekin edo kontratu formaletarako sarbiderik gabe, eta horrek **kreditu-historia** eta maileguak eskuratzeko gaitasuna murrizten ditu. Hori nabarmenagoa da emakume migratzaileetan edo arrazializatueta, hesi gehigarriei aurre egiten baitiete.

Emakume ekintzaileei dagokienez, sarritan **mailegu txikiagoak** eta interes-tasa altuagoak eskaintzen zaizkie gizonen baino, nahiz eta azterlanek erakutsi duten emakumeek gidatutako ekintzailetza-tasek itzulera-tasa berdina edo altuagoa izan ohi dutela.

Finantza etikoen erakundeek esperientziatik frogatu da, gizartean eta ingurumenean eragina duten elementuak eta pertsonen eta haien proiektuen gertutasuna eta ezagutza kontuan hartuta, ohiko bankan baino itzultze-tasa altuagoa bermatzen dutela. Sektore honetan itzulera-tasak handiagoak izatearen beste arrazoi bat da “ekonomia errealean” oinarritutako proiektuak finantzatzera bideratzen direla, eta horrek aukera ematen die finantza-egonkortasunari eusteko, baita krisi-garaian ere, merkatuaren espekulazioa eta hegazkortasuna saihestuz.



BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

■ Irakurri “La exclusión financiera también es violencia contra las mujeres” artikulua, El Diario.es egunkariak argitaratuta.

<https://ecosfron.org/defensa-de-la-mujer-defensa-de-los-derechos-humanos/>**

** Gomendatzen da azaroaren 25a baliatzea artikulua hau irakurri eta horri buruz eztabaidatzeko.



1. FITXA. JARDUERAK

Ekonomia feminista eta dekoloniala esploratzen.

» EDUKIAK

Interdependentzia, aukera-kostua eta giza portaera.



■ Ikaskuntza-helburuak:

- 1_ Interdependentziaren kontzeptua eta horrek ekonomia feministan duen garrantzia ulertzea, bai eta bizitza eremuan dituen inplikazioak ere.
- 2_ Aukera-kostua eta zaintza zein etxeko lanetan emandako denbora eta baliabideak esleitzean duen eragina ebaluatzea.
- 3_ Ekonomia klasikoaren indibidualismoa gainditzen duen ikuspegitik, zein modutan pertsonen portaerak erabaki ekonomikoetan duen eragina aztertzea.



■ Garapen Iraunkorreko Helburuak:

- 5. GIH: Genero berdintasuna.
- 8. GIH: Lan duina eta hazkunde ekonomikoa.
- 10. GIH: Desberdintasunak murriztea.

Hurrengo ekintza hauek ekonomia feminista aztertzea dute helburu, funtsezkoak diren hiru kontzepturen bidez: interdependentzia, aukera-kostua eta giza portaera. Horretarako, hainbat irakurketa, eztabaida, esplorazio interaktibo eta teknologien erabilera egingo dira, baita taldeko hausnarketa eta lanak ere. Horrela, ikasleek aztertu eta birpentsatuko dute nola gai horiek eragiten duten haien eguneroko bizitzan zein ekonomiaren zentzu zabalagoan, bai eta hegoaldeko eta iparraldeko herrien arteko harremanetan ere.

Gutxi gora beherako iraupena: 90 minutu



1_ Interdependentziari buruzko irakurketa eta eztabaida

- **BALIABIDEA:** Mugarik Gabeko Ekonomilariak-en webgunean argitaratutako aipamena: [Baliabiderako esteka](#).
- **IRAUPENA:** 20 minutu.
- **DESKRIBAPENA:** Elkarrekiko mendekotasunak eta ekonomia feministak duen garrantziari buruzko dieia nagusiak kontuan harturik, ikasleei aipamen hau irakurtzea proposatzen zaie. Irakurketa egin ondoren, ikasgelan eztabaida egingo da, ideiak trukatzeko eta kontzeptu hori ekonomian eta eguneroko bizitzan nola aplikatzen den azaltzeko.
- **METODOLOGIA:** Irakurketa indibiduala eta eztabaida.

2_ Aukera kostua esploratzea aplikazio batekin

- **BALIABIDEA:** Denboraren erabilerari buruzko aplikazioa eta ikasgelarako fitxa.
- **DESKRIBAPENA:** Ikasleek aplikazioa erabiliko dute hainbat jardueratan denbora nola banatzen den aztertzeko. Denboraren erabilerari buruzko inkestetan oinarrituta, denboraren erabilera desorekatuari, horren inpaktuei eta sortzen dituen desberdintasunei buruz hausnartzea proposatzen da, bai eta erantzunkidetasunaren aldeko apustuak nola leheneratu daitezkeen ere. Gainera, zalantzan jarriko da etxeko lanak eta zaintza-lanak jarduera ekonomiko gisa ez sartzea, eta jarduera teoriko bezala proposatuko da horiek monetizatzea, BPGan duten pisua aztertzeko.

» 1. EGUNA: Ikasleei inkesta azaldu eta erakutsi | 5 min – 1. Eguna

Denboraren erabilerari buruzko inkestek aukera ematen dute pertsonak egiten dituzten jarduerak ezagutzeko (ordaindutako lana, ordaindu gabeko lana, aisialdia, norberaren zaintzako jarduerak, etab.). Hainbat metodologia daude. Espainian, estatu mailako inkesta bat dago, Denboraren Erabileraren buruzko Inkesta. Deskarga daitezkeen fitxan eskura dauden azken datuak aurki daitezke.

Ikasgelatik kanpo betetzeko inkesta | 5 min – 1. Eguna

Ikasleek eta haiekin egunerokotasunean bizi diren pertsonen (irakasleek, senideek, etab.) betetzeko eskatuko zaie: <https://encuestatiempo.ecosfron.org/#>. Gutxienez ikasle bakoitzeko 2 inkesta bete beharko dira. Emailtzak deskargatzeko eta taldeka partekatzeko eskatuko da 2. egunean, arbela birtual edo fisikoan emailtzak alderatu ahal izateko.

» 2. EGUNA: Ikasgelako emailtzak taldeka konparatzea.

- Zeintzuk izan dira zuen emailtzak? Bat al datoz bat estatu mailako datuekin?
- Ba al dago emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunik denboraren erabilerari dagokionez? Ba al dago adinaren araberrako alderik? Zure hiriko beste auzo batean, desberdintasun horiek handitu/txikitu egingo liratekeela uste duzu? Eta munduko beste leku batean?
- Zuen ustez, genero desberdintasunak bidezkoak dira? Zergatik gertatzen dira? Nola desagertarazi daitezke?

Eguneratutako datuak:

Espainiako Estatuko eskualdeen artean alde handirik ez dagoenez, datu eguneratuagoekin lan egin nahi izanez gero, Euskadiko Estatistika Institutuaren (Eustat) datuak erabili daitezke denbora-aurrekontuen inkestan (eustat.eus).


Etxeetan egiten diren etxeko eta zaintzako lan askok balio kalkulazina duten arren, gure gizarteetan diruari garrantzi handia ematen zaionez, ariketa teoriko gisa, jarduera horien kostua dirutan kontabilizatu daiteke. Behin kalkulata, kontabilitate nazionaletan sar daitezke, eta BPGan duten pisua kalkulatu, ekonomiarentzat duten garrantzia eta zenbatekoa ikusarazteko.

Eztabaidarako ideiak:

- Adibide gisa, Euskadin bost urtean behin egiten den [etxeko lanaren kontu satelitea](#) azter daiteke. Genero-desberdintasunak egiturazkoak dira, eta lanaren sexu-banaketan dute jatorria.
- Zaintza hornitzen duten eragileen arteko erantzunkidetasuna: [S. Razaviren diamantea](#).
- Aplikazioak jarduera horiek nork egiten dituen hausnartzeko eta banaketa horrek aukera-kostuari dagokionez, zer eragin izango duten kalkulatzeko balio du. Ondoren, lan-fitxa bat osatuko dute aurkikuntzak aztertzeke eta horren inguruan eztabaidatzeko.

Metodología:

Ikasleek taldean lan egingo dute ekonomian ordaindu gabeko jardueren aintzatespena eta balorazioa aztertzeke eta horri buruz hausnartzeko. Denboraren erabilerak eta horiek ekonomian eta gizarteetan duten eragina aztertzeke aplikazio bat erabiliko da.





2. Blokea

2. BLOKEA | 05. UNITATEA

ENPRESEN FUNTZIOA

Irabaziak sortzeaz gain, enpresek, eguneroko zereginetan, ongizate sozialari laguntzen dioten gauza asko susta ditzakete, hala nola gizonen eta emakumeen arteko soldata-berdintasunerako politikak, lan-kontziliazioa eta gizonen eta emakumeen arteko zaintza-erantzukidetasuna lortzeko politikak, emakume eta gizon etorkinen kontratazioa, lan-jazarpenaren eta sexu-jazarpenaren aurkako protokoloak, beste askoren artean.

Unitate honetan, besteak beste, Erantzukizun Sozial Korporatiboaren gaia landuko dugu, elkartasuna, genero-berdintasuna, gizarteratzea, kulturartekotasuna eta abar sustatzen dituzten ekintzen bidez enpresak gizartean nola inplika daitezkeen jakiteko.

LOMLOEren oinarrizko jakintzak	- Enpresaren edo erakundearen misioa, ikuspegia eta balioak. - Enpresa eta haren erantzukizun soziala.
Eskuliburuko epigrafeak	- Enpresen helburuak. - Enpresa-mozkina. - Erantzukizun Sozial Korporatiboa (ESK). - Sektore ekonomikoak.
Irakurketa kritikoarekin garatu beharreko trebetasunak	- Enpresa-helburuei buruzko begirada zenbait paradigmataz zabaltzea - Enpresa-mozkinei eta horiek genero-berdintasunarekin eta justizia sozialarekin duten loturari buruz hausnartzea - ESKren ideia ikuspegi kritiko batetik ezagutzea - Sektore ekonomikoei eta horiek laneko desberdintasunekin eta prekarizazioarekin duten loturari buruz hausnartzea.



ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 01

Enpresen helburuak

#enpresak
#mozkinak maximizatzea

#lan-esplotazioa

ZER DIO ESKULIBURUAK?

“Enpresek bizirik iraun behar dute denboran. Horregatik, mozkina maximizatzea, enpresen helburu gisa, lehendabizi agertzen da. Diru-sarrerak maximizatzea eta gastuak minimizatzea, baliabideak optimizatzeko kontua izateaz gain, bizirik irauteko kontua ere bada: mozkinak gabe, enpresek itxi eta langileak kaleratu behar dituzte”



IRAKURKETA KRITIKOA

Adierazpen hori premisa faltsu batetik abiatzen da: mozkinak sortzea eta haiek maximizatzea ez dira gauza bera. Mozkinak maximizatzeko kostuak minimizatu egin behar dira, eta, horretarako, enpresak, agian, inpaktu kaltegarriak eragingo ditu gizartean eta ingurumenean; gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun handiagoa eragitea, adibidez.

Enpresa baten biziraupena bere ospe korporatiboaren eta arriskuak kudeatzeko politiken mende ere badago, eta horiek, neurri handi batean, Erantzukizun Soziala kudeaketan integratzeko moduen mende daude.

2.2 epigrafean, ESKren abantailak zerrendatzen dira, baina ez da aipatzen neurri horiek ezartzeak kostua eragiten diola enpresari. Beraz, enpresaren helburu nagusia, mozkinak maximizatzea, bateraezina izan daiteke arlo horretan duen jarduerarekin; adibidez, enpresan genero-ekitatea sustatzearekin.

Enpresa kapitalisten helburu nagusia mozkinak maximizatzea baldin bada, kostuak murrizten ahalegintzen dira, giza eskubideen aurka doazen jardunbideen bidez askotan, eta, batzuetan, enpresek ez dute legea betetzen, beren sektorean lehiakorrak izateko. Adibidez, langileak kontraturik gabe enplegatu, eta, hala, lan-eskubiderik gabe uzten dituzte, langileak kontratatzeako kostuak minimizatzeko. European, jardunbide horiek ezkutatuta daude, baina Espainiako Estatistika Institutu Nazionalak 2023an jakinarazi zuen etxeko edo zaintzako lanetan aritzen diren emakumeen ia %50 migratzaileak eta baldintza informetan ari diren langileak direla, hau da, eskubiderik gabe ari direnak. Halaber, landa- edo nekazaritza-eremuetan normalizatuta dago lan informala, eta agerian gelditu dira lan-esplotazioko zenbait modu, batez ere dokumenturik gabeko migratzaileekiko.

Adibide horien bitartez garbi ikusten da lan-esplotazioak gehiago eragiten diela batzuei beste batzuei baino, genero, nazionalitate eta abarrekin lotutako desberdintasunak baliatzen baitira, “ekoizpen-kostuak minimizatzeko”.

M8a sortu zen, hain zuzen ere, antolatutako emakume batzuk hil zirenean, fabrika batean jasaten ari ziren lan- eta genero-esplotazioko baldintzak agerian jarri eta beren eskubideak aldarrikatzeagatik. Egia da denboran zehar aurrera egin dela lan-eskubideei dagokienez. Baina sistema honen eta egungo lan-harremanen sortze-pieza den esplotazioak bere horretan jarraitzen du, eta mundu-mailako sektore pobreenetan eragiten du gehienbat.

Globalizazioarekin batera deslokalizazio-praktikak etorri dira. Hots, enpresek ekoizpena beste herrialde batzuetara eramaten dute; langileen soldatak eta babes sozialeko kostuak baxuagoak, eta ingurumena babesteko neurriak laxoagoak eta kostu txikiagoak dituzten herrialdeetara, hain zuzen ere.

Legeak eta lan-eskubideak errespetatu behar izateaz gain, enpresek rol garrantzitsua dute ekitatearen aldeko aldaketak sortzeko. Eta horretarako, ekintzak bi jarduera-ildotan proposatu behar dituzte:

- Bizitza pertsonala/familiarra eta lan-bizitza kontziliatzeko baldintzak hobetzea: zentro espezializatuarekin zaintza-akordioak egitea, familiek seme-alabak lan-ordutegian utz ditzaten.

- Erantzukidetasun-neurriak sustatzea, gizonen eta emakumeen etxeko lanak eta seme-alabak edo ardurapeko beste pertsona batzuk zaintzeko lanak berdintasunez beren gain hartu ditzaten: sentsibilizazio-, prestakuntza- eta informazio-tailerrak, kontziliazioari buruz orientatzeko aholkularia, edoskitzaroan erantzukidetasuna sustatzea, etab.

Horregatik, irabaziak ez dira soilik ekonomikoak edo monetarioak; sozialak, kulturalak eta ingurumenekoak ere badira, eta, beraz, enpresek ahalik eta gehien zabaltzea behar du lituzkete Erantzukizun Sozial Korporatiboko ekintzak. Ekintza horien barruan, baliabide naturalak eta haietan bizi diren komunitateak zaintzeko eta babesteko printzipioak ere kontuan izan behar dira. Hego Amerikan, zuhaitzak bereizi gabe moztea ekartzen duten zelulosa-fabrikek tentsio handiak eragin dituzte fabrikak eta horiek kudeatzen dituzten enpresak dauden eremuetako biztanleen artean. Lurzoruari eta lurzoruko baliabideei kalte egitea eremu horretan bizi diren pertsonen giza eskubideak eta bizirauteko bitartekoak urratzea da.



BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

- Artikulua irakurtzea eta hari buruz hausnartzea:

<https://ecosfron.org/la-maximizacion-del-valor-accionarial-i-un-modelo-de-empresa/>

- SETEMen Arropa Garbia Kanpaina:

<https://ropalimpia.org/noticias/acciones-recuerdo-rana-plaza-10-aniversario-levis-decathlon-amazon-ikea-firmad-acuerdo-seguridad/>

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 02

Enpresen helburuak

#enpresak
#mozkinak maximizatzea

#Ekonomia Sozial eta Solidarioa
#ekitatearen aldeko planak

ZER DIO ESKULIBURUAK?

“Ba al zenekien enpresa guztiek ez dutela beren onura bilatzen? Enpresa publikoek gizarte osoaren onura bilatzen dute, eta beste enpresa batzuek, berriz, interes soziala, edo, gutxienez, kideena”.



IRAKURKETA KRITIKOA

Enpresa guztiek ez diote irabaziak pilatzearen helburu kapitalistari jarraitzen. Badira enpresa batzuk, dirua irabazteko beharra gizarte osoari funtsezko zerbitzua edo zerbitzu eskuragarria eskaintzearekin lotzen dutenak. Enpresa publikoak edo estatukoak, adibidez, horietakoak dira.

Gizartean eta planetan eragin positiboa duten ondasunak eta zerbitzuak eskaintzea helburu duten beste enpresa batzuk **Ekonomia Sozial eta Solidarioaren** sarekoak dira. Enpresa horientzat, errentagarritasun ekonomikoa beren jardura gauzatzeko bitartekoa da, baina ez helburu bat berez. Gauzak egiteko modua nahiz partaideak, haien komunitatea eta ingurune naturala elkarren artean erlazionatzeko modua funtsezkoak dira enpresa horietan. Genero-ekitatearen sustapena ardatz nagusietako bat da aipatutako enpresetan. Bide erraza ez dela onartu arren, enpresa horietako asko genero-ekitatearen aldeko prozesuetan murgilduta daude, hura oztopatzen duten enpresa-egiturak (egitura sozialen adierazgarriak) aldatzeko helburuarekin.



BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

“Ekonomia Sozial eta Solidarioaren ikuspegian erroturiko ekintzailatza” izeneko unitate didaktikoaren edukiak eta dinamikak aplikatzea iradokitzen dugu:

https://ecosfron.org/wp-content/uploads/04_Unidad_Didactica_02.pdf



Argazkia Elisa Cuartielles

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 03

Erantzukizun sozial korporatiboa

#enpresak #genero-berdintasuna #zaintza-erantzukidetasuna
#erantzukizun sozial korporatiboa #ekitatearen aldeko planak

ZER DIO ESKULIBURUAK?

“2. jarduera ebatzia. Sailkatu neurriak Erantzukizun Sozial Korporatiboko dagokion jardun-eremuan:

Neurria - Haurtzaindegiak lantokian. Erantzuna: ESKko eremuak - Langileak”



IRAKURKETA KRITIKOA

Genero-berdintasuna eta arraza- eta etnia-berdintasuna sustatzeko, enpresek zenbait neurri hartu ditzakete. Esate baterako:

- Laneko jazarpen moral eta sexualaren aurkako protokoloa
- Komunikazio ez-sexista
- Genero-indarkeriaren aurkako ekimenak babestea (adibidez, familia barruan genero-indarkeria jasaten ari diren emakumezko langileei laguntzeko politikak)
- Etorkinak ez diskriminatzeko ekimenak babestea (adibidez, etorkin zaurgarriak kontratatzeko politikak)
- Genero-ekitatearen aldeko planak
- Adingabeak eta beste senide batzuk zaintzeko kontziliazio-politikak
- Zaintza-erantzukidetasuneko politikak, enpresako eta inguruko beste enpresa batzuetako gizonezko langileentzat

Neurri horietako edozeinek edo antzeko beste batzuek pertsonen arteko desberdintasunak murrizten laguntzen dute, eta enpresek oso ekarpen esanguratsuak egiten dituzte hala; izan ere, gizarteari adierazi egiten zaio arazo larriak direla horiek, eta ahalik eta leku gehienetatik lagundu behar dela horretan.

Argi eta garbi bereizi behar dira ESK, borondatezkoa dena, eta derrigorrezko legeak betetzea; adibidez, zenbait enpresak berdintasun-planak nahitaez bete behar izatea.



BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

“Ekonomia arduratsu, zuzen eta solidario bateranzko urratsak” Gida Didaktikoan, [“Enpresa eta giza eskubideak”](#) izeneko unitate didaktikoa dator. Unitate horretan, rolen dinamikaren bidez landuko dira enpresaren Erantzukizun Sozial Korporatiboa, 4. unitatean ikusitako Banku Etikoa eta kontsumitzaileen eskubideak.



ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 04

ESKren abantailak

#enpresak #erantzukizun sozial korporatiboa #markaren balioa #greenwashing, pinkwashing

ZER DIO ESKULIBURUAK?

ESKren abantailak: balioa handitzea eta markaren lehentasuna.

IRAKURKETA KRITIKOA

Batzuetan, enpresek gizartearen kezkak erabiltzen dituzte beren balioa eta ospea handitu ahal izateko; kausa sozial horiekin identifikatzen den publiko batengana iristen dira, nahiz eta kausa horiek enpresaren benetako kezka ez izan.

Esate baterako, aniztasunaren hilabeteen, hura sustatzen eta ospatzen duten marka asko ikusten dira. Baina Erantzukizun Sozial Korporatibotik ez dute ekarpen zehatzik egiten benetan eraldatzeko. Argi dago, adibidez, markek ez dituztela transak kontratatzen inklusio-politika eraginkor gisa.

Publizitatzen denaren eta egiten denaren artean arrakala nabarmena dagoenean, garbi esan dezakegu pink-washing, green-washing edo beste irudi-garbiketa bat dela, eta ez direla arazo sozial horiek benetan konpondu nahi. Horregatik, garrantzitsua da aztertzea zer kontsumitzen dugun eta kontsumitzen ditugun gauza horietatik zeinek betetzen duen publizitatean azaltzen edo agintzen dena.

BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

Enpresa-publizitateak estereotipoen eraikuntzan duen eragina landukoda, honiburuzko unitate espezifikoaren bidez: ["Komunikazioa generoaren eta giza eskubideen ikuspegitik"](#).

YouTube interface showing a video titled "Wallapop | Guardamos". The video content shows a person holding a blue object, with the text "wallapop Lo hecho, hecho está." overlaid. The video player shows a progress bar at 0:31 / 0:36. Below the video, the channel name "Wallapop" is displayed with 13,7 K suscriptores. The video has 76 likes and 9,1 K visualizaciones. The description reads: "Guardamos, guardamos, por si acaso guardamos. Guardamos, guardamos, sin pensar acumulamos."

<https://www.youtube.com/watch?v=8Zvf5lvAMzE>

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 05

Sektore ekonomikoak

#sektore ekonomikoak
#erantzukizun sozial korporatiboa

#ekoizpenaren deslokalizazioa
#garapena

#arrakala digitala

ZER DIO ESKULIBURUAK?

Sectores Económicos.



IRAKURKETA KRITIKOA

Eskuliburuan sektoreak mailaka aurkezten dira.

1. Lehen sektorea: lehengaiak ustiatzeko eta erauzteko jarduerak. Aipatzekoa da sektore hau gutxietsia eta eskulanean intentsiboa izanik, sektorean lan egiten duten pertsona askok prekaritateko eta lan-esplotazioko baldintzetan egiten dutela. Hori gertatzen da, hain zuzen ere, Cádizko eta Huelvako soroetan lan egiten duten etorkinekin. Beste adibide bat Indiako mika-industriarena da: mika produktu kosmetiko askotan erabiltzen den mineral bat da, eta emakumeek eta hurrek biltzen dute, gehienbat. Kongoko koltan-ustiategietan ere antzekoa gertatzen da..

2. Bigarren sektorea, industria-sektore gisa identifikatua. Eskuliburuan adierazita dago sektore honetako arazoak deslokalizazioarekin eta defizit teknologikoarekin lotuta daudela, batik bat.

Unitate honen hasieran azaldutako deslokalizazio kontzeptua garatzea komeni da. Azpimarratu egin behar da deslokalizazioak sakonagoak egiten dituela pobrezia eta Iparraldeko eta Hegoaldeko herrialdeen arteko eta herrialde horietako biztanleen arteko egitura-desberdintasunak.



Ba al dakizu zure jantzi gehienak ez direla Europan eginak? Konturatu al zara etiketa gehienetan “Made in Vietnam, Bangladesh, China” jartzen duela?

Izan ere, fabrikazioa merkeagoa da herrialde horietan. Biztanleen arteko desberdintasun handiko herrialdeak dira, generoari eta belaunaldiei dagokionez, bereziki, eta emakumeak eta haurrak izugarri esplotatzen dituzte ehun-fabriketan eta industrian, oro har (mika-industrian, adibidez).

3. Hirugarren sektorea. Iparraldeko herrialdeak, hala nola Mendebaldeko Europakoak eta Ameriketako Estatu Batuetakoak, ekonomiari dagokionez, hirugarren sektorearekin edo zerbitzuen sektorearekin daude lotuta nagusiki, biztanle gehienek sektore horretan egiten baitute lan. Hori kontsumoan, nazioarteko merkataritzan eta jarduera ekonomikoaren tertziarizazioan oinarritutako garapen-eredu baten isla da.

Zaintzak ere sektore horren parte dira, eta, ikusi genuen bezala, emakume askok baldintza prekarioetan, eta batzuetan, baita baldintza informaletan ere egiten dute lan arlo horretan.

4. Laugarren sektorea:

Azpimarratzekoa da orain emakume gehiago joaten direla unibertsitatara; baina, hala ere, segregazio horizontala jasaten dute prestakuntzan, sektore teknologikoan islatzen dena bereziki. Genero-arrakala digitala esaten zaion errealitate horrek ezagutzaren produkzioaren joera androzentrikoa areagotzen du.

Horri, gainera, arraza- eta etnia-ikuspegitik begiratzen badiogu, argi ikusiko dugu emakume batzuek ez dutela mundu akademikoan, zientifikoan eta profesionalean pentsatzeko aukerarik ere. Gogoan izan behar dugu munduko pobrezia-indize handienak emakumeei, hurrei eta nerabeei dagozkiela; beraz, unibertsitate-munduan sartzea klase-, nazionalitate- eta genero-pribilegio bat da. Bekak eskuratzeko orduan ere genero-desberdintasunak daude. Txileko gobernuak, esate baterako, haurdunaldiko proba negatibo bat eskatzen die herrialde horrek eskaintzen dituen graduondoko beketarako hautagaiei, emakumeak haurdun baldin badaude, hautaketa-prozesutik kanpo uzten dituzte-eta.

Horrenbestez, garbi dago genero-, arraza- eta nazionalitate-desberdintasunak daudela sektore guztietan.



BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

■ Bideoak:

Bideoa ikustea eta hari buruz eztabaidatzea. Lehen sektorea eta ESK:

<https://www.youtube.com/watch?v=-JMQyNKeZXk>

■ Bideoak:

SETEMen Arropa Garbia kanpainako [“38” bideoa](#) ikustea.

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 06

Ariketak

#zaintza-erantzukidetasuna



ZER DIO ESKULIBURUAK?

Ejercicio 18:

Clasifica las medidas dentro de la correspondiente área de actuación de la RSC: Periodo de baja maternal para las trabajadoras superior al que marca el convenio colectivo del sector"



IRAKURKETA KRITIKOA

Ariketa horri gogoeta kritiko hau gehitu behar zaio: Zergatik aplikatzen zaie neurri hori emakumezko langileei soilik, hala haien zaintzaile rola betikotzen bada? Amei beren eskubideak hobetzeko neurri espezifikoak eskaintzeaz gain, ezinbestekoa da gizonezkoen zaintza-erantzukizuna sustatzeko neurriak sartzea.

2019az geroztik, Espainian [aitatasun- eta amatasun-baimen berdinak eta besterenezinak](#) daude, eta neurri hori hartu zuen lehen herrialdea izan zen Espainia.


Amatasunari eta aitatasunari buruz eta lanarekin duten loturari buruz hausnartu behar da, eta, horretan, Erantzukizun Sozial Korporatiboaren rola premiazkoa da berdintasun handiagoa lortzeko.



BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

Artikulua irakurtzea eta hari buruz eztabaidatzea: [Baimen besterenezinak](#).

Zer sustatzen da neurri horren bidez? Zeinek izango du eragin handiagoa berdintasunean, amatasun-baimenak hobetzeak edo gizonen eta emakumeen arteko zaintza-erantzukidetasuna sustatzeak?



2. BLOKEA | 06. UNITATEA

ENPRESA-ANTOLAKETA

Gizarteko desberdintasunak sistema kapitalistak eta patriarkalak zehazten dituzten gizarte-, ekonomia- eta genero-antolaketako arauen eta moten eraginez sortzen diren bezala, enpresetan ere antzeko zerbait gertatzen da. Enpresa nolakoa den, barneko botere-harremanak nola ezartzen dituen, gizartearekiko funtzioak, konpromisoa eta erantzukizuna nola ulertzen dituen, desberdintasunak areagotu egingo ditu edo desberdintasunei aurre egingo die tradizionalak ez diren estrategia eta helburuen bidez.

Unitate honetan, enpresa bat eratzeko moduak jorratzen dira, eta lehentasuna ematen zaie Ekonomia Sozial eta Solidarioaren arloan aritzen direnei, horiek berdintasunaren eta pertsonen gizarteratzearen eta inklusioaren alde egiten baitute, inolako diskriminaziorik gabe.

Helburua enpresa bat sortzeko eta sostengatzeko beste modu batzuen ezagutza sustatzea da, baina baita, forma juridikoa alde batera utzita, berdintasunaren aldeko zenbait ekintza sustatu behar direla jakitea ere.

LOMLOEren oinarrizko jakintzak	_ Enpresaren edo erakundearen misioa, ikuspegia eta balioak. Erakunde ekintzaileen antolaketa eta kudeaketa. Enpresaren funtzioak.
Eskuliburuko epigrafeak	_ Enpresa-motak (forma juridikoak) _ Forma juridikoa aukeratzea _ Enpresaren elementuak _ Enpresa-finantzaketa
Irakurketa kritikoarekin garatu beharreko trebetasunak	_ Balio sozialen eta forma juridikoaren arteko loturari buruz hausnartzea _ Enpresetan pertsonen duten garrantziari eta berdintasuna eta inolako diskriminaziorik eza sustatzeak duen garrantziari buruz hausnartzea _ Enpresen finantzaketaren etikari buruz hausnartzea.



ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 01

Enpresa-motak

#enpresak
#forma juridikoak

#ekonomia soziala
#Ekonomia Sozial eta Solidarioa

ZER DIO ESKULIBURUAK?

“Enpresa-motak, forma juridikoaren arabera”



IRAKURKETA KRITIKOA

Ikusi genuenez, zenbait enpresa-mota daude. Enpresa baten osaera eta formatua hartzen duen forma juridikoaren arabera izango dira. Forma juridikoak lege ezarrita daude, eta, nahiz eta ohikoenak eskuliburuan aipatzen direnak izan, badira beste batzuk, zenbait printzipioren arabera orientatuta daudenak.

[Espainiako Ekonomia Sozialaren](#) barruan zenbait forma juridiko daude, pertsonak eta berdintasunaren sustapena kapitalaren gainetik jartzen dituzten enpresa-erakundeak biltzen dituztenak:

■ **Kooperatibak (eskuliburuan badatoz):** helburu komun bat lortzeko ahaleginak biltzea erabakitzen duten pertsonen taldeak. Hainbat printzipiotan oinarrituta daude, hala nola elkartasuna, baterako lana, kudeaketa horizontala, bazkideen arteko berdintasuna, etab. Halaber, batzuk zenbait kausarekin identifika daitezke; kooperatiba feministak eta kooperatiba agroekologikoak, adibidez. Kooperatiba feministek genero-ikuspegia aplikatzen dute barneko lanean eta zainketen antolaketan, eta horrek, besteak beste, erakundean rol ikusezinenak eta lan erreproduktiboak baloratzea dakar.

■ **Lan-sozietateak:** forma juridiko honek enplegatuek enpresaren jabetzan eta kudeaketan parte hartu dezaten sustatzen du, horiek baitira entitatearen kapital sozialaren gehiengoaren jabeak.

■ **Mutualitateak:** borondatez afiliatzen diren kideez osatutako enpresa kolektiboak dira, kideei beraiei zerbitzu jakin batzuk eskaintzen dizkietenak. Zerbitzuak era askotakoak izan daitezke: osasuna, hezkuntza, ehorzketa, etab.

■ **Jarduera ekonomiko bat egiten duten fundazioak eta elkarteak:** ez dute irabazi indibidualik lortu nahi, eta, horregatik, irabazi-asmorik ez dutela ere esaten da. Hala ere, baliabideak eta zerbitzuak kudeatzen dituzte, baina guztien onerako. Sindikatuak, adibidez, halako elkarteak dira.

■ **Laneratzeko enpresak:** pertsona zaurgarriari lan-merkatuan sartzen laguntzeko sortuak.



BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

■ Gida Didaktiko honetan, “[Ekonomia Sozial eta Solidarioaren ikuspegian erroturiko ekintzailatza](#)” unitatea dator, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren printzipioak eta finantzaketa-iturri espezifikoak landu ahal izateko.



REFLEXIÓN PARA EL CAMBIO | 02

Forma juridikoa aukeratzea

#enpresa-kudeaketa #demokrazia enpresan #kooperatibak

QUÉ DICE EL MANUAL

“Akordio batera iristeko forma juridikorik zailena kooperatiba da. Izan ere, kooperatiba batean kooperatibista bakoitzak boto bat du, hark jarritako kapitala edozein izanda ere”

LECTURA CRÍTICA

Eskuliburutik ondorioztatzen den kooperatiben ikuspegia zuzentzea komeni da. Kooperatibetan erabakiak hartzeko modua demokratikoagoa da, eta horrek proiektuaz hobeto jabetzea eta erantzukizuna gehiago banatzea dakar. Era berean, demokratikoki hartutako erabakiek proiektuak aberasten dituzte, era askotako ikuspuntuak ematen direlako, eta pertsona gehiagoren interesak eta eskaerak ezagutzeko aukera dagoelako. Horrenbestez, akordio bat lortzea zailagoa izan daitekeen arren, prozesua bera askoz aberasgarriagoa da, eta proposamenak zuzentzen lagundu dezake, hasiera batean kontuan hartu ez ziren interesak eta eskaerak integratzeko.

Gainera, ohiko forma juridikoen aldean, egitura ez hain hierarkikoa eta demokratikoagoa izanik, errazagoa da emakumeek eta tradizioz diskriminatuta egon diren beste pertsona batzuek parte hartzea eta erabakiak hartzea.



REFLEXIÓN PARA EL CAMBIO | 03

Forma juridikoa aukeratzea

#enpresa-kudeaketa #demokrazia enpresan #kooperatibak

QUÉ DICE EL MANUAL

1. jarduera ebatzia.

Kooperatiba: Enpresa horietan, guztiek erabakitzeko ahalmen bera izatea da garrantzitsuena, eta mozkinak lortzea ez da garrantzitsua.

LECTURA CRÍTICA

Kooperatiba batean mozkinak lortzea garrantzitsua ez dela esatea okerra da. Kapitalaren gaineratik pertsonen lehentasuna ematek ezin da adierazpen hori ondorioztatatu. Enpresa guztiek bezala, kooperatiba batek ere mozkinak lortu behar ditu, funtzionatu eta aurrera egin ahal izateko.

Kooperatiben formatuari dagokionez, ez dago irabaziak pilatzeko soilik pentsatuta; aldiz, harreman hierarkikoak, agintea, lan-harremanak eta herritarren parte-hartzea ulertzeko modu alternatibo bat ere bada. Zeregin kolektibo eta solidario bat egitea da kontua, baina, hala ere, helburuak ekonomikoak izan daitezke. Helburu ekonomikoak estrategia eta forma parte-hartzaileago, sozialago eta berdintasunezkoagoen bidez lortzen saiatzen dira.

RECURSOS PEDAGÓGICOS

■ Emakumeen kooperatiben adibide bati buruzko bideoa ikustea eta hari buruz eztabaidatzea:

<https://www.youtube.com/watch?v=7KuoRAYQLbw>

<https://ecosfron.org/una-nueva-entrevistess-cooperativa-bailandera/>

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 04

Enpresaren elementuak

#taldeen kudeaketa
#genero-ekitatearen aldeko prozesuak

ZER DIO ESKULIBURUAK?

“Enpresaren elementuak: giza taldea, erakundea”



IRAKURKETA KRITIKOA

Enpresak ez dira neutroak izaten generoari dagokionez. Egia esan, gauzak egiteko moduek, erabakiak hartzeko moduek, ezartzen diren botere-harremanek, oinarri dituzten balioek eta sinesmenek eta eguneroko zereginekin lotutako gainerako elementuek, genero-harreman desberdinak erreproduzitzeaz gain, sortu ere sortzen dituzte. Beste diskriminazio-ardatz batzuetan oinarritutako harreman desberdinak ere egoten dira taldeko kideen artean, hala nola arrazan, jatorrian, erlijioan eta sexu- eta genero-orientazioan oinarritutakoak.

Harreman desberdin horiek eraldatzeko erreferenteak dira **genero-ekitatearen aldeko prozesuak** eta ezarritako aurreiritziak eta estereotipoak desikasteko aukera emango digun kulturartekotasuneko prestakuntza.



BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

■ Genero-ekitatearen aldeko prozesuak:

<https://ecosfron.org/proceso-hacia-la-igualdad-entre-mujeres-y-hombres-en-esf-erakundearen-aldeko-prozesuak>

■ Mugarik Gabe erakundearen genero-ekitatearen aldeko prozesuari buruzko kanpaina:

<https://www.youtube.com/watch?v=9PavlcY7SCK>

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 05

Enpresaren elementuak

#enpresa-kudeaketa
#enpresen moldaketa eta eraldaketa

#Ekonomia Sozial eta Solidarioa



ZER DIO ESKULIBURUAK?

“Enpresaren elementuak: ingurunea”



IRAKURKETA KRITIKOA

Enpresa baten ingurunea txertatzen den agertokiarekin lotuta dago. Eta agertoki bat komunitate eta herrialde horretan dauden arau eta legez, kultura eta ohitura sozialez eta baliabide naturalez osatuta dago, besteak beste.

Ekoizpen-dinamika kapitalistan, enpresek ez dute ingurunea aintzat hartzen, haren existentziak herritarrei lan-iturriak eta diru-sarrerak ekarriko dizkiela argudiatuz. Baina ezinbestekoa da ekoizpena eta ingurunea harmonian egotea. Inguruneak zeharkatu egiten ditu enpresaren barruko harremanak, eta, aldi berean, erregulatu egiten ditu. Kasu zehatz bat Espainiakoa eta emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko legeak dira.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45. artikuluan planteatzen denez, “enpresek lan-esparruan tratu- eta aukera-berdintasuna errespetatzeko betebeharra dute, eta, helburu horrekin, neurriak hartu beharko dituzte emakumeen eta gizonen artean lan-izaerako edozein bereizkeria-mota saihesteko; halako neurriak negoziatu beharko dituzte, eta, hala denean, akordatu, langileen lege-ordezkariekin, lan-legerian ezarritakoaren arabera”. Harrezkero, ondoz ondoko lege eta zuzentzauek printzipio hori garatzen jarraitzen dute enpresa-eremuan.

Aldi berean, gizarteak ere gero eta irismen handiagoa eskatzen du neurrietan, M8aren edo Zaintza Grebaren ondorioz egindako mobilizazioetan islatzen den bezala, eta enpresek badute aldarrikapen horien berri; beren inguruneak adierazten dituen beharretara ere egokitu behar dute, edo beren ingurunean sartuz joango diren aldaketen bultzatzaile izan behar dute. Adibidez, langileentzako kontziliazio-neurrietan hobekuntzak ezartzen dituen enpresa baten eraginez, harekin lotura duten beste enpresa batzuek ere (hornitzaileek, bezeroek, laguntzaileek...) gauza bera egin dezakete.

Ekonomia Sozial eta Solidarioaren sareko enpresentzat, ingurunea funtsezko elementu bat da, tokian tokiko sustraitzea ekonomia-mota horren printzipio eratzaileetako bat baita. Enpresa horiek ingurumen-, gizarte- eta genero-eragin positiboa izan nahi dute ingurunean, tokiko beste erakunde eta ekimen batzuekin lankidetzan arituz.

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 06

Enpresa-finantzaketa

#enpresa-finantzaketa #lan-eskubideak #Sozialki arduratsua den inbertsioa

ZER DIO ESKULIBURUAK?

“Enpresa-finantzaketa. Kosturik gabeko kanpo-baliabideak. Inbertitzaileak”

LECTURA CRÍTICA

Eskuliburuan azalduta dauden modalitate batzuetan ikusten da enpresek langileei kalte egin diezaieketen zenbait aldagairekin espekulatzen dutela; Funts Espontaneoekin, esaterako. Estrategia posible gisa akreditatuta dago, baina, hala ere, esan beharra dago soldaten ordainketak edo Estatuari egin beharreko zerga-zordunketak arriskatzean oinarritzen dela. Horrek garbi erakusten du kapitalismoak mozkinak lehenesten dituela lan-eskubideen eta zerga-betebeharren gainetik. Mugimendu horren bitartez espero diren emaitzak lortzen ez badira, egoera oso kaltegarria izan daiteke hileroko soldataren mende bizi direnentzat. Halaber, enpresaren testuinguruaren edo ingurunearen arabera, kaltearen maila desberdina izango da. Pobretutako lekuetan, desberdintasun handiko lekuetan eta babes sozialeko politika ahulak dituzten lekuetan, kaltea nabarmena izan daiteke diru-sarrera horien mende daudenentzat.

Informazio hori osatzeko, Sozialki Arduratsua den Inbertsioa eta Inpaktu Inbertsioa azaldu beharko lirateke, erabakiak hartzean ESG irizpideak bereziki kontuan hartzen dituztenak, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-irizpideak, besteak beste.

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 07

Enpresa-finantzaketa

#enpresa-finantzaketa #lan-eskubideak #Sozialki arduratsua den inbertsioa

ZER DIO ESKULIBURUAK?

“Enpresa-finantzaketa. Kosturik gabeko kanpo-baliabideak. Inbertitzaileak”

IRAKURKETA KRITIKOA

Eskuliburuan azalduta dauden modalitate batzuetan ikusten da enpresek langileei kalte egin diezaieketen zenbait aldagairekin espekulatzen dutela; Funts Espontaneoekin, esaterako. Estrategia posible gisa akreditatuta dago, baina, hala ere, esan beharra dago soldaten ordainketak edo Estatuari egin beharreko zerga-zordunketak arriskatzean oinarritzen dela. Horrek garbi erakusten du kapitalismoak mozkinak lehenesten dituela lan-eskubideen eta zerga-betebeharren gainetik. Mugimendu horren bitartez espero diren emaitzak lortzen ez badira, egoera oso kaltegarria izan daiteke hileroko soldataren mende bizi direnentzat. Halaber, enpresaren testuinguruaren edo ingurunearen arabera, kaltearen maila desberdina izango da. Pobretutako lekuetan, desberdintasun handiko lekuetan eta babes sozialeko politika ahulak dituzten lekuetan, kaltea nabarmena izan daiteke diru-sarrera horien mende daudenentzat.

Informazio hori osatzeko, Sozialki Arduratsua den Inbertsioa eta Inpaktu Inbertsioa azaldu beharko lirateke, erabakiak hartzean ESG irizpideak bereziki kontuan hartzen dituztenak, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-irizpideak, besteak beste.



ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 08

Enpresa-finantzaketa

#enpresa-finantzaketa
#mikrokredituak
 ZER DIO ESKULIBURUAK?

“Enpresa-finantzaketa. Kostua duten kanpo-baliabideak. Banku-baliabideak”



IRAKURKETA KRITIKOA

Informazio hori osatzeko, baliabide parabankarioak ere azaldu beharko lirateke; adibidez, mikrokredituak. Finantzaketa-iturri horiek protagonismo handia izan dute baliabide gutxiko ekintzaileen artean; emakumeen artean eta Hegoaldeko herrialdeetan, batez ere.

Baina kontuz ibili behar da lukuru-interesak ezartzen dituzten mikrokredituekin, baliabide gutxiko pertsonak gehiegizko zorren pean gelditzen baitira kreditu horiengatik. Mailegu horietan, azkenean, maileguz jasotako kapitala baino bi aldiz handiagoa edo gehiago itzuli behar izaten da askotan; ohiko finantza-sistema erabiltzeko aukerarik ez duten eta premia-egoeran dauden pertsonen aprobetxatzen dira.



BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

Mikrokredituei buruzko Finantzaz Haratago sarearen gidan jasotako jardueraren bat egitea iradokitzen dugu:

<https://finantzazharatago.org/wp-content/uploads/Guia-microfinanzas-completo-2.pdf>

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 09

Enpresa-finantzaketa

#enpresa-finantzaketa
#dirulaguntzak
 ZER DIO ESKULIBURUAK?

Enpresa-finantzaketa. Kostua duten kanpo-baliabideak. Baliabide publikoak



IRAKURKETA KRITIKOA

Ekonomia edo hari dagozkion alderdiak bultzatzeko, hala nola lan-munduekin lotutakoak, Estatuak politika publikoak ezartzen ditu. Politika publiko bat guztien ongia edo sektore jakin batzuen ongia lortzeko erabaki eta ekintza batzuen multzo bat da. Espainian sektore ekonomiko jakin bat aktibatze edo pertsona batzuen enplegarritasuna sustatzeko dirulaguntzak daude; emakume ekintzaileentzako edo enpresetan berdintasun Planak sortzeko eta ezartzeko laguntza eta dirulaguntza publikoak, besteak beste.

Baliabide publikoak herritarrek gizarteratzeko erabili behar dira, eta ez enpresen onura ekonomikorako. Ildo hori oso fina da, baina jakin egin behar da Estatuak dirua agente pribatu bati (enpresa bati, esaterako) ematen badio, diru hori herritarren mesederako erabili behar duela.



**Abierto plazo
para el programa
de apoyo a mujeres
del Plan de Recuperación**

R Plan de Recuperación,
Transformación
y Resiliencia

#PlanDeRecuperación

Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU



ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 10

Enpresen betebeharrak

#zergen balio soziala
#zerga-politika

 ZER DIO ESKULIBURUAK?

Zerga-betebeharrak.



IRAKURKETA KRITIKOA

Zerga-sistema modu garrantzitsu bat da Gobernuek aberastasuna birbanatu eta desorekak murriztu ahal izateko, generoarekin eta ekitate sozialarekin lotutakoak barne.

Ordaintzeko gaitasun handiena duten pertsonak egin beharko lituzkete zerga-ekarpen handienak, desberdintasunak murrizteko, diru-sarrerak eta aberastasuna birbanatzeko eta prestazio sozialen funtzionamendua ziurtatzeko. Era berean, zerbitzu publikoak behar bezala finantzatzeko behar adina diru-sarrera biltzeko ere balio beharko lukete zergek. Praktikan, hori ez da zehazki horrela izaten: multinazional handiek zergak ordaintzea saihestu ohi dute, eta lanaren bidez jasotako errentek kapitaletik datozen errentek baino askoz zerga handiagoak ordaintzen dituzte proportzioan. Horren ondorioz, desberdintasunak areagotu eta betikotu egiten dira, eta zerbitzu publikoen eta prestazio sozialen sistema hondatu egiten da.

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 11

Obligaciones de las empresas

#valor social de los impuestos
#política fiscal

 ZER DIO ESKULIBURUAK?

Enpresen betebeharrak.



IRAKURKETA KRITIKOA

Zerga progresibo bat ezarrita, herrialde bateko biztanleriaren ekonomia- eta soldata-desberdintasunak aitortzen dira. Baina, aitortzen al dira genero-, arraza- edo nazionalitate-desberdintasunak, adibidez?

Emakumeek –oro har– gizonezkoek baino soldata txikiagoa jasotzen dute, baina PFEZak ez ditu irizpide horiek kontuan hartzen; izan ere, distantziak klase sozialek eragindakoak soilik direla jotzen da, eta eguneroko errealitatearekin eta soldatekin lotutako beste batzuk kanpoan uzten dira, hala nola genero-desberdintasunak eta arraza-desberdintasunak.

Espainian PFEZaren baterako tributazioa dago, diru-sarrerarik gabeko kide bat duten familia-unitateentzat mesedegarria. Baina horrek genero-eragin negatiboa izan dezake, emakumeek, hala, estimulurik ez baitute lan egiteko, eta etxeko lanen eta zainketen eremuan jarraitzen baitute.

Genero-ikuspegitik begiratuta, PFEZ progresiboa berdintasunez egitea genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak ordaintzetik denbora jakin batez salbuestea da. Hau da, onartu egin behar da zer zailtasun dituzten emakumeek sistema patriarkalaren ondorioz, kalte- eta arrisku-dinamika lotesleetan kokatzen baititu; eta dinamika horiek eragina dute emakumeen laneratzean, diru-sarreretan, finantza-egonkortasunean oro har, eta, horrenbestez, zerga bat modu sistematikoan ordaintzeko aukeran.

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 12

Enpresen betebeharrak

#zergen balio soziala
#zerga-politika

ZER DIO ESKULIBURUAK?

“Jarduerak:

15. Zure ustez, gizarte demokratikoetan zergatik da PFEZaren ehunekoa progresiboa?”




IRAKURKETA KRITIKOA

Zerga progresibo bat ezarrita, herrialde bateko biztanleriaren ekonomia- eta soldata-desberdintasunak aitortzen dira. Baina, aitortzen al dira genero-, arraza- edo nazionalitate-desberdintasunak, adibidez?

Emakumeek –oro har– gizonezkoek baino soldata txikiagoa jasotzen dute, baina PFEZak ez ditu irizpide horiek kontuan hartzen; izan ere, distantziak klase sozialek eragindakoak soilik direla jotzen da, eta eguneroko errealitatearekin eta soldatekin lotutako beste batzuk kanpoan uzten dira, hala nola genero-desberdintasunak eta arraza-desberdintasunak.

Espainian PFEZaren baterako tributazioa dago, diru-sarrerarik gabeko kide bat duten familia-unitateentzat mesedegarria. Baina horrek genero-eragin negatiboa izan dezake, emakumeek, hala, estimulurik ez baitute lan egiteko, eta etxeko lanen eta zainketen eremuan jarraitzen baitute.

Genero-ikuspegitik begiratuta, PFEZ progresiboa berdintasunez egitea genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak ordaintzetik denbora jakin batez salbuestea da. Hau da, onartu egin behar da zer zailtasun dituzten emakumeek sistema patriarkalaren ondorioz, kalte- eta arrisku-dinamika lotesleetan kokatzen baititu; eta dinamika horiek eragina dute emakumeen laneratzean, diru-sarreretan, finantza-egonkortasunean oro har, eta, horrenbestez, zerga bat modu sistematikoan ordaintzeko aukeran.



2. BLOKEA | 07. UNITATEA

GIZARTE- , INGURUMEN- ETA KULTURA-INGURUNEA

Unitate honetan lantzen da nola eragiten duen enpresak ingurunean, berdintasuna eta gizarte- eta ingurumen-jasangarritasuna bultzatzeko.

Enpresaren interesen eta inguruko behar, eskari eta dinamiken arteko oreka funtsezkoa da harreman ekonomikoa alde guztientzat oparoa izan dadin; hots, onurak enpresak nahiz pertsonak eta komunitateek jaso ditzaten. Enpresek komunitateei emandako laguntza oinarritzkoa da, bai eta NBEk 2030erako ezarritako helburu globalekiko errespetua eta lankidetzaren ere, garapen jasagarria ahalbidetzen baitute (GJH).

Enpresek haiekin bat egin behar dute, bai praktiken bidez, bai Erantzukizun Sozial Korporatibotik eratorritako ekimenen bidez. Horrela, enpresaren eta ingurunearen arteko harmonia eta enpresek giza eskubideak errespetatzea zein garrantzitsuak diren kontuan izan behar da, genero-, belaunaldi- eta arraza-justizia lortzera bideratutako enpresa-praktika onak identifikatzen ikasteko.

LOMLOEren oinarritzko jakintzak	– Gizarte-, ingurumen- eta kultura-ingurunea ikuspegi ekonomikotik. Lankidetzaren ekonomia. Garapen Jasagarriko Helburuak (GJH) eta tokiko garapena.
Eskuliburuko epigrafeak	– Gure bizimoduaren jasagarritasuna – Demografia, teknologia eta globalizazioa – GJHak – Edukitzearen pentsaeratik partekatzearen pentsaerara igarotzea: Lankidetzaren Ekonomia.
Irakurketa kritikoarekin garatu beharreko trebetasunak	– Ekonomia kapitalistaren globalizazioari eta horrek planetarentzat eta pertsonentzat dakarren iraunkortasunik ezari buruz hausnartzea – GJHak lortzeko moduak pentsatzea – Partekatzeari eta ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko modu berriei buruz hausnartzea.



ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 01

Demografia, teknologia eta globalizazioa

#jasangarritasuna
#ekofeminismoa

#garapena

ZER DIO ESKULIBURUAK?

Demografia, teknologia eta globalizazioa.



IRAKURKETA KRITIKOA

Epigrafean ingurumenari buruzko gaiak jorratzen badira ere, jasangarritasunak gai sozialekin eta giza eskubideekin ere lotuta egon behar du.

Munduko biztanleriaren karakterizazioa sexuaren arabera banaketaren bidez eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunen adierazle nagusien bidez osa daiteke.

Halaber, oso egokialitzateke ekofeminismoa zer den azaltzea: pentsamendu-korrante bat eta mugimendu sozial bat da, mugimendu ekologistak eta feministak bat egiteak pertsonen arteko eta pertsonen eta naturaren arteko harremanak birpentsatzeko eta berreraikitzeak aukera ematen duela defendatzen duena, giza bizitzari eusten dioten oinarri materialak arriskuan jarri gabe.

Eskuliburuan azaldutakoaren aurka, demografiari, globalizazioaren efektuei eta ereduaren iraunkortasunari buruzko mundu-mailako adierazleak oso kezagarriak dira. Mundua gainpopulatuta dago, baina biztanleriaren hazkundeak ez da berdina leku guztietan. Herrialde aberatsetan ugalkortasun-tasa txikia da, eta pobreetan, berriz, gero eta handiagoa. Munduan pobrezia-egoeran bizi den biztanleriak gora egiten du produkzio-sistema kapitalista baten esparruan. Horrek esan nahi du ez dagoela gizarteratzeko aukerarik guztientzat. Eta horrek argi erakusten du ereduak ez dela jasangarria, ezta iraunkorra ere, ondorio globalen arabera.

Globalizazioa onuragarria izan da mundu konektatuago, bizkorrago eta erlazionatuago bat lortzeko, baina tokikotasunaren ideia eta lurralde- eta komunitate-ekimenak nahiz ekimen kolektiboak zapuztu egin ditu. Halaber, globalizazioaren ondorioz, baliabideak eta pertsonak esplotatu egin dira munduan zehar, pertsona gutxi-gutxi batzuen (%1) mesedetan. Naturaren zerbitzura egon beharrean, teknologiak eraso egin dio naturari, eta arriskuan jarri du. Eta horren ondorioak izugarri larriak dira; berotze globala, esate baterako.

Eskuliburuak kontzeptu horien begirada hegemonikoa legitimatzen du, baina kritika etengabea eta sakona egin behar zaie ekonomiako prestakuntzaren hasieratik.

Dena den, aldi berean, globalizazioan eta teknologian oinarritutako zenbait fenomenok

berdintasun handiagoa eragin dute. Teknologiaren masifikazioaren eta informazioaren eta globalizazioaren beste elementu batzuen biralizazioaren ondorioz agerian jarri ahal izan dira zenbait arazo; adibidez, mundu-mailako manifestazio feministen ikusgarritasuna, jazarpen eta genero-indarkeria desberdinen salaketak, estatuek migratzaileei egindako jazarpena eta harrapaketa.



[Pixabay](#) | [Paco Nieto](#) erabiltzailearen argazkia

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 02

Garapen Jasangarrirako Helburuak

#jasangarritasuna #garapena #ekofeminismoa #ekonomia zirkularra

ZER DIO ESKULIBURUAK?

Garapen Jasangarrirako Helburuak.

IRAKURKETA KRITIKOA

Nazioarteko komunitateak, Nazio Batuen Erakundearen bidez, 2030 Agenda onartu zuen 2015ean, egungo garapen-ereduaren jasangarritasunik eza lehengoratzeko. Agenda horretan, herrialdeek 2030erako lortu beharreko helburu batzuk ezartzen dira, GJH izenekoak. Helburu horien artean genero-berdintasuna dago, egungo garapenaren jasangarritasuna lortzeko beharrezkotzat jotzen dena. GJH horiek egungo problematiken zeharkako izaeraren berri ematen duen mapa bat eskaintzen duten arren, egia da, halaber, irtenbideak eskaintzen dituela, sortu dituen sistematik atera gabe, hazkunde ekonomiko jarraituaren ideian oinarrituta, aurrerapen-iturri gisa. Desazkundera eta bizitze ona mugimenduak, adibidez, hazkunde jarraituan oinarritzen ez diren, eta, beraz, jasangarriak izan daitezkeen garapen-ereduak proposatzen ditu.

Helburu horiek lortu ahal izateko, beharrezkoa da mundu sozial, ekonomiko, politiko eta kulturalaren zer eredu dugun eta hori nola lehengoratu daitekeen aztertzea eta horri buruz hausnartzea. Horretarako, funtsezkoa da helburu horiei buruz lehen ikusi ditugun ikuspegi berrietan oinarrituta pentsatzea: ekofeminismoa, ekonomia zirkularra, giza eskubideak, etab.

BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

<https://ecosfron.org/el-ecofeminismo-como-alternativa-de-los-territorios-erosionados-por-el-capitalismo-por-sarai-pando/>
<https://ecosfron.org/de-que-hablamos-cuando-hablamos-de-una-transicion-ecosocial-justa-2/>
<https://ecosfron.org/ecofeminismo-para-otra-economia-por-mariagiulia-costanzo-talarico/>
[Los objetivos del Buen Vivir.](#)

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 03

Jasangarritasun-ziurtagiriak

#greenwashing, pinkwashing #markaren balioa

ZER DIO ESKULIBURUAK?

Jasangarritasun-ziurtagiriak.

IRAKURKETA KRITIKOA

Estatuak eta horretarako legitimatuta dauden eragileek zenbait ziurtagiri ematen dituzte, berdintasunezko eta eskubideen aldeko jardunbide jasangarri egokiak baliozkotzat jotzen dituztenak.

“Berdintasuna enpresan” bereizgarriak Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioaren bidez edo Emakunderen bidez eska daitezke.

AENORek “Aniztasunean lagundu” izeneko plataforma bat garatu du, eta bertan bi ziurtagiri-eredu eskaintzen ditu: Genero Berdintasunerako AENOR Eredua eta Ordainsari Berdintasuna Kudeatzeko AENOR Eredua.

Kontsumitzaile gisa, garrantzitsua da alderdi horiek aintzat hartzea, ziurtagiri bat lortzen duenak konpromiso handiagoa erakusten baitu berdintasunezko mundu jasangarri batekiko.

Hala ere, enpresek, batzuetan, manipulatu egiten dituzte praktika horiek. Eskainitako produktu eta zerbitzuen eta kausa sozial edo ekologikoen arteko zenbait lotura aipatzen dira, baina askotan ez dituzte betetzen ziurtagiri bat edo beste bat lortzeko eskatzen diren parametroak.

Adibidez, Bio, Eko, Began eta antzeko beste termino batzuk dituzten zigiluak edo publizitatea jartzen dituzte, baina, egia esan, kimikoetan, animalietan eta abarretan oinarritutako produktuak izaten dira. Hori marketin-estrategia bat baino ez da, greenwashing esaten zaiona, eta ez ditu bermatzen saldutako produktuaren kalitatea eta egiazkotasuna.

2. FITXA. JARDUERAK

Ekonomia ona garai zailetarako

» EDUKIAK

Ekonomia arduratsua, ESK (Erantzukizun Sozial Korporatiboa), Giza Eskubideak enpresa-ingurunean, banka etikoa eta ESKrekin integrazioa.



■ Ikaskuntza-helburuak:

- _ Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren kontzeptua eta enpresaren testuinguruan duen garrantzia ulertzea.
- _ Publizitateak estereotipoen eraikuntzan nola eragin dezakeen eta zein modutan genero indarkeria sustatzen duen aztertzea.
- _ Enpresek giza eskubideen sustapenean eta babesean duten zeregina aztertzea.
- _ Banku etikoaren printzipioak eta ESKrekiko duen harremana ebaluatzea.
- _ Ekintzailatza etiko eta arduratsuari buruzko pentsamendu kritikoa sustatzea.



■ Garapen Iraunkorreko Helburuak:

- **5. GIH:** Genero berdintasuna.
- **8. GIH:** Lan duina eta hazkunde ekonomikoa.
- **10. GIH:** Desberdintasunak murriztea.
- **12. GIH:** Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak.
- **16. GIH:** Bakea, justizia eta erakunde sendoak.

Hurrengo jarduerak ekonomia arduratsuen eta ekintzailatza etikoaren kontzeptuak azaltzen dituzte, eta genero berdintasunaren, giza eskubideen eta merkataritza praktika jasangarrien garrantzia nabarmentzen dute. Horretarako, hainbat irakurketa, eztabaida eta hausnarketa egingo dira, Mugarik Gabeko Ekonomialariak-ek emandako material didaktikoak erabiliz.

Gutxi gora beherako iraupena: 150 minutu



1_ Ekonomia ona garai zailetarako

■ **BALIABIDEA:** Esther Duflori buruzko artikulua eta ekonomian duen eragina ikuspegi feministatik. [ESTHER DUFLO – Mugarik Gabeko Ekonomialariak \(ecosfron.org\)](https://ecosfron.org/esther-duflo-mugarik-gabeko-ekonomialariak)

■ **IRAUPENA:** 30 minutu.

■ DESKRIBAPENA:

Irakurketa egin ondoren, ikasgelan eztabaida bat egingo da, ideiak trukatzeko eta gogoetak partekatzeko. Eztabaida bideratzeko galdera batzuk:

- _ Zergatik uste duzu pertsona askok ideia okerra dutela etorkin kopuruaren inguruan eta haien eraginari buruz ekonomian?
- _ Zure ustez, beste leku batzuetako pertsonak hartzen dituzten herrialdeentzat, inmigrazioa zerbait positiboa edo negatiboa da? Zergatik?
- _ Zure ustez, zer oztopo egon daitzeke bidezkoagoa izango den eta pertsonak gehiago zainduko dituen ekonomia bat sortzeko?
- _ Uste al duzu pertsonak migratzeko eskubidea dutela?

■ **METODOLOGIA:** Irakurketa indibiduala eta eztabaida.

2_ Hartu beharreko neurriak: enpresa, finantzak eta kontsumoa

■ **BALIABIDEA:** Gida Didaktikoaren “Enpresa eta giza eskubideak” unitate didaktikoa. Informazio osoa dokumentu honetan. 2. saioa. [02_Unitate Didaktikoa_01.pdf \(ecosfron.org\)](https://ecosfron.org/02-unitate-didaktikoa-01.pdf).

■ **IRAUPENA:** 60 minutu.

■ DESKRIBAPENA:

Maila indibidualean zein kolektiboan, enpresa eta finantza erakundeetatik giza eskubideen oinarrian egin daitezkeen praktikak aztertzea, ekonomia bidezkoago eta solidarioago baterantz joateko.

Saioak egitura honako hau izango du:

» **Ongietorria,** saioan egin beharreko lana aurkeztuko da | **5 minutu.**

» **Dinamika:**

dinamikan funtsezko hiru kontzeptu hartuko dira erreferentzia bezala (Gizarte Erantzukizun Korporatiboa, Banka Etikoa eta Kontsumo Arduratsua) eta, aldi berean, hiru eragile mota ere bai (enpresa bat; finantza erakunde bat; eta kontsumitzaileen elkarte bat). Helburua role-play bat egitea da, hiru eragileen artean harreman arduratsua ezartzeko.

» **Itxiera**, non saioan landutakoa laburbilduko den eta hurrengoan landu beharreko edukia aurkeztuko den | **5 mi.**

■ **METODOLOGIA:** Rolen dinamika eta talde-eztabaida.

— **Sarrera:** Dinamika eta helburua azaldu. Sarrera labur bat egingo da enpresek pertsonen eta ingurumenari nola eragiten dieten azaltzeko, bai eta kontsumitzaile, inbertitzaile eta enpresa gisa modu arduratsuan eta kontzientean jokatzaren garrantziaz hitz egiteko ere, ekonomia bidezkoagoa eta jasangarriagoa sustatzeko. **(5 minutu).**

— **Taldeka banatzea eta rolak izendatzea:** Ikasleak hiru taldetan banatzen dira, eta talde bakoitzari rol desberdin bat esleitzen zaio **(5 minutu):**

- **1 Taldea:** Gizartearen eta ingurumenaren aldetik erantzule izan nahi duen ETE bateko kudeatzaileak, adibidez (Erantzukizun Sozial Korporatiboa).
- **2 Taldea:** Kontsumo arduratsu batetik jardun nahi duen kontsumitzaileen elkarte da.
- **3 Taldea:** Banku-erakunde bateko gerente-talde bat da, banku etikoaren printzipioen arabera lan egin nahi duena.

3_ Ekonomia eta balibaideak birpentsatzen■ **BALIABIDEA:**

“Kafea eta ogi txigortua tomatearekin” ipuina. [Ekonomiaren kontuak – Mugarik Gabeko Ekonomialariak \(ecosfron.org\)](#).

■ **IRAUPENA:** 60 minutu.

■ **DESKRIBAPENA:** Ipuina irakurritz, ikasleek baliabideen mugaketari buruzko gogoeta eta azterketa egingo dute, ekonomiak baliabide naturaletan duen eraginari buruz, hala nola ustiapenean, kutsaduran, basamortutzean eta abarretan. Gainera, ekonomia ulertzeko beste modu batera hurbilduko gara: deshazkunderaa.

■ **METODOLOGIA:** Irakurketa indibiduala eta eztabaida.

— Baliabide mugatuak dituen planeta batean ekonomiak betiko hazten jarrai dezakeela uste duzu?

— Zer esan nahi du “beherapenak”? Uste duzu posible dela ondo bizitzea enpresak eta herrialdeak denbora guztian ekonomikoki hazi gabe?

— Nola alda genitzake gure ohiturak edo ekoizteko moduak baliabide naturalak agortu ez ditzagun?

Metodologia:

Irakurketa indibiduala eta eztabaida.

- Baliabide mugatuak dituen planeta batean ekonomiak betiko hazten jarrai dezakeela uste duzu?
- Zer esan nahi du “beherapenak”? Uste duzu posible dela ondo bizitzea enpresak eta herrialdeak denbora guztian ekonomikoki hazi gabe?
- Nola alda genitzake gure ohiturak edo ekoizteko moduak baliabide naturalak agortu ez ditzagun?

Ebaluazioa:

- Eztabaidetan eta eztabaidetan parte hartzea behatzea.
- Bideoari buruzko gogoeta idatziak.

Beharrezko materialak:

- “Ekonomia arduratsu, bidezko eta solidario batera aurrera” gida didaktikoa.
- Erantzukizun Sozial Korporatiboari eta giza eskubideei buruzko artikuluak eta bideoak.
- Jarduera misto horrek aukera ematen die ikasleei enpresa-kontzeptuak ikuspegi feministatik aztertzeke eta ulertzeke, hainbat ikaskuntza-metodo erabiliz, hala nola irakurketa, eztabaida, esplorazio interaktiboa eta hausnarketa.



3. Blokea

3. BLOKEA | 08. UNITATEA

EKINTZAILETZA

Ekintzailetak eragin positiboa izan dezake gizartean eta ingurumenean, eta gizartea eraldatzeko tresna bat izan daiteke, gauzatzeko moduaren arabera. Ikusi dugunez, garapen makroekonomikoaren ereduak desberdintasunak eta krisi ekologikoa sortzen eta areagotzen ditu. Baina ikuspegi feminista eta dekolonial batetik bultzatutako ekintzailetza modu egoki bat izan daiteke harremanak eraldatzeko, gure jardueren inpaktua zaintzeko eta gizarte- eta ingurumen-justizia tokian-tokian babesten duten sare komunitarioak sortzeko. Horregatik, hemen ikusiko dugun bezala, irabaziak sortzeaz gain, gizartea eraldatzeko ere baliagarria da.

Horrela ulertutako ekintzailetza Ekonomia Sozial eta Solidarioaren balio eta printzipioetan oinarrituta egituratu behar da, harreman ekonomikoak eta ekintzaileak merkatuan izan dezakeen lekua beste era batera ulertuta, lankidetzaren proiektuen bidez berdintasuneko harremanak sortzeko eta natura zaintzeko.

Baina hona hemen ekintzailetzarekin lotutako arazo bat: batzuetan, pertsona bakoitza bere lan-egoeraren erantzule bakar egiteko tresna gisa erabiltzen da; “nahi izanez gero, gai izango zara” adierazi, eta desberdintasun-egoera batean bizi garela ahazten da.



LOMLOEren oinarrizko jakintzak	— Ekintzailearen profila. Autokonfiantza, autoezagutza, enpatia, pertseberantzia, ekimena eta erresilientzia. Ahultasunak eta indarguneak diagnostikatzeko teknikak. — Emozioak kudeatzea. Ziurgabetasuna kudeatzeko eta testuinguru aldakorretan erabakiak hartzeko estrategiak. Errorea eta baliozkotzea ikasteko aukera gisa. — Ikuspegi ekintzailea.
Eskuliburuko epigrafeak	— Ekintzailetza eta motibazioa — Zeure burua ezagutzea — Ekintzailea — Ekintzailearen arrakasta eta porrota
Irakurketa kritikoarekin garatu beharreko trebetasunak	— Ekintzailetak ekartzen dituen elementu bereizgarri sozialei buruz hausnartzea — Desberdintasunaren eta ekintzailetza eraldatzailearen arteko loturari buruz hausnartzea

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 01

Ekitea egitea da

#ekintzailearen profila
#aniztasuna eta inklusioa

#genero- eta gizarte-desberdintasuna
#lankidetzatza-ekintzailatzatza
#ekiteko baldintzak

ZER DIO ESKULIBURUAK?

Ekiteak ekimena eta lana eskatzen dituen, zailtasunak eta ziurgabetasuna dituen eta zure bizitza eta besteena aldatuko dituen proiektu, negozio edo asmo bat pentsatzea eta gauzatzea esan nahi du..



IRAKURKETA KRITIKOA

Ekitea ez da soilik enpresa-arloan negozio bat abian jartzea; pertsonen bizitza, komunitate baten bizitza, auzo baten bizitza, ingurumena edo bururatzen zaizun beste edozer hobetuko duen ideia edo proiektu bat ere izan daiteke. Demagun arazoren bat hautematen duzula zure ikastetxean, auzoan, hirian edo herrian.

Ekintzailatzari buruzko ikuspegi desberdinak daude, eta zalantzan jartzen da nori egiten dion benetan mesede. Batzuen ustez, lan egiteko modu libreago bat da, bai eta modu sortzaile bat ere. Beste zenbaiten iritziz, pertsonak enplegatzen dirurik ez gastatzeko egiten da.

Ekintzailatzatza lan egiteko modu libreago gisa sustatzen denean, gai batzuk jakintzat jotzen dira. Adibidez, mugikor bat, ordenagailu bat eta Internet bakarrik erabiliz ekin daitekeela uste da. Garai hauetan, ziurtzat jotzen dugu egoera hori ohikoa dela eta planetan hedatuta dagoela, eta ez da horrela. Gutxieneko kapital ekonomiko bat eduki behar da mugikorra, ordenagailua eta/edo Internet izateko (Interneten kasuan, gainera, hilerio ordaindu behar da). Horrez gain, ezagutza ere behar da; hots, gailu horiek edo programa espezifiko batzuk nola erabili ere jakin behar da. Lehen, genero-arrakala digitala aipatu genuen, esate baterako.

Halaber, ekintzailatzatza teknologikotik aparte beste mota batzuetako ekintzailatzak daudela nabarmendu behar da; Afrikako, Asiako, Latinoamerikako eta Europako herrialdeetako pertsona asko ekintzaile handiak dira, nahiz eta bat ez etorri ekintzaile teknologikoaren irudi hegemonikoarekin.

Ekintzailatzatza zentzu kolektibo solidario eta inklusibo batean ere erabil daiteke, kontrakoa bultzatzen duen sistema kapitalista baten esparruan. Ekintzailatzatza-kulturari alderdi hauek kontuan hartzen dituen ikuspegia lotu behar zaio: ekiteko baldintzen aniztasuna eta baldintza horien eskuragarritasun desberdina, eta kolektiboki edo lankidetzatza-ikuspegitik ekitearen abantailak.



BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

■ Unitate didaktikoa: [Ekonomia Sozial eta Solidarioaren ikuspegian erroturiko ekintzailatzatza](#).

Unitate hau ordubeteko 3 saiotan egituratuta dago:

1_ Ekonomia bizitzaren zerbitzura jartzearen alde. Ekonomia ulertzeko eta praktikatzeko beste era batzuk aurkeztea du helburu.

2_ Ekonomia Sozial eta Solidarioaren praktika. Beste enpresa-eredu batzuen inguruan lan egitera bideratuta dago. Ikasleek Ekonomia.



ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 02

Ekitea egitea da

#ekintzailearen profila #genero- eta gizarte- desberdintasuna #lan- kidetza- ekintzailletza
#aniztasuna eta inklusioa #ekiteko baldintzak

ZER DIO ESKULIBURUAK?

Zure motibazioa zure esku ere badago.

IRAKURKETA KRITIKOA

Proiektu edo negozio bati ekitera eramaten gaituzten ideia horiek gure motibazioetatik sortzen dira.

? Benetan uste al duzu zure motibazioa zure esku soilik dagoela?

A priori ideia ahalduntzailea izan daiteke gure patuaren gaineko kontrola dugula uste izatea. Baina gogoan izan behar da adierazpen horretan ez direla kontuan hartzen pertsona batengan eragina duten botere-egiturak eta gizarte-baldintzak, ez eta pertsona horrek motibatze eta helburu batzuk lortzeko duen gaitasuna ere.

? Zure ustez, zein dira zure motibazioan eragina duten gauzak?

Emakumeek ekiteko izaten dituzten motibazioak, askotan, genero-diskriminazioagatik eta/edo zainketekin eta etxeko lanekin oso kargatuta egoteagatik lan-mundura sartzeko dituzten oztopoekin lotuta egoten dira. Seme-alabak dituen emakume batentzat etxetik kanpo eta ordutegi finkoarekin lan egitea, adibidez, arazo bat izan daiteke. Izan ere, hala, lanaldi bikoitza izenekoa egin behar du: etxetik kanpo egin behar du lan, bai eta etxe barruan ere, eta, azken hori, gainera, ordainsaririk gabe. Horregatik, ekintzailletza diru-sarrerak lortzeko modu bat da, eta emakumeen kasuan, bi alde ditu. Alde positiboa diru-sarrera propioak lortzeko aukera da; alde negatiboa, berriz, ekintzailletzak genero-desberdintasunei eusten laguntzen duela, emakumeak moldatu egiten baitira lan egiteko eta aldi berean zaintzeko. Eta, hala, iskin egiten zaio gizonen eta emakumeen arteko erantzukidetasunari buruzko beharrezko eztabaidari. Emakume batek, esate baterako, haur bat zaindu, eta, aldi berean, arropa online sal dezake etxetik. Hori, printzipioz, onura bat da emakumearentzat, bi zereginak egin baititzake. Dena den, zaintzak bere gain jarraitzen du, eta ez da inongo aldaketarik gertatzen, zeregin hori, denbora batean, gutxienez, alde batera utzi ahal izateko. Hori ez da kontziliatzea; lan-merkatu formalaren edo informalaren barruan egotea, eta, aldi berean, zaintzeko agindua betetzen jarraitzeko modu bat

da. Ekintzailletza-jarduera etxetik kanpo kokatuko balitz, zaintza oztopo bat izango litzateke proiektu ekintzailea garatzeko.

Beste emakume batzuek are oztopo gehiago dituzte lan-munduan, eta ekintzailletza irtenbide bat da, diru-sarrerarik ezaren egoera arintzeko eta lan-munduan sartu ahal izateko. Emakume migratzaileek, trans emakumeek, emakume arrazializatuak, pobrezia-egoeran dauden emakumeek, emakume ijitoek, besteak beste, ekintzailletzaren bidea hartzen dute, lan formalaren munduan baztertu egiten dituztelako gehienetan. Kasu horietan, ekintzailletza oinarritzko beharrak betetzeko bidea dela esan daiteke, eta ez askeagoak izateko egindako hautaketa. Horrela, ekintzailletza biziraupenerako baliabide ekonomikoak lortzeko eta/edo dakitena eta motibatzen dituen egin ahal izateko estrategiak aurkitzeko modu bihurtzen da. Baita beren ezagutzak eta esperientzia praktikan jartzeko, beste lanbide batzuk ikasteko edo bizi-testuinguruetan nor bere burua berrasmatzeko modu ere. Euskadin, hori da emakume migratzaile askoren kasua. Izan ere, lan-merkatuan, etxeko langile gisa aritzeko aukera baino ez dute izaten ia-ia, eta ekintzailletzaren bidez garapen profesionalerako beste aukera batzuk izan ditzakete.

Motibazioa pertsonaren mende bakarrik dagoela esan beharrean, askoz hobe litzateke esatea motibazioa prozesu interdependentea dela, faktore indibidualek eragiten dutela, baina baita faktore kolektiboek eta testuinguruko faktoreek ere. Hori onartuta argi ulertuko dugu, pertsonak motibatuta egon daitezen, baldintza bidezkoak eta ekitatiboak sortu behar direla, guztiek beharrezko baliabideak, laguntza eta aukerak eskura izateko.

Beraz, motibazioa baldintzatuta dago, eta ezin da nahi edo gogora mugatu. Aldiz, baldintza batzuk behar ditu bideratzeko: dirua, denbora, lan-intsumoak, ezagutza, autoestimua, etab.

BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

■ Entzun podcastak, eta, gero, eztabaidatu:

[Podcast de mujeres migrantes, sus historias de viaje y de vida y su realidad social](#)

■ Casos de mujeres emprendedoras, sus motivaciones y su historia:

[Emprendiendo la Luz](#)

Proyecto realizado por Naroa Ríos y Ainara Pérez.

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 03

Ekitea egitea da

#lankidetzak-ekintzailatza #ekiteko baldintzak #genero- eta gizarte-desberdintasuna

ZER DIO ESKULIBURUAK?

Indarguneak entrenatu egiten dira, eta ahultasunak, gainditu.



IRAKURKETA KRITIKOA

Inor ez da bakarrik mugitzen; inork ez du aurrera bakarrik egiten, ezta gauzak bakarrik lortzen ere. Pertsona bakoitzaren indarguneak ez dira banaka garatzen; gure harremanen eta elkarrekintzen eragin sakona dute, hala nola familiako, auzoko eta gizarte harremanen eta elkarrekintzen eragina.

Askotan uste dugu pertsona baten edo pertsona-talde baten ahultasunak pertsona edo talde jakin horren zerbaite indibiduala edo bereizgarria direla; baina, ahultasun horiek, benetan, baliabideak, aukerak eta laguntza eskura ez izatearekin lotuta daude. Aipatu dugun bezala, gizon edo emakume izateak sozializazio-prozesu bereiziak dakartza, eta prozesu horietan, batzuentzat positibotzat jotzen dena besteentzat ez da hala, eta horrek izugarritzko eragina du pertsonengan, sexuaren arabera.

Indargune edo ahultasun kontzeptuak ere genero-joera du, modu desberdinean ulertzen baitute batzuek eta besteek. Adibidez, lidergoa ez da berdín ulertzen ikuspegi maskulino batetik eta ikuspegi femenino batetik.

Pertsona guztiok ditugu indarguneak, baina denok ez ditugu horiek hobetzeko, hedatzeko eta praktikan jartzeko aukera berberak. Halaber, indarguneak askotarikoak dira. Eta ez dugu produkzio- edo lehiaketa-trebetasunetan soilik zentratu behar; zaintzeko, enpatia sentitzeko, lankidetzan aritzeko eta abarretarako gaitasunetan ere jarri behar dugu arreta.



BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

■ Herritarren protesta Uruguain, edateko uraren krisian Gobernuak egindako kudeaketatik:

[Protesta Uruguain. Edateko uraren krisia](#)

■ Komunitate indigenen eskubideei eta haien espetxeratzeari buruz Milagro Salak egindako dokumentalaren trailerra:

[Milagro Salaren dokumentalaren trailerra](#)



ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 04

Ekintzailea

#ekintzailatza soziala versus Ekonomia Sozial eta Solidarioko ekintzailatza

ZER DIO ESKULIBURUAK?

Ikusi dugun bezala, ekiteak zure errealitatea eta besteena aldatuko duen zerbait berria sortzeko zeregin bat betetzea esan nahi du. Horrenbestez, zentzu zabalean, dantzan ikastea, blog bat idaztea edo negozio bat martxan jartzea erabakitzen duzunean, ekiten ari zara. Hala ere, hemendik aurrera, ekintzailatzaren bi modu espezifiko hauetan zentratuko gara: ekintzailatza soziala eta enpresa-ekintzailatza.

IRAKURKETA KRITIKOA

Ekintzailatza sozial esaten zaie pertsona guztien edo kolektibo espezifikoaren bizi-kalitatea hobetzea helburu dutenei. Adibidez, baratze komunitarioak: komunitate batzuetan, berdurak eta barazkiak denen artean landatzen eta biltzen dituzte, agrokimikorik gabe jateko, eta landaketari dagozkion kostuak baino ordaindu behar ez izateko. Helburu sozialak eta kolektiboak dituen ekintzailatza da. Era berean, gizarte osoari on egiten dioten banakako ekintzailatza sozialak egon daitezke; esate baterako, etxerik gabeko txakur eta katuentzako janaria bildu, eta animalia horiek animalien babeslekuetara eramaten dituzten pertsonak. Eragin sozialeko ekintza indibiduala da.

Oso garrantzitsua da ekintzailatza sozial horiek azaltzea, eta **Ekonomia Sozial eta Solidarioko ekintzailatzetatik bereiztea**. Azken horiek balio-karta bati jarraitzen dioten eta eguneroko zereginetan (ez soilik erakundearen helburu sozialean) genero-, gizarte- eta ingurumen-eragina transbertsalizatzen duten ekintzailatzak izango lirateke. Ekintzailatza horietan, garrantzitsuena ez da soilik zer produktu edo zerbitzu eskaintzen den, baizik eta **nola, norekin eta norentzat** garatzen den ekoizpen-jarduera, zer printzipioren arabera garatzen den, eta zer inpaktu dituen gizartean eta ingurune naturalean.



BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

- Canvas soziala, gure gizarte-, ingurumen- eta genero-eragina neurtzeko: [Canvas social](#)
- Unitate didaktikoa: [Ekonomia Sozial eta Solidarioaren ikuspegian erroturiko ekintzailatza](#).



ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 05

Ekintzailearen profila

#ekintzailearen profila
#genero- eta gizarte-desberdintasuna

#ekiteko baldintzak
#lankidetzatza-ekintzailatzatza

ZER DIO ESKULIBURUAK?

Ekintzailearen profila.



IRAKURKETA KRITIKOA

Ez dago ekiteko profil espezifikorik; izan ere, esan bezala, pisu handia dute ekintzailearekin eta haren ideiarekin lotutako baldintzek eta testuinguruak, bai eta pertsona horren profila markatzen duten genero-joerek ere. Hau da, ezaugarri pertsonalez gain, kontuan izan behar da ingurune sozialak erraztu egiten duela pertsona batzuen ekintzailatzatza, eta zaildu egiten duela beste batzuenatza.

Jar gaitezen gure herrialdean negozio bat hasi nahi duen atzerritar baten larruan. Ekintzailatzatza-prozesuaren berezko zailtasunei aurre egin behar izateaz gain, pertsona horiek beren egoera sozialarekin lotutako beste oztopo batzuk ere izaten dituzte. Esate baterako, titulu akademikoak homologatzeko edo esperientzia profesionala aitortzeko zailtasunak, finantzaketa lortzeko zailtasunak eta diskriminazioa hauengatik: jatorria, sexua, egoera sozioekonomikoa, kontaktu-sarerik eza, informazio erabilgarria eskuratzeko zailtasunak.



Nola marraztuko zenuke ekintzaile bat? Zer izaera izango luke? Non bizi da? Zer ikasketa ditu? Zer da, gizona ala emakumea? Herrialdekoa bertakoa da edo atzerritarra?

Galdera horiei erantzuterakoan, estereotipoetan oinarrituko gara, ziur asko, eta nahiko homogenea den ekintzaile baten ideia izango dugu. Oso garrantzitsua da estereotipo horiek desmuntatzea, zenbait erreferente emanez: emakumezko ekintzaileak, adinekoak, arrazializatuak, etab.

Nabarmendu egin behar da ekintzaileak trebetasun jakin batzuk dituen pertsona bat izan behar duela; esate baterako, antolaketarako trebetasuna, konpromisoa, proaktiboa eta ekintzailatzatza-ingurunea analizatzeko gai izatea. Ez da nahikoa ideia edo desio bat izatea; produktua edo zerbitzua eraiki egin behar da, eta aipatutako trebetasunak behar dira horretarako.

Bizitzako gainerako gauzeekin gertatzen den bezala, denok ez gara gai ekiteko, faktore pertsonal eta testuinguru-faktore batzuk uztartu behar baitira horrek funtzionatzeko.

Era berean, garrantzitsua da **ekintzailatzatza kolektiboaren edo lankidetzatza-ekintzailatzatza**ren ideia sartzea, proiektuaren garapena errazten baitu. Izan ere, negozioa gauzatzeko trebetasunak eta indarguneak ugaritu eta dibertsifikatu egiten dira: baliabideak, ahaleginak eta denborak bildu egiten dira; ondasunak eta zerbitzuak sustatzen dituzten ideiak eratzen dira; eta ustekabeei eta galerei guztien artean eusten zaie (ikusi [lankidetzatza-printzipioa](#), ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarearen printzipioen gutunekoatza).



BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

■ [Baliabideen Katalogoa](#), giza eskubideen ikuspegitik ekin ahal izateko.

■ Nork bere burua ezagutzeko lehen urratsak, ekiten hasteko:
[Pre canvas](#)

■ Nire bizi-proiektuari buruzko autodiagnostiko-fitxa (35. or.):
[Jardunbide egokien eskuliburuatza: teknologia berrien bidez pertsona migratzatzaileak norberaren kontura laneratzeko ibilbideetan](#)

CATÁLOGO DE RECURSOS

MUJERES EMPRENDEDORAS MIGRADAS



ARABA

BIZKAIA

GIPUZKOA



Haz un **click** sobre cada provincia, para poder ver su catálogo de recursos.



Bizkaia

Donostia-San Sebastián

Mujeres Emprendedoras Migradas

Economías con Principios

Manizales

El Gobierno Vasco

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 06

Ekintzailearen arrakasta eta porrota

#arrakasta eta porrota, horiek neurtzea
#ekiteko baldintzak

ZER DIO ESKULIBURUAK?

Arrakasta eta porrota ekintzailatzen.

IRAKURKETA KRITIKOA

Zer da arrakasta eta zer porrota zuretzat?

Arrakasta eta porrota pertsonen egoerek, testuinguruak eta gizarte-egiturek ere eragiten dituzte.

Sistema kapitalistak garaipenaren eta konkistaren ideiekin hezten gaitu. Egiten dugun guztian garaileak izan behar dugu. Arrakasta, askotan, ez da emaitza zehatzetan islatzen (dirutan, adibidez); ahaleginak eginda eta balio pertsonalekin bat etorrita zerbait propioa eraikitzeko aukeran baizik. Arrakasta, batzuetan, egoera bat edo beste bat igarotzen ikastea da.

Azpitarratu egin behar da arrakasta ez litzatekeela soilik irabazi ekonomikoen eta lortutako emaitzen arabera neurtu beharko. Zenbaitetan, litekeena da proiektu batek denbora behar izatea sendotzeko edo espero ziren helburuak ez lortzea. Proiektuak aurrera eramaten dituzten pertsonak ezagutza eta trebetasun baliotsuak eskuratzen dituzte, ikuspegi ekonomiko hutsetik kanpo bizitzaren beste arlo batzuetan lagungarriak izan daitezkeenak, edo etorkizuneko ekintzailatza-jardueretarako ikaskuntza gisa ere balio dezaketenak. Ikuspegi horrek prozesu osoa aberastu, eta egindako ahalegin eta jardunbide guztien balioa nabarmentzen du, sustatzailearen autokonfiantza eta ahalduntze-prozesua indartzeaz gain.

Gauza bera gertatzen da porrotarekin ere. Akatsak bizitzaren parte dira, eta dena ez da guk pentsatu bezala ateratzen. Nahiz eta batzuetan den-dena eta gure onena eman, askotan ez ditugu planteatutako helburuak lortzen. Zenbaitetan, ez dugulako analisi pertsonala egiten; beste batzuetan, testuingurua aldatu egiten delako eta ez dagoelako gure alde. Huts egitea ez da porrotaren sinonimoa.

Sistema kapitalistak eta patriarkalak arrakastaren eta porrotaren ideiak inposatzen dizkigute, gure bizitzarako oso kaltegarriak izan diren estereotipoen bidez. Adibidez, lanaldi bikoitz arrakastatsua arazorik gabe daraman goi-kargu exekutiboko emakume eta ama baten arrakasta genero-aginduekin nahasitako ilusio bat baino ez da.

Pertsona gehienok ahal duguna egiten dugu eskura ditugun tresnekin eta inguruko bizi-baldintza materialekin. Arrakasta eta porrota, beraz, eraikuntza menderatzaileak dira, eta arrakastaren ordeztu egiten denarekin ondo sentitzea erabili behar da, eta porrotaren ordeztu ikaskuntza.

BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

■ **Bizitza Onaren Egunerokoa** Ara!Gorputz kooperatiba feministak sortua, norberak inprimatzeko tresna bat da, Ekonomia Feminista esperientziak trukatzeko ikuspegi emozional batetik lantzeko. 12 hilabeteko ziklotan antolatuta, denboraren erabilerari, zaintzei eta horrek bizitzan duen eraginari buruz astero hausnartzera gonbidatu, eta zaintzan oinarrituta eta merkantilizaziotik urrun dauden eguneroko praktikak sustatzen ditu..

[Bizitza Onaren Egunerokoa](#)



3. BLOKEA | 09. UNITATEA

TALDE - LANA

Unitate honetan, talde-lana desberdintasunei heltzeko gune gisa aztertzen da. Ikuspegi horrekin, helburu komunak lortzeaz gain, taldearen barruko botere-harremanak eraldatzea ere bilatzen da, eta, horretarako, elkarrekiko errespetuaren, desberdintasunak aitortzearen eta ekitatearen kultura sustatu behar da.

Hemen, bestearen ideiak garrantzia hartzen du, elkarrekin bizitzeko, errespetatzeko eta integratzeko desberdin gisa. Halaber, oso garrantzitsua da lantaldeetan pentsatzea eta logika matxisten eta xenofoboaren erreprodukzioa lehengoratzea.

Unitate honek berdintasunetik, desberdintasunetik eta elementu komunetatik espazio kolektiboak eraikitzeko moduari beste begirada bat ematera gonbidatzen gaitu.

LOMLOEren oinarrizko jakintzak	_ Komunikazioa, motibazioa, negoziazioa eta lidergoa. Trebetasun sozialak. _ Taldeak enpresetan eta erakundeetan. Talde-lanerako estrategia arinak. Lantaldeen prestakuntza eta funtzionamendua.
Eskuliburuko epigrafeak	_ Talde baten balioa. _ Lidergoa. _ Komunikazioa. _ Gatazkak konpontzea. _ Erakundearen kultura.
Irakurketa kritikoarekin garatu beharreko trebetasunak	_ Taldean lan egiteak zer ekartzen duen hausnartzea _ Bestea errespetatzeari eta barne hartzeari buruz hausnartzea _ Emozioetan eta haien mugetan pentsatzea _ Lan-harremanetan izaten diren forma matxistak eta arrazistak agerian jartzea.



ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 06

Nola osatu talde bat

#taldeen kudeaketa
#genero-rolak taldeetan

ZER DIO ESKULIBURUAK?

Oso garrantzitsua da pertsona bakoitzak taldean zer erantzukizun duen jakitea, inplikatzeko aukera izan dezan eta kideen arteko koordinazioa egon dadin. Erantzukizun horri rol esaten diogu.



IRAKURKETA KRITIKOA

Rolak lana ordenatzen laguntzen dute eta zentzua ematen diote talde-lanari. Talde bateko kide batek bere rola betetzen ez badu, besteek gehiegizko lana izango dute. Horregatik, pertsona eta rol bakoitza garrantzitsua da, formulatutako helburu komuna lortu ahal izateko. Taldearen eta baterako lanaren dinamika ona izateko funtsezkoa da bestea aintzat hartzea.

Batzuetan, rolak gaitasun indibidualen arabera zehazten dira, eta, beste batzuetan, genero, adin eta nazionalitate edo arrazagatiko bereizketek ere eragiten dute.

Askotan, emakumeei ardura txikiagoko zereginak ematen zaizkie; izan ere, esan bezala, botereguneak gizonentzat gordetzen dira sistema patriarkalean. Beste zenbaitetan, gazteak *komodintzat* hartzen dira, eta beren roletik aparteko zereginak ematen zaizkie, lan-esperientzia hartu behar dutela aitzakiatzat jarrita. Talde-lana ekitatea, berdintasuna eta bestearekiko eta haren rolaiekiko errespetua entseatzeko gune bat da.

Rolak pertsona bakoitzaren motibazioen eta trebetasunen arabera esleitu behar dira, generoa, arraza edo identitatea kontuan hartu gabe.

Garrantzitsua da, halaber, inongo rolekin lotu ohi ez diren zeregin jakin batzuk ikusaraztea, ezinbestekoak izaten baitira aitorpen handieneko lan nabariak aurrera eramateko. Zeregin hauei buruz ari gara, besteak beste: areto bat prestatzea, kafea egitea, espazioa garbitzea, lankideez arduratzea, bilera bat edo beste zeregin zehatz bat gogoratzea...

Zeregin *ikusezin* horiek funtsezkoak dira taldeari eta lan-giroari eusteko. Esan bezala, oso garrantzitsua da zeregin horiek ikusaraztea, haiei rol bat esleituz eta/edo haiek egiten dituen aintzat hartuz.



ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 07

Nola izan taldeko jokalaria ona

#taldeen kudeaketa
#genero-rolak taldeetan

#aniztasuna eta inklusioa
#antirrazismoa

ZER DIO ESKULIBURUAK?

Izan asertiboa. Izan proaktiboa.



IRAKURKETA KRITIKOA

Proaktibitatea beharrezkoa da talde-lanean, ekimena ezinbestekoa baita lana aurrera ateratzeko. Baina denok ez ditugu denbora, baldintza eta trebetasun berberak, zeregin baten aurrean besteak bezain proaktiboak izateko. Asertibotasuna eta proaktibitatea desberdin interpreta daitezke, kultura- eta genero-testuinguruen arabera.

Genero-sozializazioak eragina du proaktibitatea eta asertibotasuna ulertzeko moduan; gizonak liderrak, aktiboak eta asertiboak izatera animatzen dituzte; positiboki baloratutako ezaugarriak dira horiek. Emakumeei, aldiz, bakegileak izaten eta gatazkak saihesten irakasten zaie, eta, beraz, haien proaktibitatea edo asertibotasuna desafiatailetzat edo desegokitzat jotzen da askotan. Horrek gizonen nagusitasuna indartzen du, eta emakumeei beren ezaugarriak adierazteko ziurtasun-gabezia handia eragiten die. Genero anitzez osatutako taldeetan, oso garrantzitsua da eraikuntza horiei buruzko hausnarketa egitea. Funtsezkoa da espazio batzuk sortzea, eta espazio horietan emakumeen ahotsa errespetatzea eta emakumeei ez eskatzea iritzia gozotasunez edo kontu handiz emateko. Aldiz, pertsonen arteko errespetuzko komunikazio batean espero diren parametro sozialen arabera argudiatutako iritzi teknikoak eman behar dituzte. Eta gizonen kasuan, alde batera utzi behar da asertiboa izateko irmoa eta inposatzailea izan behar delako ustea. Komunikazioak ere baditu genero-joerak, eta oso egokia da horiek aitortzea, eraldatzeko.

Nazionalitate desberdineko pertsonekin osatutako taldeetan, adibidez, asertibotasuna talde-eraikuntza bat da, bakoitzak modu desberdinean eman baitiezaieke esanahia hitzei. Espainian gaztelaniaz erabilitako hitz batzuk hitz txar edo irain gisa interpreta daitezke beste herrialde edo latitude batzuetan. Asertibotasunari dagokionez, bestea aintzat hartzerakoan, pentsatzen dena adierazteko moduko komunikazio-estrategia bat bilatu behar da, baina baita adierazitakoa hartzaileak ulertzeko modukoa ere.

Proaktibitatea indibiduala eta kulturala ere badela ulertzeak desberdintasunak errespetatzen dituen lantalde bati eusten laguntzen du.

Urte askotan, lanean proaktiboa den emakume bat eskatutako zeregin guztiak betetzen dituen emakume lagunkoitzat hartu izan da. Emakume izateak ez du esan nahi lan gehiago egin behar duenik edo besteei arreta eman behar dienik. Emakumeen lan-baldintzak errespetatu egin behar dira gainerakoenak bezala, eta ez zaie gehiegizko karga jarri behar, hori genero-diskriminazioa eta botere-gehiegikeria izango bailitzateke.



ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 07

Nola izan taldeko jokalaria ona

#taldeen kudeaketa
#genero-rolak taldeetan

#aniztasuna eta inklusioa

ZER DIO ESKULIBURUAK?

Periskopia, 1. Alfer soziala.

IRAKURKETA KRITIKOA

Kontuz ibili behar da termino hori erabiltzean, estereotipoekin nahas daitekeelako.

Demagun talde-lan bat egiten ari zarela ikasgelan, eta nabaritu egin duzula ikaskideetako bat ez dela asko laguntzen ari.


Alferra dela automatikoki pentsatu beharrean, hobe da galdera hauek egitea:

? Aukera berberak al ditu? Ondo al dago? Ba al da zerbait, gehiago parte hartzea eragozten diona?

Alfer edo nagi gisa estigmatizatutako pertsonen adibide garbia dira sexu-identitateagatik, pobreziagatik eta abarrengatik diskriminazio-prozesuak bizi izatearen ondorioz osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonak. Batzuetan, metatutako gutxiespen-esperientzien eraginez, pertsonak ez dute gogorik izaten parte hartzeko edo errezeloa izaten dute parte hartzeko, eta horrek ez du loturarik abusuzko jarrera batekin.

Esate baterako, genero-indarkeriako edo laneko sexu-jazarpeneko egoera bat bizitzen ari den emakumezko lankide batek gogogabetasun, kezka, bakartze sozial eta isolatzeko seinaleak izango ditu.

Pertsonen hainbat jazoera gertatzen zaizkigu, eta oso garrantzitsua da aurretik iritzia ez ematea; aldiz, beste pertsonari laguntzeko eta hari elkartasuna adierazteko jarrera hartu behar da.



ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 09

Lidergoa

#taldeen kudeaketa
#genero-rolak taldeetan

#aniztasuna
#demokrazia enpresan

ZER DIO ESKULIBURUAK?

Lidergoa pertsona batzuek helburu komun baten bilaketan beste batzuk koordinatzeko eta gidatzeko duten gaitasuna da, ez indarragatik edo obedientziagatik, baizik eta pertsona horiek inspiratzen dituztelako, helburu berberak partekatzeraino.



IRAKURKETA KRITIKOA

Tradizionalki, lidergoa pertsona autoritarioekin lotu izan da. Lider bat imajinatzen dugunean, erabaki garrantzitsu asko hartzen ari den eta beste pertsona guztiei zer egin behar duten esaten ari zaien pertsona bat imajinatzen dugu. Ideia horrek genero-diskriminazioaren faktoreak ere izan ditu. Emakumeak baztertu egin dituzte lidergo-eroleetatik, ekonomia tradizional kapitalistan, batez ere.



Ikusi al duzu filmen batean emakume bat banku bateko arduradun gisa?

Historian zehar, zaila izan da emakumeek lidergo-rolak izatea (rolak era askotakoak izanik ere), eremu publikoan, erantzukizuna eta agintea adierazten dituzten rolak gizonei esleitu baitzaizkie. Beraz, lidergoa maskulinitate tradizionalaren edo hegemonikoaren ezaugarriekin lotuta egon da.

Botere-egitura guztiak berrikusten hasi zirenean (Europako faxismoen eta Latinoamerikako diktaduren ostean), inpaktu bat dago lidergoaren konfigurazioan, gizarte-klaseen edo generoaren zapalkuntzagatik, eta rol hori eratzeko beste modu batzuk sortzen dira. Adibidez:


■ **Lidergo horizontala:** pertsona guztiek eman ditzakete ideiak eta hartu ditzakete erabakiak.

■ **Lankidetzeta-lidergoa:** proiektu edo talde jakin bat gidatzen duen pertsona, buruzagitza baino gehiago, taldekidetzat hartzen da, taldeko kide guztiak gidatzen, haiei entzuten eta haiei trebetasunak eta baliabideak eskaintzen dizkien taldekidetzat.

■ **Txandakako lidergoa:** : lidergoa txandaka aldatzen da pertsona batetik beste batera. Horrela, pertsona guztiek lidergo-trebetasunak garatu ditzakete, eta erabakitze ahalmen osoa ez dago pertsona bakar baten esku.



Zure ustez, nola hartu beharko lirateke erabakiak talde batean?



ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 10

Taldeetan sarritan izaten diren arazoak

#taldeen kudeaketa #aniztasuna eta inklusioa
#genero-rolak taldeetan #komunikazio inklusiboa

ZER DIO ESKULIBURUAK?

Talde batek izan ditzakeen arazoak.

IRAKURKETA KRITIKOA

- Giza talde guztiek bezala, lantaldeek ere arazoak izaten dituzte. Eskuliburuan, kudeaketarekin lotutako batzuk aipatzen dira. Hala ere, kudeaketarekin lotuta ez dauden beste kontu batzuek gatazkak edo arazoak eragin ditzakete lantalde batean:
- Kontziliazio-politikarik, erantzukidetasunik eta berdintasun-planik ez egotea.
 - Komunikazio bortitza edo ez-inklusiboa erabiltzea.
 - Zereginak planifikatzeko talde-bilerarik ez egitea.
 - Giza sufrimenduarekin lan egiten duten taldeetan, taldea zaintzeko espaziorik eza.
 - Lidergo positibo edo osasuntsu baten falta.
 - Sexu- edo lan-jazarpeneko egoerak.
 - Zurruntasuna egoera pertsonal larrien aurrean.
 - Lankideei buruzko esamesak eta aurreiritziak sortzea.
 - Baldintza prekarioak eta lan-esplotazioa.
 - Emakumeen ordezkartza-falta zenbait sailetan.
 - Jardunaren ebaluazio partzialak.
 - Berdintasunik eza arrakasta aitortzean.

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 11

Komunikazioa

#taldeen kudeaketa #aniztasuna eta inklusioa #antirrazismoa
#genero-rolak taldeetan #komunikazio inklusiboa

ZER DIO ESKULIBURUAK?

Komunikazioa.

IRAKURKETA KRITIKOA

Hizkuntza positiboa erabiltzea baliagarria da, eta lan-giro egokia eragiten laguntzen du. Oso garrantzitsua da komunikatzea eta adieraztea, baina baita entzutea ere. Komunikazioa ona izateko, hizkuntza modu konstruktiboan erabiltzen duen norbait behar da, baina baita aurreiritzirik gabe entzun dezakeen beste norbait ere. Lanean, era guztietako desadostasunak sortu daitezke, eta, horrenbestez, asertiboki adierazteak eta aktiboki entzuteak korapiloak azkar askatzen laguntzen dute. Halaber, oso garrantzitsua da hizkuntza inklusiboa eta ez-sexista erabiltzea, eta kulturalki txertatuta ditugun hitz edo esamolde batzuen zentzu matxista edo diskriminatzailea berrikustea; hauena, adibidez: “beltz batek bezala lan egitea”, “ijitoa”, etab.

BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

- Unitate didaktiko espezifikoak, honi buruz: [Komunikazioa generoaren eta giza eskubideen ikuspegitik.](#) (ikusi 4. eranskina, 38.-39. or.)

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 12

Gatazkak konpontzea

#taldeen kudeaketa
#genero-rolak taldeetan

#antirrazismoa
#aniztasuna eta inklusioa

 ZER DIO ESKULIBURUAK?

La resolución de conflictos.

 IRAKURKETA KRITIKOA

Zenbaitetan, taldeetan gatazkak konpontzean, genero- eta arraza-estereotipo tradizionalak azaleratzen dira. Genero-gaiekin lotutako adibide bat mansplaining izenekoa da. Hori gertatzen da gizonezko batek emakumezko bati emakumezkoak badakien, erabiltzen duen edo bere trebetasunetako bat den zerbait azaltzen dionean, emakumezkoak hori ez dakiela pentsatu, eta haren jakintza edo iritzi profesional edo tekniko gutxiesten duelako. Batzuetan, zerbaiti buruzko ikuspuntuak adosteko, aipatutako hori gertatzen da, eta, horrek begirada maskulinoa inposatu, eta emakumezkoak isiltzen ditu.

Gatazkei aurre egiteko orduan, gutxiespena arrazagatik ere izan daiteke. Adibidez, migratzaile baten pentsamendua debaluatzea, gaia ulertzen ez duela uste delako; baina, berez, kulturalki desberdin kodetzen du.

Gatazkak konpontzeko, bakoitzaren posizioa aztertu, eta haren iritzia eta pentsamendua balioztatu behar dira, baina desberdintasunak ere barne hartuta.

 BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

■ **Bideoak:**
Boterearen eta genero-desberdintasunaren desorekak islatzen dituen jarrerari buruzko bideoa, eguneroko interakzioetan portaera hori nola saihestu hausnartzera gonbidatzen duena..
[Mansplaining](#)

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 13

Gatazkak eta emozioak

#taldeen kudeaketa
#genero-rolak taldeetan

#aniztasuna eta inklusioa
#komunikazio inklusiboa

 ZER DIO ESKULIBURUAK?

Emozioak lanean.

 IRAKURKETA KRITIKOA

Emozioekin antzeko zerbait gertatzen da. Mendeetan zehar, emakumeen emozioak barregarri utzi dira, emakumeak histerikoak, gehiegizkoak eta sentikorrak direla esanez. Era berean, gizonen indarkeriazko emozioak babestu egin dira, hala nola neurritz kanpo haserretzea, ahoz erasotzea, etab.

Garrantzitsua da estereotipo horietan ez erortzea taldean lan egitean, eta emakumeek azaldutako emozioak aurreiritzirik gabe balioztatzea, bai eta jarrera/komunikazio bortitzak edo beldurtzekoak mugatzea ere.

Halaber, lan-estresa gero eta ohikoagoa da, eta ordu oro eta edozein unetan ekoiztea eskatzen diguten esplotazio-logikekin lotuta dago. Horregatik, gaur egun, ezinbestekoa da emozioak zaintzea lanean, eta, askotan, enpresek edo enplegatzaileek ukatu egiten dute hori.

 BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

■ Bilerak egituratzeko proposamena, ekoizpen- eta harreman-zereginak orekatzen dituen, eta emakumeen eta gizonen arteko partaidetza ekitatiboa eta indarkeriarik gabeko komunikazioa sustatzen dituen: “Bizitza erdigunean”.
[BILERA BIZIGARRIAK \(gatazken prebentzioa\)](#)

3. BLOKEA | 10. UNITATEA

ZURE NEGOZIOA SORTZEN

Unitate honetako kontzeptuen bidez negozioa errentagarria den zerbait bezala planteatu nahi da, baina baita ekonomia egiteko eta etekinak sortzeko logika nagusien zerbait eraldatzaile bezala ere. Norbanakoaren probetxuaren logikatik atera eta logika kolektibo batera igarotzea da kontzeptu horien berrikusketaren bidez lortu nahi dena. Dena ez da onura pertsonala lortzeko egin behar, beste dimentsio eta beste eragile batzuek ere onurak lortu ditzaketelako.



LOMLOEren oinarrizko jakintzak	_ Sormena, ideiak eta irtenbideak. Diseinu-pentsamendua edo Design thinking izenekoa eta berrikuntza arineko beste metodologia batzuk. _ Erronka helburu gisa. _ Proiektu ekintzaile bat planifikatzea, kudeatzea eta gauzatzea. Erronkatik prototipora. _ Produktuaren garapen arina. _ Prototipoak azkar egiteko teknikak eta tresnak. _ Erabiltzailea prototipoaren azken hartzaile gisa. Erabiltzaileen erabakiak. Erabiltzailea kontsumitzaile gisa. Kontsumitzaileen eskubideak eta betebeharrak. _ Prototipoaren gaineko eskubideak: jabetza intelektual eta industrial.
Eskuliburuko epigrafeak	_ Zure negozio-eredua. _ Negozio-ideia. _ Balioa sortzea. _ Bilatu zure merkatua. _ Non dago nire dirua? _ Egin prototipo bat. _ Gure ideiak babestea.
Irakurketa kritikoarekin garatu beharreko trebetasunak	_ Gizartean eragina duen ideia indibidual baten balioari buruz hausnartzea. _ Era askotako produktu eskuragarriak sortzeari buruz hausnartzea. _ Ekoizpen-prozesuak eta ekintzailtzak kolektibizatzeak aukerei buruz hausnartzea.

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 01

Negozio-ideia

#lankidetzak-ekintzailak
#ekintzailak soziala versus

Ekonomia Sozial eta Solidarioko
ekintzailak

 ZER DIO ESKULIBURUAK?

“Zure negozio-ideia zurekin lotuta dago”.

 IRAKURKETA KRITIKOA

Negozio-ideiak eskaera sozialen bidez eratu ditzake bere interesak. Ongizate kolektiboan pentsatzea, merkatuak eta Estatuak konpontzen ez dituzten arazoen konponbideetan berritzea, negozio bati ekiteko motor garrantzitsu bat izan daiteke. Horri ekintzailak sozial esaten zaio.

Gainera, ideia indibidualista kapitalistarekin hausten duen ikuspegi batetik ekiten badugu eta beste ekintzaile batzuekin, ingurunearekin eta gizartearekin lankidetzaren eta konponbideen bidez konektatzea bilatzen badugu, Ekonomia Sozial eta Solidarioari buruz hitz egiten ariko gara.

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 02

Balioa sortzea

#ekintzailak eraldatzaileak

 ZER DIO ESKULIBURUAK?

“Gure produktuaren balioa behar bat asetzeko duen gaitasuna da”.

 IRAKURKETA KRITIKOA

Adierazpen hori honako ideia honekin osa daiteke: talde diskriminatuekin zerikusia duten beharrak konpon baldin badaitezke, balio soziala handiagoa izango da. Hainbat lekutatik egin daiteke ekarpena arrakalak eta desberdintasunak murrizteko, eta, beraz, negozioak horren arabera pentsatzeak ekarpena egiten dio berdintasunari eta kohesio sozialari.

Gure jarduerak duen gizarte-, genero- eta ingurumen-eraginak ere balioa gehitzen edo kentzen dio eskaintzen dugun ondasunari edo zerbitzuari.

 BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

■ Ekonomia Sozial eta Solidarioko enpresa-ereduetarako egokitutako negozio-ereduen tresnak:
[Canvas soziala](#)

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 03

Egin prototipo bat

#ekintzailletza eraldatzailea #ekonomia zirkularra
#aniztasuna eta inklusioa

 ZER DIO ESKULIBURUAK?

Egin prototipo bat.

 IRAKURKETA KRITIKOA

Negozio bat planifikatu behar denean, gizartearentzat onuragarriagoa da irizpide inklusiboetan oinarrituta egitea. Hau da, ondasunak edo zerbitzuak era guztietako pertsona ugarik erabiltzeko modukoa izan behar duela pentsatu behar da. Ondasunak edo zerbitzuak zer genero-eragin duen aztertzea edo desgaitasun fisikoa edo intelektuala duten pertsonen erabil dezaketela hasieratik kontuan izatea, adibidez, lagungarriak dira bezeroen unibertsoa zabaltzeko eta merkatua eskuragarriagoa egiteko. Itsuentzako app-ak, esate baterako.

Produktua edo zerbitzua gero konpontzeko, berrerabiltzeko edo birziklatzeko ikuspegitik diseinatzeak, Ekonomia zirkularrak sustatzen duen bezala, ingurumenean inpaktu txikiagoa eragiten laguntzen du.

 BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

- Desgaitasunak lan-merkatuan egiten dituen ekarpenak, aniztasunaren eta jasangarritasunaren ondorioz:
[Irisgarritasunerako baliabideak](#)
- Canvas Sozial eta Jasangarri baterako galderak (51. or.).
[Canvas Sozialerako galderak](#)
- Ekonomia zirkularra eta Kontsumo arduratsua lantzeko hezkuntza-materialak:
[Ekonomia zirkularra](#)
Ekonomia zirkularra lantzeko [fitxa didaktikoa](#).

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 04

Gure ideiak babestea

#lankidetzak-ekintzailletza

 ZER DIO ESKULIBURUAK?

“Inork ez du zure negozio-idea zuk bezala ezagutzen, eta, seguru asko, inor ez dago zu bezain gogotsu eta konbentziturik ideiarekin. Norbaitek kopiatu nahiko balizu ere, zuk, seguruenik, lehenago eta hobeto garatuko zenuke. Beraz, ez duzu beste pertsona batzuekin harremanetan jartzea saihestu behar, zure negozio-idea galtzeko beldurragatik”.

 IRAKURKETA KRITIKOA

Antzeko negozio-ideiak eta/edo ideia osagarriak egon daitezke. Babesetatik haratago, antzeko ondasun edo zerbitzu batekin ekiten saiatzen ari diren beste batzuekin elkartzea, lankidetzan aritzea edo indarra hartzea azter daiteke. Lehia lankidetzak eta prozesu kolektiboen hasiera bihurtu daiteke.

Adibidez, jatorrizko herrialdeko janari tipikoa saltzen duten emakume migratzaile ekintzaileen kasuan, elkartu egin daitezke, proiektu beraren bidez produktu-aukera handiagoa eskaintzeko.

3. BLOKEA | 11. UNITATEA

NEGOZIO BERRI BAT ABIAN JARTZEA

Unitate honetan, enfasia produktuak sustatzeko moduan jarriko da. Publizitatea egiteko modu tradizionala eta genero- eta arraza-estereotipoekin duen lotura azaltzen dira.

Ekimen bat abian jartzean, desberdintasunak ez areagotzeko ardura hartu behar da. Ez dio axola negozioaren dimentsioak; beharrezkoa da errespetuzko eta berdintasunezko publizitate- eta marketin-estrategia inklusiboak pentsatzea.



LOMLOEren oinarrizko jakintzak	— Sormena, ideiak eta irtenbideak. Diseinu-pentsamendua edo <i>Design thinking</i> izenekoa eta berrikuntza arineko beste metodologia batzuk. — Finantza pertsonalak eta ekintzailtza-proiektuarenak: diruaren kontrola eta kudeaketa. Sarreraren eta gastuen iturriak eta kontrola. Epe laburreko eta epe luzeko finantza-baliabideak eta horiek finantza-ongizatearekin duten lotura. Zorpetzea. Finantzaketa-iturriak, eta finantza-baliabideak jasotzea. Finantza-arriskuaren kudeaketa eta aseguruak. — Erronka helburu gisa. — Prototipoa aurkeztea eta ingurunean sartzea. Hedapen-estrategiak. — Erabiltzailea prototipoaren azken hartzaile gisa. Erabiltzaileen erabakiak. Erabiltzailea kontsumitzaile gisa. — Kontsumitzaileen eskubideak eta betebeharrak.
Eskuliburuko epigrafeak	— Marketina. — Gure negozioaren bideragarritasuna. — Finantza-plana. — Gure ekintzailtzaren finantzaketa. — Partekatu zure proiektua.
Irakurketa kritikoarekin garatu beharreko trebetasunak	— Marketina eta publizitatea egiteko moduak eta gizartean duten eragina planteatzea. — Negozio batek komunitatearekiko zer konpromiso izan dezakeen pentsatzea. — Negozio bat zehazteko orduan eragina duten faktoreei buruz hausnartzea.

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 01

Marketina

#marketin inklusiboa
#marketin eraldatzailea

 ZER DIO ESKULIBURUAK?

Marketina enpresaren ekonomiaren adar bat da, eta adar horretan aztertzen dugu nola lortu behar dugun gure bezeroek gure produktua aukeratzea beste produktu baten ordean.

 IRAKURKETA KRITIKOA

Gure marketin-estrategia pentsatzeko, genero, arraza, nazionalitate eta abarrekin lotutako desberdintasunak kontuan hartu behar ditugu, horiek murrizten saiatzeko, eta, abantaila ateratze aldera, horietan ez sakontzeko. Urteetan zehar, merkatuak M8 emakumeentzako produktuak saltzeko erabiltzen zuela esan izan da, borroka feministaren aldarrikapenak ulertu gabe. Kasu horretan, aipatzekoak dira enpresen arduragabekeria eta kausa sozialen manipulazioa. Produktuak sustatzeko moduak aldaketa sozialarekin etorri behar du bat, eta ez desberdintasun eta injustizia soziala eragiten duten formak eta estereotipoak erreproduzitzearekin.

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 02

Marketin mixaren aldagaiak

#komunikazio inklusiboa
#antirrazismoa

 ZER DIO ESKULIBURUAK?

Publizitatea.

 IRAKURKETA KRITIKOA

Publizitatean, kontu handiz ibili behar da arraza- eta genero-estereotipoak ez erreproduzitzeko. Esate baterako, garbiketako produktuen publizitateak berrikusi behar dira, beti emakumeak azaltzen baitira haietan, eta, hala, garbiketa emakumeen zeregina dela ematen baita aditzera. Antzekoa gertatzen da haurrentzako produktuak direnean; mutilentzako jostailu batzuk eta neskentzako beste batzuk sustatzean, genero-desberdintasuna bultzatu besterik ez da egiten. Era berean, ilea lisatzeko produktuen publizitatea egiteko arrazializatutako pertsonen irudiak erabiltzeak, adibidez, arraza-diskriminazioari eusten dio.

 BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

■ Unitate didaktikoa: Komunikazioa generoaren eta giza eskubideen ikuspegitik:
[Komunikazioa generoaren eta giza eskubideen ikuspegitik](#)

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 03

Gure ekintzailetzaren finantzaketa

#finantza-bazterketa #mikrokredituak
#emakumeak eta finantzak

 ZER DIO ESKULIBURUAK?

Mailegua: ekintzailetza gehienetarako finantzaketa lortzeko modurik ohikoena da.



IRAKURKETA KRITIKOA

Ikusi genuenez, denok ez ditugu maileguak modu berean eskuratzen, batzuk finantza-sistematik baztertuta baitaude. Maileguak eskuratzeko oztopo handiak dituztenen artean migratzaileak daude. Horregatik, migratzaileek lanik egiten ez dutela edo dirulaguntzetatik bizi direla esateko orduan, finantza- eta diskriminazio-traba handiak dituztela aitortu behar da lehenik eta behin.

Marokoko emakume bat Espainiako finantza-erakunde batera mailegu bat eskatzera joaten bada, ez da krediturako hautagaia izango aurreiritzi askoren eraginez, pertsona horiei aparteko baldintza batzuk eskatzen baitzaizkie mailegua emateko. Adibidez, herrialdean denbora jakin bat bizitzen ematea, ondasun pertsonalak bermatuta izatea, etab.

Negozio baten bideragarritasuna diskriminazio-faktoreek ere baldintzatzen dute.



BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

■ Bilboko migratzaile ekintzaileek finantzaketa eskuratzeari buruzko azterketa:

[Koop SF eta Mugarik gabeko Ekonomilarien txostena.](#)

■ Finantzen munduko genero-desberdintasunen azterketa:

[SETEMen txostena.](#)

■ Zer dira mikrokredituak?

[Microcréditos](#)

ALDAKETAREN ALDEKO HAUSNARKETA | 01

Partekatu zure proiektua

#ekintzailetza eraldatzailea
#aniztasuna eta inklusioa

 ZER DIO ESKULIBURUAK?

One Pager baten eredua.



IRAKURKETA KRITIKOA

Azaldutako irizpideei gehitu egin behar zaie zer motatako onura edo inpaktua eragingo duen gizartean, komunitatean edo ingurumenean, edo zeinetan lagunduko duen.



BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

■ Ekonomia Sozial eta Solidarioaren arloko zenbait ekintzailearen One Pagerren adibideak::

[Onepager.](#)

3. FITXA. JARDUERAK

Negozio Inklusiboak eta Garapen Jasangarrirako Genero Perspektiba

Hiru jarduerak negozio inklusiboaren kontzeptuari buruz hausnartzera bideratuta daude, genero ikuspegiarekin eta garapen jasangarriari egiten dion ekarpenarekin. Arrantzale eta finantzarien ipuinaren bidez, deshazkundera eta negozio inklusiboak jorratzen dira. Bigarren jarduera publizitatera eta diskriminazioen azterketara bideratuta dago. Azkenik, azken jarduera migratzaileen ekintzailatzan eta haien erronka eta aukeretan zentratzen da.

» EDUKIAK

Negozio inklusiboak, publizitatea eta komunikazioa genero perspektibatik eta ekintzailatza migratzailearekin.



■ Ikaskuntza-helburuak:

- 1_ Negozio inklusiboaren esanahia zer den jakitea eta zer modutan enpresan inplikaturako alde guztiei mesede egin diezakeen.
- 2_ Enpresa testuinguruetan genero berdintasunerako politikak ebaluatzeko eta hobetzeko tresna praktikoak aplikatzea.
- 3_ Negozio inklusiboek nola garapen jasangarrian eta desberdintasunak murrizten lagun dezaketen hausnartzea.



■ Garapen Iraunkorreko Helburuak:

- 5 GIH: Genero berdintasuna.
- 8 GIH: Lan duina eta hazkunde ekonomikoa.
- 10 GIH: Desberdintasunak murriztea.

Iraupena: 70 minutu.



1_ Arrantzalea pozik (Anthony de Melloren “El canto de el pájaro” ipuina).

■ **BALIABIDEA:** [“Finantzaria eta arrantzalea” ipuina Ekonomiaren Ipuinak – Mugarik gabeko ekonomialariak \(ecosfron.org\)](#) zientzia ekonomikoari buruzko ipuinetan.

■ **IRAUPENA:** 20 minutu.

■ DESKRIBAPENA:

- Ikasleek ipuina irakurriko dute, negozio inklusiboaren oinarriko kontzeptuak eta hauek, nola mesede egin diezaioketen ulertzeko.
- “Arrantzalea eta industria aberatsa” ipuina erabiliz, ikasleek jasangarritasunari, negozio inklusiboari eta hazkunde ekonomikoari buruzko hainbat ikuspegi buruzko eztabaida batean parte hartuko dute. Ipuinak aberastasunaren metaketaren eta bizitza sinple eta osoarekin gogobetetzearen arteko aldeari buruzko hausnarketa planteatzen du. Gai horiek garrantzitsuak dira negozio inklusiboaren ikuspegiak kontuan hartzerako orduan, onura ekonomikoa maximizatzea ez ezik, gizarte ongizatea eta jasangarritasuna ere bilatzen baitute.

■ **METODOLOGIA:** Irakurketa indibiduala eta eztabaida. Jarraian, eztabaidarako orientatutako galdera batzuk aurkezten dira.

- Zeintzuk dira ipuineko pertsonaiek definitzen dituzten bi balioak? Zeinekin sentitzen zara identifikatuago?
- Uste duzu posible dela ondo bizitzea eta zoriontsu izatea enpresak edo herrialdeak denbora guztian ekonomikoki hazi gabe? Zergatik?
- Zer deritzozu orainaz eta gauza sinpleez gozatzearen aurrean aberastasuna metatzearen idearen inguruan?

2_ Bidezko komunikazioaren testa.

■ **BALIABIDEA:** Mugarik gabeko Ekonomilariak-en 03 unitate didaktikoaren 3. saioa. [06_ Unitate Didaktikoa_03.pdf \(ecosfren.org\)](#).

■ **IRAUPENA:** 30 minutu.

■ **DESKRIBAPENA:** Jarduera honek publizitate iragarkiak ikusteko eta publizitatean diskriminazioak identifikatzeko test baten dinamika bat konbinatzen ditu.

■ Hauek dira unitatean proposatutako bideoak:

– [Nike woman 2006 Espainia - YouTube](#)

– [Jardunbide egokiak - Coca Cola Familiak](#)

– [Jardunbide egokiak - Fisher Price](#) iHjdu_3JM & index = 10 superzirkuitua (Cochelandia, 0:15 min)

– [Lane Bryant1 komertziala \(youtube.com\)](#)

■ Además, se aplicará el test que viene en la misma unidad en el anexo 4.

■ **METODOLOGIA:** Talde txikietan lan egitea, eta ikasleek proposatutako iragarkien testa aplikatzea. Gero, emaitzak aurkeztuko dituzte eta klasean eta eztabaidatuko egingo da.

3_ Ekintzailetza migratzailea. Erronkak eta aukerak.

■ **BALIABIDEA:** [Emprendimiento Migrante: Retos y oportunidades - YouTube](#)

■ **IRAUPENA:** 20 minutu.

■ **DESKRIBAPENA:** Ikasleek MgEren bideo bat ikusiko dute, migratzaileek negozio bat abian jartzea erabakitzen dutenean dituzten erronkak eta aukerak aztertzen dituen.

■ **METODOLOGIA:** Bideoa ikus, eta, ondoren, gelan eztabaida bat egin, ikasleek gelan gogoeta egiteko. Hurrengo galdera hauek egingo dira.

■ Zure ustez, zer zailtasun dituzte migratzaileek herrialde berri batean negozio bat hastean.

■ Ezagutzen al duzu negozio bat abian jarri duen migratzailerik? Nola gainditu dituzu erronkak?

Ebaluazioa:

■ Talde eztabaida eta jardueretan parte hartzea behatzea.

■ Gogoeta idatziak eta proposatutako negozio ereduak berrikustea.

■ Generoaren *checklist*-aren erabilera kritikoa ebaluatzea.

Beharrezko materialak:

■ Artikuluak irakurtzeko eta materialak deskargatzeko Interneterako sarbidea duten gailuak.

■ Generoaren *checklist*-aren fotokopia inprimatuak.

Sekuentziatutako jarduera honek aukera ematen die ikasleei justizia ekonomikoaren eta genero ikuspegiaren funtsezko kontzeptuak esploratzeko, irakurketa, eztabaida, talde lana eta banakako hausnarketa barne hartzen dituzten ikaskuntza metodo ugari erabiliz.

Koordinazioa _ **Mugarik gabeko Ekonomilariak Euskadi**

Proposamen metodologikoa _ **MgE-Euskadi, ESCODE**

Maketazioa eta diseinua _ www.dosmasdos.info

Honako gauza hauetarako zara librea _

-  • **Banatu** — Materiala edozein bitarteko edo formatutan kopia eta birbanatzea.
- **Egokitu** — Materialetik berrahaztea, eraldatzea eta sortzea.

Honako baldintza hauekin _

-  **Aintzatespena** — Egiletza behar bezala aitortu, lizentziarako esteka bat eman eta aldaketak egin diren adierazi behar duzu. Zentzuzko edozein modutan egin daiteke, baina ezin da "lizentziatzailearen" (lizentzia bat ematen duen pertsona edo erakundearen) laguntza edo baimena duen, edo hura erabiltzeagatik onura edo babesaren bat jasotzen duen moduan egin.
-  **EzKomertziala** — Ezin duzu materiala helburu komertzialetarako erabili.
-  **Berdin Partekatu** — Materialetik abiatuta birnahastu, eraldatu edo sortzen badu, jatorrizkoaren lizentzia berarekin zabaldu beharko ditu bere ekarpenak.

Baimena _

Aintzatespena-EzKomertziala-BerdinPartekatu 3.0 Espainia (CC BY-NC-SA 3.0 ES)

* Material hau 2024ko abenduan amaitu zen idazten: Mugarik gabeko Ekonomilariak-eko Koordinazioa.

